



Partidua jokatuko dute Realak eta Mondrak, 100 urte direla-eta | 29

Toti Martinez de Lezea idazleak azken lanaren gainean dihardu | 23



'Basque Night Adventure', bizikletaz, Bergaran | 28



Elgeta nazioarteko magiaren erakusleho bilakatuko da | 31

ETORKIZUNeko MUSIKARIAK, OÑATIN

Bihar, zapatua, Euskal Herriko 3.000 musika ikaslek hartuko dute parte Musikaldian | 32



Oñatiko Jose de Azpiazu musika eskolako ikasle eta irakasleak eta Iban Garate aktorea (aurkezle lanak egingo ditu Musikaldian), musika eskola kanpoan. | MIREIA BIKUÑA

Hondakinen bilketaren gainean herri galdeketa egingo dute Elgetan

Elgetako udalbatzarra osatzen duen hirukoak (Udal Gobernua, EAJ eta Bildu) hondakinen bilketaren gaineko adostasuna lortu du. Emaizta hori eskuratzeko, bederatzi hilabetez egin dute sukaldeko lana. Adostutakoen artean, besteak beste, abenduan herri galdeketa egingo dute. | 2

SINADURAK



Eta jaikitzen bagara? | 7

IÑAKI UGARTEBURU

7 | Kukuak, kuku

OINANA ELORTZA

In-ko-herentzia | 26

ANDER ELORTONDO

40 | Mojak hedabideetan

IDOIA ETXEBERRIA

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4

ELKARRIZKETA 6 | IRITZIA 7 | HERRIAK 11

KIROLA 28 | KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK

35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37

ESKELAK 37 | NON-ZER 38

"Jasotako diru guztiaren %18 geratzen da Diputazioan"



Helena Franco
Gipuzkoako Ogasuneko diputatua | 6



LARRAITZ ZEBERIO

Gerraren lehen errekreazioa egingo dute Elgetan | 11

☎ 943 71 48 45

Hemen

GARBIKETAK

www.hemen-garbiketak.com

Zure konfiantzako garbiketa enpresa

Mantentze garbiketak, obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:

- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kirolegiak, ambulatorioak, eta abar.

Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORIATZA • hemen@hemen-garbiketak.com

Datorrena ondo hartzen badakite nekazariak

- ▶ Ortuko ereite-lanak atzeratzea eragin du negu euritsuak
- ▶ Eguraldiari lotuta bizi dira, eta horretaz konturarazi nahi dute

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Negua joan zen dagoeneko; marxoaren 20an bukatu zen. Baina neguaren eraginak oraindik hemen daude. Hori ondotox daki nekazariak. Izan ere, euriaren eraginak eta hezetasunagatik gogoratuko dugu aurtengo negua. Urtarrilaren 11n botatzen hasi, eta 540 litro bota zuen hilabetean; bakarrik lau egunetan ez zuen euririk egin, eta, udaberria hasi arte, bakarrik 13 egunetan. Otsailan eta martxoan, 700 litro bota zuen Debagoienean, ohiko urte oso baten botatzen duen erdia. Elurra ere bota du.

Ur horren guztiaren eragin entzunena lurjausiak izan ziren, baina hori baino ondorio gehiago dago: izan ere, ortuko lana atzeratu egin du eguraldi horrek eta, ondorioz, bailarako nekazariak ezin izan dituzte gura besteko lanak egin ez eta gura zuten generoa landatu.

Oraindik urte ona izan daiteke

Arrasateko Bedoña auzoko Mariasun Iturbe baserritarrak hauxe dio: "Oraindik, lan batzuk aurreratu eduki beharko genituzke, baina ezin izan da. Lurra presatu, hori da ezin izan duguna egin". Zergatia azaltzen digu: "Gure lurrak astunak dira, lokatza-lurrak dira, eta denbora behar dute". Heze-heze daude oraindik; Etxebarri baserriko emakume horrek dioen moduan, "lurrari bere temperatura oratu behar zaio; orain, lurra ez dago bere aroan".

Ortua erdi hutsik dauka: "Baba beltzak, ilarrak, berakatzak... batzuk izan ditugu, baina sasoi honetan ez dago generorik ortuan. Hain heze joan izan ez balitz, akaso zati batzuk moldatuta, sats batzuk kenduta... izango genituzke".

Neguak negu dira eta halako eguraldia espero da; nekazariak ohituta daude. Hala ere, aurtengo ezohikoa izan da: "40 urte daroat hemen eta ez naiz hainbeste eurirekin akordutzen. Zelaie-

da". Baina horretarako eguraldi sanoa behar da.

Orain bertan lanak atzeratu eta etorri arren, ezin da esan aurtengo uzta nolakoa izango den: "Aurten oraindik egin dezake beste urte batzuetan moduan. Akaso urte onena izan daiteke, baina ezin da aurretik jakin".

Gauza onak ere badaude

Bedoñako baserritar horrek ez dauka negutegirik eta, horregatik, bere ortua "motza" dela dio: uztailetik orain arte. Baina ortua eroatea erabaki duen bati negutegia ipintzea gomendatzen dio.

Negutegia badaukate Arrasateko Askasibar baserrikoek. Rakel Perez de Arenaza baserritarrak dioenez, horrela ekoizpenaren zati bat babestu egiten dute. Askasibargo baserritarrak kontsumo-talde baten daude, ekoizle gisa, eta taldekoei beti zer edo zer eskaintzeko moduan daude.

Baina, negutegiarekin edo negutegi barik, baserritarrak "gora eta behera begira" bizi direla esaten du Perez de Arenazak. Neguko eguraldiak lana atzeratu diela onartzen digu: "Beharbada aurten patata maiatzean sartuko dugu. Traktorea pasatu berri dugu belarra pixka bat eskardatzeko, baina hiru hilabetean ezin izan da baratzean ezer sartu. Geneuzkan ilarrak urak eroan ditu".

Askasibargo baserritarrak beti ahalegintzen dira kontsumitzaileei zerbait eskaintzen, izan ere, merkatuetara kanpoko gene-



Mariasun Iturbe, Bedoñako baratzean. | JULEN IRIONDO

roa dator. Baina datorrena onartzen ere badakite baserritarrek, eta, ondorioz, kontsumo taldekoek ere bai: "Akordioa daukagu sasoiaren sasoiko produktuak saltzeko. Askasibargoan, gehiago sartzen dugu otzaretan, eta gutxi

te bat. Bat atzeratzen bada, beharbada txanda bakarrarekin gertatuko gara, baina lurrak beti ematen digu jateko zer edo zer, eta urtero pasatzen da zer edo zer. Aurten euria egin du eta onartu egiten dugu etorri dena; udaberrian, aurrerago, beharbada txingorra egingo du". Eta, gaineratzen duenez, denak du alde on eta alde ez hain ona: "Zuhaitzak oso politak datoz. Dena lorean dago, erleendako oso ona da hori. Gauza batzuk oso onak dira segun eta zertarako. Ezin gara kexatu. Datorrena hartu behar da. Beharbada oso uzta ona izango dugu; patatan beharbada ez, baina madaritan, baliteke; edo beharbada erleek ezti asko egingo dute. Bi aldeak ditugu".

Ez da salbuespen egoera

Baserritarren lanaren inguruko kontzientzia indartzeko balio dezakete oraingoa moduko egoerak. Hauxe dio Deba-Garaia Landa Garapen Elkarte Mari Karmen Iturbe teknikariak: "Nekazaria bere lan gogorra da eta, horrez gain, eguraldiari begira bizi gara. Baina kontsumo-taldeetan konpromiso bat dago, eta horrek garrantzi handia dauka". Iturberen iritziz, nekazarien alde

dagoenean, dagoena. Beste urte batzuetan moduan, porruak, zerbak, gordeta dauzkagun patata eta kalabaza, negutegiko letxugak... horiek gabiltza sartzen". Adibide bat ipintzen du Perez de Arenazak: "Denbora aurrerara doanean, patata sartzea tokatzen da. Oraindik ez dugu sartu, lurra oraindik oso bustita dagoelako. Patata bi txandatan sartzen dugu: urtarril edo otsail aldera txanda bat, eta gero, maiatz aldera, bes-

DATUA

% 30

GALDU

Foru Aldundiak laguntza-dekretu berezi bat egiteko, gutxienez % 30eko galerak egon behar izan dira une jakin baten.

tan pitzadurak atera dizkigu eta kalte handia egin digu. Lana izango dugu lurrari eusten; ortuari, zelaiari eta beste denari".

Mariasun Iturbe aurrera begira dago; hain zuzen, San Isidro egun ingurura. Orduan izaten dute nekazariak ortuan ereiteko momentua eta, Iturberen esanetan, "garai polita" izaten da ortua lantzeko. "Piperra eta tomatea, patatak, lekak, azenarioa, erremolatxa gorria, zerba... gehiena orduan sartzen

DATUA

13

EGUN

Urtea hasi eta udaberria arte, bakarrik 13 egun izan genituen ateri bailaran. Bakarrik urtarrilean, 540 litro euri egin zituen.

dagoenean, dagoena. Beste urte batzuetan moduan, porruak, zerbak, gordeta dauzkagun patata eta kalabaza, negutegiko letxugak... horiek gabiltza sartzen".

Adibide bat ipintzen du Perez de Arenazak: "Denbora aurrerara doanean, patata sartzea tokatzen da. Oraindik ez dugu sartu, lurra oraindik oso bustita dagoelako. Patata bi txandatan sartzen dugu: urtarril edo otsail aldera txanda bat, eta gero, maiatz aldera, bes-

Orain Arrasaten

Benetan **pisua galdu** nahi duzu?

PSE: 37/04



Esan baietz betiko

Rosa Sarabia doktorea

PronoKal[®] metodoa

Zientzia eta zorrotztasuna pisua galtzeko

- Kontrol mediku zorrotza
- Pisu galtze handia - Gosegabezia

Bilbon: Clinica Sarabia: Ercilla kalea, 42.

CMU centro médico UDALAITZ

Euskal Herria plaza 3. ARRASATE
Tel.: 943 79 44 22.

Rosa Sarabia doktorea

Medikuntzan eta kirurgian lizentziaduna

OBSITATEAREN ETA GEHIEGIZKO PISUAREN UNITATEA

BOTOXA - EZPAINAK - MESOTERAPIA

BARIZEAK - HAZIERA FAKTOREAK

BULARRAK - SUDURRA - SABELALDEA

Medikuntza estetiko eta kirurgia plastikoa



ESANAK

"40 urte daroat honetan eta ez naiz antzeko negu euritsu batekin akordatzin"

MARIASUN ITURBE
BASERRITARRA

"Kontsumo-taldekoei sasoiko gauzak ematen dizkiegu, zenbat dagoen arabera"

RAKEL PEREZ DE ARENAZA
BASERRITARRA

"Nekazari lana gogorra da, eta kontsumo-taldeen konpromisoa garrantzitsua da"

MARI KARMEN ITURBE
DEBA-GARAIA LANDA GARAPEN ELKARTEKOA

"Dirulaguntza lerro bereziak salbuespen egoeretan irekitzen dira; oraingoan, ohikoak daude"

JONE MAIOZ
GIPUZKOAKO BASO ELKARTEKOA



Askasibargo lagunak; ezkerrean, Rakel Perez de Arenaza. | ANDER LARRAÑAGA

te oso handiak izan diren kasuetarako, Foru Aldundiko Landa alorreko teknikari Joxean Garmendiak dioskun moduan: "Katas-trofea edo hondamendia kontsideratzeko, ekoizpenaren %30 galdu behar izaten da". Oraingo kasuan, "puntualki" ere egon ahal izan dira kalte bereziki handiak,

baina, orokorrean, ez. Baserritar batzuek aseguruak dituzte, baina oraingo egoera ez litzateke asegurupean sartuko.

Lehen sektoreko Gipuzkoako elkarte gehienek ere ez dute laguntza eskaera askorik jaso. Gipuzkoako Baso Elkarteko (GEBE) Jone Maioz teknikariak

Teknologia berriak ikasteko

Bailarako landa inguruetara IKT-ak (Informazio eta Komunikazioko Teknologia) gerturatzeko, Landatic delako ikastaroa antolatu dute. Ordenagailua eta Internet erabiltzen ikasteko doako jardunaldiak izango dira. Ekainean izango da eta 24 ordu emango dituzte guztira. Arratsaldeetan izango dira eskolak. Izenemate epea zabalik dago datorren eguaztenera arte, hilak 30. Horretarako, deitu 943 76 25 47 telefono zenbakira.

dioenez, "ez da laguntza-lerro berezirik ireki", ez eta lurjausietarako ere: "Azaro baten, uholdeek lurjausi dezente eragin zuten eta orduan laguntza-dekretu bat egin zuten. Baina orain, ohiko laguntza-bideak daude". Lurjausien-gatik dirulaguntzak eskatu nahi dituzten lur-jabeek basozainaren bidez tramitatu ahal izan dituzte eskaerak, eta horretarako txosten teknikoak egin behar da. Maiozek dioenez, orain arte GEBE bideetan izandako kalteengatik txosten bat eta luizien-gatik bi tramitatu ditu.

dago beste hau: jendeak, gero eta gehiago, bertako, gertuko produktuak nahi dituela.

Konpentsazio-neurri askorik ez da izango joan den neguaren kontura. Galdutakoa konpentsatzeko dirulaguntzak eskatzeko bide propio bat ez dago; erakundeek horiek sortzen dituzte kal-

DEBAGOIENENKO EUSKAL ESKOLA PUBLIK * A

BATXILERGOAK

IKASTETXEAK ATE IREKIAK

Arrasate Institutua ARRASATE

- Zientzia eta Teknologia
- Giza eta Gizarte Zientziak
- Arte Batxilergoa

Apirilaren 29an
18:00etan

Ipintza Institutua BERGARA

- Zientzia eta Teknologia
- Giza eta Gizarte Zientziak

Apirilaren 29an
18:30ean

Zuazola Larraña Institutua OÑATI

- Zientzia eta Teknologia
- Giza eta Gizarte Zientziak

Maiatzaren 7an
18:30ean
(Zuazola)

* HEZIKETA ZIKLOAK

Lanbide Heziketako azoka:
Maiatzaren 8an eta 9an Arrasateko Kulturaten

- Mekanizazioa
- Mantentze-Lan Elektromekanikoa
- Kirol ekintzen gidaritzak


Izena emateko epea: Maiatzaren 27tik Ekainaren 7ra

Maiatzaren 28an
18:00etan
(Larraña)

Zure etorkizunerako aukera guztiak

izena emateko epea zabalik maiatzaren 2tik 14ra

Guztion eskola guztion artean



Hondakinen bilketarekin, Elgetan bai: adostasuna

Hondakinen bilketarako plangintza adostu du udalbatzarra osatzen duen hirukoak; horren arabera, besteak beste, herri galdeketa egingo dute abenduan

L. ZEBERIO / U. MADERA | ELGETA

Orain arte hondakinen bilketa selektiboa hizpide duten eta bilketa sistema aldatu gura duten Debagoieneko herrietan lortu ez dena, eta are gehiago, batzuetan oraindik orain guztiz ezinezkoa ere badirudiena, lortu egin dute asteon Elgetan: hondakinen kudeaketan plangintza bateratua, udalbatzarra osatzen duten hiru alderdi politikoen artean: Udal Gobernu, Bildu eta EAJ.

Gainera, hiru alderdi horiek adostutako plangintzak herri galdeketa egitea ere badakar bere baitan, justu oraingo astean Legazpin egindako herri galdeketa ondorengoak bizi-bizi dauden honetan.

Herri galdeketa abenduan

Hain zuzen ere, Elgetako Udalak aho batez onartu duena zera da: zeintzuk diren hondakinen bilketarekin lortu gura dituzten helburuak, bide horretan hartu beharreko neurriak eta, besteak beste, abenduan herri galdeketa egitea. Eta azken horrekin lotuta, hainbat sentsibilizazio ekimen egingo dira herrian hurrengo hilabeteotan. Helburua da gaiaren inguruan elgetarrek iritzi garatu eta kritikoa lortzea talde politikoen adostutako proposamenari ekarpenak egiteko, eta abenduan egitekoa den herri kontsultan parte hartzeko.

Modu honetan eta horren labur esanda, lortutakoa eta martitzeneko osokoa behin betiko erabakitakoa erraza izan dela dirudien arren, Oxel Erostarbe alkateak berak azpimarratu gura izan du bederatzik hilabetez sukalde-lan isila dagoela horren guztiaren atzetik.

Elgetan gai; besteetan ez?

Erostarbe alkateak, bestalde, ez du ulertzen Elgetan lortutakoa zergatik ezin den inguruan ere lortu: "Ez dudana ulertzen da Elgetan gai izan bagara adostasun zabal lortzeko, bestelako herrietan zergatik ez diren gai. Guk denok errespetatu diogu elkarrizketari, jakin dugu bakoitzak zein iritzi zuen, baina aurkitu dugu puntu komun bat, eta espero dezagun Gipuzkoan-eta zabaldua dagoen eztabaida hori bideratzen hastea, erronka ez delako Elgetakoa bakarrik, erronka denona delako, benetan nor bere etxean konpromisoa hartzea berak sortzen dituen hondakinak behar den moduan kudeatzeko".

Balorazioa: Bildu

Bestalde, Janire Lazkanok Bilduren izenean argi utzi gura izan du atez atekoaren aldeko apustua egin dutela eurek, baina, era berean, lortu gura duten helburua



Edukiontzia multzoa, Elgetan. | LARRAITZ ZEBERIO

dela birziklatze mailarik handiena: "Hasiera-hasieratik esaten genuen atez atekoa defendatzen genuela, baina gure helburua beti izan da ahal den eta birziklatze mailarik altuena lortzea. Eta pozik gaude hemen markatzen den %70-80ko helburuarekin".

Herritarrei galdetzearen gainean, berriz: "Aurrera, gu beti egongo gara Elgeta jasangarri baten alde", esan du Lazkanok. Baina ohartarazi du, era berean,

"Erronka nagusia da herritarrek benetan dugun arazoarekin jabetzea"

ADOSTUTAKO PLANGINTZA

galdeketa une honetan eta gai honekin proposatzen dela, eta hori zergatik den horrela azaldu du: "Proposamena lehen zirriborro gisa hartzen dugu", adierazi du, eta bereziki nabarmendu du aztertze dagoela egitasmoaren bideragarritasun ekonomikoa.

Balorazioa: EAJ

EAJren izenean, berriz, Maria Jesus Letek adostasuna lortzearen garrantzia azpimarratu du GOIENARI egindako adierazpenetan, eta hori guztiek egindako ahaleginaren ondorioa dela ere adierazi du: "Oso pozik gaude. Eta horrez gainera, uste dugu adostasuna lortzea oso inportantea dela, herrian ika-mikarrik izateke lana asko hobe daitekeelako. Denok egin dugu, beste alderdiek ere egin dituzte oso ekarpen onak".

Edozelan ere, martitzeneko osoko bilkuran Patxi Basauri

bozeramaile jeltzaleak argi utzi gura izan zuen alderdi jeltzalea atez ateko sistemaren kontra dagoela, nahiz eta baieztatu bat datozela Elgetan adostutako bilketa sistemarekin, eta baita udalbatzarrean lortutako adostasun mailarekin ere.

Erdibideko bilketa sistema

Elgetarako adostutako bilketa sistemari berari dagokionez, berriz, ez da izango atez atekoa, eta ezta edukiontzia soiletan oinarritutakoa ere. Erdibideko sistema dela esan genezake.

Zortzi neurriren bitartez, eta laburbilduz, konposta egiteko baliabideak emango dituzte; erosketak egiteko modu ekologikoa bultzatuko dute eta enpresa eta komertzioei ematen zaien zerbitzua hobetu egingo dute; zaborra berezita botatzeko ontziak jarriko dituzte kaleko ohiko zabor ontzien lekuan. Hondakinak sailkatzeko bederatzik ontzi jarriko dituzte, tarrean, papera, olio, pilak eta bidria batzeko orain arteko ontziak mantenduko dituzte eta txipa duen edukiontzia marroia ezarriko dute; hondakina sailkatzen ez dutenen jarraipena egingo dute; eta erabiltzen ez diren tresnak berrerailetzeko gune edo ekimenak bultzatuko dituzte.

"Erronka nagusia da herritarrek benetan dugun arazoarekin jabetzea eta gizarte konpromisoa hartzea arazoari aurre egiteko. Elgetako udaletxeko talde guztiok bat gatz gure herrian hondakin gutxiago sortu eta gehiago berreserabiltzeko pausoak eman behar direla esaterakoan. Herrian sortzen dugun hondakina sailkatuta batu behar dela deritzogu. Lehenbailehen, horretarako aukera eman behar dugu. Gauza guztietan moduan egongo da hondakina sailkatzeari trabak ikusten diona eta herritar hauen harreraren eragiteko ekimenak ere eraman beharko ditugu aurrera", adierazi dute adostutako plangintzaren dokumentuan.

39 urteko motor gidari oñatiarra hil egin zen eguazten gauean, Bilbon, istripu batean

GOIATZ ARANA | DEBAGOIENA

Eguaztenean, 23:15 inguruan gertatu zen ezbeharra, AP-8 autobidean, Mirafloresko irteeraren parean, Iruerako bidean. Ertzaintzatik aditzera eman dutenez, gizonetako oñatiarra gidatzen ari zen Honda CBR 600 motorretik erori eta larri zauritu zen. Baina ez dakit zergatik jausi zen motorretik.

Artatzera joandako larrialdi zerbitzuetako medikuek haren heriotza baieztatu baino ezin izan zuten egin. Hildakoak 39 urte zituen.

Hileta elizkizunak

Haren aldeko hileta elizkizunak gaur, egubakoitza, egingo dituzte Oñatiko San Migel parrokan. 19:00etan da ordua.

Maiatzaren lehen mobilizatzeko deia, "emergentzian" gaudelako

GOIATZ ARANA | DEBAGOIENA

"Euskal Herria eta gure eskualdea emergentzia egoeran daude eta emergentzia egoera hau ez da krisiaren emaitza, krisia aitzakia hartuta aplikatzen ari diren politiken ondorioa baizik", LAB sindikatuaren esanetan. Gehitu dio "emergentzia egoera honi aurre egiteko Maiatzaren lehen mobilizazioa garrantzitsua" izango dela Gasteizko eta Iruñeko gobernuei "beste politika batzuk" exijitzeko, eta debagoien-darrei dei egin die eguaztenean, 12:00etan, Eibarren egingo duten manifestazioan parte hartzeko. Besteak beste, gaur egun bizi dugun egoerari buelta emateko

beharra azpimarratu du sindikatu abertzaleak.

"Langile klasea pobretu"

"Maiatzaren lehen askotan salatu izan dugu gure lantokietako egoera (...). Lantoki asko itxi dituzte, soldatak izugarri murriztu dituzte eta lanorduak eta prekaritateak nabarmen egin dute gora", salatu du LABek.

Sindikatuak kritikatu du orain arteko neurriek ez dutela "ezertarako" balio izan, "langile klasea pobretzeko" bakarrik. Hala, egoera horri buelta eman behar zaio, sindikatuaren esanetan, eta hemen lan, bizi eta erabakitzea proposatzen du.



LABeko bailarako ordezkariak Eibarko udaletxe ondoan. | LAB

"Oso balorazio ona" egin dute Berdegara egunaren harira

"Egun ederra izan zen zapa-tukoa, oso balorazio ona egin dugu. Zorionak, guztioi, eta mila esker, Berdegara egunera hurbildu zineten herritar guztioi, Bergara Zero Zabor taldearen izenean". Balorazio positiboarekin batera, "konpromisoa denon artean etorkizun hobea eraikitzeko" eskatu dute.

Azkargortaren aldeko bizikleta martxa bertan behera geratu da

Luis Mari Azkargorta presoaren aldeko bizikleta martxa bertan behera utzi dute, bihar-ko (zapatua) iragarritako eguraldi txarra dela-eta. Bere horretan mantendu dute, berriz, Bergarako frontoiko monolitotik 18:30ean Munibe plazaraino egingo den martxa; eta parte hartzeko deia egin diete herritar guztiei.

Antonio Dupla | 'Galde' aldizkariko aholkularitza batzordeko kidea

"Gizarte desberdina lortzeko aukerari ez diogu ukorik egiten"

'Galde' aldizkaria aurkeztu zuten atzo, eguena, Arrasaten, "aldizkari politiko-kultural" berria

UBANE MADERA | ARRASATE

"Gaurkotasan agintzen dituen gaiak era zorrotz eta iradokizaillean jaso" nahi dituen agerikari moduan ikusi du argia *Galde*-k. Izen handiak ditu, gainera, bultzatzaileen artean: Mariano Ferrer kazetaria, Agustín Untzurruntzaga Gipuzkoako SOS Arrazakeriako koordinatzailea eta Xabier Aierdi eta Antonio Dupla EHUko irakasleak. Azken horrekin izan gara:

Galde krisi garaian jaio da, eta, gainera, paperean, formatu digitala gailentzen den sasoiaren zela animatu zarete abentura hone-tan?

Esan digute ausardia nahiko badela paperezko formatuan aldizkari bat argitaratzea gaur egun, baina *Galde* bultzatzen dugunok uste dugu garrantzitsua dela debate eta hausnarketarako espazio bat izatea, bereziki, gaur egun errealitatea horren konplexua eta kezagarria den honetan halako tresnak faltan igartzten ditugulako. Oraingoan, lehen zenbakia kaleratu dugu eta erronka da bigarrena lortzea.

Ze kritika jaso duzue?

Jendeari gustatu egin zaiola. Interesgarria eta ausardiazkoa dela ikusten dute; baina, era berean, guztiek ikusten dute beharra dagoela bizi dugun egoera kezagarri eta indignantearen aurrean eztabaidatu, ideiak eman eta proposamenak egiteko. Egia da, hala ere, apur bat atzera eragiten duela irakurtzeko ahalegina eskatzen duen aldizkaria izateak, artikululu sakonak direlako batzuk; baina halako aldizkariak beharrezkoak dira eta ahaleginduko gara tartekatzen artikululu sakonak arinagoekin. Eta hiruhilabetekaria da; beraz, bada irakurtzeko denbora.

Ze irakurleri dago zuzenduta?

Hartzaile zabalei, progresistei, ezkerrekoei, baina ez haiei bakarrik... Egungo egoerarekin, politikak hartu duen bidearekin, desberdintasunen hazkundearekin... kezkatuta daudenei. Eta krisitik irteten laguntzeko ideia bila dabilenari zuzendutakoa. **Galde-ren aholkularitza batzorde eta bultzatzaileetan unibertsitatearekin lotura duzuenak zaudete bereziki. Bada arrazoirik?**

Hika aldizkarian parte hartzen genuenetako batzuk gaude; EHUko irakasle batzuk ere bai, baina baita ere gizarteko beste alor batzuetakoak. Talde plurala da, bildurekiko gertutasuna dute netatik hasi eta PSERekin ger-



Antonio Dupla doktorea. | EHU

"400-500 harpidedunekin lortuko genuke bizirik irautea"


tutasun handiagoa izan dezaketenez osatutakoa; eta erdian denetik. Iritziak askotarikoak dira, baina egoeraren diagnostikoa bera da: proportzio izugarria duen ia sistemako krisiaren aurrean gaude, eta kezagarriagoa: desberdintasunen hazkunderaren aurrean.

Pentsamendu kritikoa, beraz.

Duda barik. Beharrezkoa da. Krisia ez da saihestu ezin den katastrofe natural bat. Krisia, edo gaur egun egiten diren proposamen politiko edo gobernua-renak, pertsona konkretuen erabaki zehatzak dira, kritika-garriak direnak, zalantzan jar daitezkeenak. Ikuspuntu horretatik mundu eta gizarte desberdin bat lortzeko aukerari ez diogu uko egiten. Beste kontu bat da jakitun gabela bidea luzea eta zaila dela, errealitatea oso konplexua delako.

Zerbait gura baduzu gaineratu...

Interes handia izan dezakeen lan-tresna izan daiteke; eta Interneten begiratu, eta harpidedun egiteko gonbita egingo nuke.



Galde-ren lehen zenbakia.

'Kapitalari sua' pintada egin eta su eman diote Aretxabaletako kutxazain bati

Banco Sabadellen kutxazaina erre zuten eguazten gauean, ustez bi lagunek

U.M. | ARETXABALETA

02:00etan egin zioten eraso Aretxabaletako Durana kalean (kale nagusian) dagoen Banco Sabadellen kutxazainari. Likido inflama-blea bota eta su eman zioten. Suhiltzaileek emendatu behar izan zuten sutea.

Poliziak emandako informazioaren arabera, kaputxa edo txanoarekin estalita zihoazen bi lagun korrika alde egiten ikusi zituzten lekukoek gertakariaren ostean.

Erasoa jasan zuen sukurtsala atzo, eguena, eguerdi partean zabaldu zuten, "apur bat garbitu ostean", bertako zuzendariak azaldu duenez.

Kalte pertsonalik ez

Segurtasun Sailaren arabera, suhiltzaileek emendatu behar izan zuten arren, suteak ez zuen kalte material handirik eragin, kutxazainein besterik ez; kea,



Banco Sabadellen kutxazaina, erreta. | IMANOL ELORTZA

ordea, banku barruraino sartu da, eta aldameneko etxeko atariari ere eragin dio, nahiz eta ez duten etxerik hustu behar izan.

Bankuari dagokionez, keak eragindako zikinkeria garbitu ostean, eguenean bertan zabaldu

zuten sukurtsala. Hiru langilek dihardute bertan lanean.

Bestalde, banketxearen kanpoko aldean azalduak pintadak erakusten duenez, kapitalari kontra egin nahi izan diote banke-txeari egindako eraso horren bitartez.

Aurtengo helburua da 7.000 errenta aitorten euskaraz egitea

ANDER LARRAÑAGA | DEBAGOIENA

Debagoieneko Udaletako euskara zerbitzuek elkarlanean antolatatu izan dute azken urteotan errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina. *Nora begira zaudete? Aukeran euskaraz!* du kanpainak izena, eta pasa den urtekoan, Debagoienean 6.000 aitorten inguru euskaraz egiteko langa gaintu zuen ekimenak. Bada, aurten ere abiarazi dute ekimen hori, helburu edo marka berri batekin: 7.000 aitorten euskaraz baietz egin. Ekainaren 25era arte aurkezteko aitortenak.

Kanpaina horren barruan, egunotan, Antzuolan, Aretxaba-

letan, Arrasaten, Bergaran, Eskoriatzan eta Oñatin informazio eskuorriak banatzen dihardute. Azken urteotako euskarazko aitorten kopuruen eta eboluzioaren gaineko datuekin batera, aitortenarekin berarekin lotutako hiztegi berezitua ere bada-karte eskuorri horiek.

HERRIZ HERRI

HERRIA	2011	2007-2011 ALDEA
Antzuola	%31	+ %13
Aretxabaleta	%18	+ %8
Arrasate	%14	+ %7
Bergara	%17	+ %7
Elgeta	%25	+ %14
Eskoriatza	%11	+ %5
Leintz Gatzaga	%19	+ %8
Oñati	%19	+ %11
GUZTIRA	6.148	%16

ITURRIA: GIPUZKOARD FORU ALDUNDIA

Elkartasuna, 'Argia'-ko Lander Arbelaitz kazetariari

GOIATZ ARANA | DEBAGOIENA

Hekimen Euskal Hedabideen Elkarteak elkartasuna agertu dio Lander Arbelaitz *Argia* aldizkari-ko kazetariari, Aske Gunea husteko operazioaren barruan jasotako tratua dela-eta. Hekimen ustez, "Lander Arbelaitz informazio zuzena emateko ahalegin betean ari zen Ertzaintzak, eskuan zeukan akreditazioa kontuan hartu gabe, lurrera bota, astindua eman eta bertatik atera zuenean". Hekimenek, gainera, guztiz eze-gokitzat jotzen du Ertzaintzako buruek hartu zuten erabakia "kazetariak gune itxi eta bereizi batean zedarritzeko".



ULMA Forja, S. Coop

Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA D E I A L D I A

Eguna: 2013ko maiatzaren 3a
Ordua: 09:00etan lehen deialdia eta 09:30ean bigarrena
Tokia: ULMA Taldeko auditoriuma - Oñati (Gipuzkoa)

GAI ZERRENDA

- Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea batzar honetako akta onartzeko.
- 2012ko ekitaldiko memoria irakurtzea eta onartzea eta 2013ko gestio plana berrestea.
- ULMA Taldeari buruzko txostena.
- 2012ko ekitaldiko urteko kontuak aztertzea eta, badagokio, onartzea.
- 2012ko ekitaldiko emaitzak banatzea.
- Heziketa eta kooperatiba sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzioa aplikatzea (IPDK).
- Supraegiturako entitatei buruzko gaiak.
- POGU III eta ULMA Forja, S. Coop. eko Estatutu Sozialak eta Barne Araudi Kooperatiboa aldatzea, hala badagokio, justifikazio txostenean azaldukoaren arabera.
- ULMA Forja, S. Coop. eko Estatutu Sozialak 22. artikulua aldatzea, hala badagokio.
- Ekonomia araubideko estatutu-xedapenak.
- Menpeko ekarpen finantziarioen jaulkipena.
- Zaintza Batzordeko kideak berritzea.
- Kontseilu Sozialako kideak berritzea.
- Auditorea izendatzea edo berrautatzea.
- Ahalmenak eskuordetzea.
- Galde-eskeak.

OHARRAK: Bazkideei gogorarazten zaie sozietatearen egoitzan eskuragarri dituztela urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuen kanpo ikuskaritzak egindako gestio txostena, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertutako ahal izan dituzten. Bazkide guztiei jakinarazten zaie eskubidea dutela, ULMA Forja, S. Coop. eko helbide sozialean, proposatutako estatutuaren, Barne Araudiaren eta POGU IIIaren aldaketan testu osoa aztertzeko, eta doan emateko edo bidaltzeko eska dezaketela.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA

Oñati, 2013ko apirilaren 19a

Helena Franco | Gipuzkoako Ogasuneko diputatua

"Euskadiko erakunde-egitura ez da eraginkorra, zergen harmonizazioa adostea zailagoa delako"

- ▶ Errenta aitortzenaz, zergez, irizur fiskalaz eta harmonizazioaz dihardu Ogasuneko buruak
- ▶ Iruzur fiskalari aurre egiteko, erakundearen arteko "koordinazioaren alde" azaldu da

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Errenta eta Ondarea aitortzeko kanpainan bete-betean murgilduta gauden honetan, zerga kontuak izan ditugu berbeta-bide Helena Francorekin, Gipuzkoako Ogasuneko foru diputatuarekin: harmonizazio fiskala, iruzurrari aurre egiteko neurriak... zerga politika, oro har.

Aurtengo errenta kanpainan aurrekoan baino 32 milioi euro gehiago jasotzea espero du Ogasunak. Zeren arabera egin duzue aurreikuspena?

Emaitza netoa izango litzateke 32 milioi gehiago, baina hor, berez, hiru efektu nabarmendu behar ditugu. Batetik, efektu positiboa, iaz egin genituen zerga aldaketengatik, eta hor ikusten dugu 60 milioiko gehikuntza. Kapital errenta handien zerga-ordainketengatik eta abarretatik eratorria. Bestetik, bi efektu negatibo: batetik, 2012ko aparteko soldata funtzionarioei ordaindu ez izanagatik; bestetik, bilakaera ekonomikoaren efektuarengatik, ze errenten gehikuntza ez baita izan guk aurreikusitakoa. Hortaz, 60 milioi gehiago, baina egoera ekonomikoarengatik eta kontrako beste efektu batzuenengatik, kendu behar zaizkio 28 milioi.

2011n egindako zerga politika aldaketari esker izango da bilketa 32 milioiokoa? Bestela, zenbatekoa izango litzateke?

Iaz baino zerga bilketa txikiagoa, 28 milioi gutxiago, aipatu ditudan bi arrazoiengatik: egoera ekonomiko errerengatik eta funtzionarioek aparteko soldata jaso ez izanagatik.

Ezinbestekoak, hortaz, egindako aldaketak?

Bai, batetik, sinisten dugulako, ezkerreko ikuspuntua daukagulako; baina, bestetik, egoerak horretara behartzen gaituelako. Gastu publikoari eustea da gure helburua.

Batutakoaren ze zatirekin geratzen da Gipuzkoako Diputazioa?

%18 ingururekin; Gipuzkoako Ogasuna izan arren diru bilketa egiten duena, gero, beste erakunde batzuei banatu behar zaie: Jaurlaritzari, udalei eta Estatuari. 2009an, Gipuzkoako Diputazioaren aurrekontua 900 milioitik gora zen, ia 1.000 milioi. Gaur egun, 670 milioi euro da; 300 milioi gutxiago kudeatzen dugu.

Errenta eta ondare zergen aitortpen kanpaina ze moduz doa?

Ondo. Ia 400.000 aitortpen egiten dira urtean eta erdia baino apur bat gutxiago autolikidazioen bidez egiten da. Oraingoz, bi astean, jada, onartu dira autolikidazioen



Helena Franco, oraingo martitzenean, Arrasaten. | ENEKO AZKARATE

%60. Asko da. Horrek erakusten du, batetik, nahiko ondo eginda daudela eta, bestetik, zergadunek konfiantza daukatela Ogasunean. Bestalde, bi asteotan, 50.000 mekanizatu inguru egin dira dagoneko eta hori ere asko da.

Jarduera ekonomikoa sustatzeko kenkaria, 400 eurokoa, desagertu egin da aurtun. Zergatik?

Egia esan, ogasunek ez zuten ez kendu eta ezta jarri ere. Hori momentuko neurri bat izan zen, Zapaterok ezarri zuena eta bere garaian Foru Aldundian zeudenek aplikatu zutena. Baina 2011n amaitu zen eta kito. Edozelan ere, kontsumoa sustatzeko kenkari gisa, gure ustez, ez da egokia. Batetik, ez duelako errentaren gaineko diskriminaziorik egiten eta gutxi edo asko sortu edo eduki arren, aberatsagoa edo txiroagoa izan arren, berdin jasotzen dituzulako 400 euroak. Ez gaude horren alde. Kontsumoa bultzatzeko beste modu batzuk badaude eta, horretarako ere, errenta txikiagokoei laguntzea da bidea, errenta handikoek badute eta kontsumo ahalmena. BEZA bezalako zeharkako zergak ez igotzea izan daiteke neurri bat kontsumoa bultzatzeko.

Kontsumoa bultzatzeko neurri berezirik planteatzen duzue?

Kenkari berezirik eta, ez. Baina, argi esan behar dugu Gipuzkoako Diputaziotik bultzatzen ditugun ekimen guztiak direla ekonomia eta enplegua sustatzeko. Jendarte politiketan, enpleguari eusteko ekimenen bidez; edo,

kirolean, diru-laguntzen bidez... Gastu publikoak ere bultzatzen ditu enplegua eta jarduera ekonomikoa. Irakurketa hori egin beharra dago. Zergen bidez jasotzen dugun dirua, Diputazioari dagokion parte, lurraldean gastatzen dugu.

Zer espero duzue zerga Aberastanaren eta Fortuna Handien gaineko Zergarekin?

Ogasunaren aurrean, benetan, jendeak daukan diruaren arabera

"Nahi dugu sektore publikoak esku hartze handiagoa izatea jendartearen"

"Jasotako diru guztiaren %18 geratzen da Diputazioan"

"Batutako hori zertan gastatzen dugun herritarrei azaldu nahi diegu"

egitea zerga-ordainketa. Horregatik, Ondare Zergak zeukan bi zirrikitu nagusi itxi nahi izan ditugu: bata, ezkutu fiskala eta, bestea, enpresetako partaidetza. Ezkutu fiskalarengatik, jendeak oso ondare handia izanda ere, muga bateraino egin behar zuen zerga-ordainketa. Gure ustez, behar zuenaren oso azpitik. Bestetik, enpresen partaidetza ez zen kontuan hartzen zerga-bilketarako eta guk uste dugu hori ere zerga ondarearen zati dela eta, ondorioz, horren zerga-ordainketa egin behar dela. Ekitatearen ikuspegitik, ondare jakin bat daukanak ordaindu behar du dagokiona eta ez zirrikituak erabiliz, zerga ordainketari uko egin.

Errenta aitortpena aurkezterakoan, herritarrei dokumentu bat emango zaie iaz egin zen zerga-bilketari dagokiona eta bertan, besteak beste, zerga-bilketaren banaketa zehazten duzue, erakundeek zer banatzen zaie zehaztuz. Kontatuko diguzu zertan den hori?

Hasiera-hasieratik planteatu genuen. Konturatu behar gara herritarrei, zergadunei, ahalegin bat eskatzen diegula eta, gutxienez, gardentasuna eta informazioa zor dizkiegu. 400.000 biztanlek egiten du Gipuzkoan errenta aitortpena eta horiei adierazten diegu zenbat batu den eta ze erakundetara doan batutako dirua eta, era berean, Aldundian geratzen den hori, zertan gastatzen den.

Zenbaten dago presio fiskala gaur egun Gipuzkoan?

2000ko lehen hamarkadan %34an zegoen. Gure ustez oso baxua da, bereziki, inguruko herrialdeekin alderatuz gero. Europako batez bestekoa da %40. Eta Europa Iparraldeko edo herri aurreratuena, %45ean-edo izango da. Hortaz, oraindik marjina daukagu, horrek dakarren kontraprestazioarekin: sektore publikoak esku hartze handiagoa izatea ekonomian eta jendartearen.

Iruzur fiskalari aurre egiteko erakundearen arteko koordinazioa beharrezkoa dela diozu. Ze harreman daukazu, zentzu horretan, lurralde ezberdinetako ogasunek?

Harremanak badauzkagu erakundearen artean, logikoa den moduan, bai maila teknikoan eta baita politikoan ere, baina uste dugu harreman hori areagotu egin daitekeela. Prozedura ofizial egin beharko litzateke, itun edo hitzarmen bidez. Erakundearen arteko koordinazioaren alde gaude, betiere iruzur fiskalaren kontrako borrokan eraginkorrak izateko.

Diru bilketaren eskumena diputazioetan egotearen aldekoak zarete ala Jaurlaritzak eta Legebiltzarrak arautu eta kudeatu beharko luke?

Gure erakunde-egiturak arazoak ditu, erokeria da ogasunari dagokionez hiru lurralde, hiru bilketa-erakunde, edukitzea eta Jaurlaritzak ez edukitzea horren gaineko eskumenik, nahiz eta euskal erakunderik handiena izan. Eredua ez da oso eraginkorra, erakundearen arteko koordinazioa zaila delako eta harmonizazioa ere zailagoa delako. Eredu berri batera joan beharko genuke.

Kooperatibetako langileek erretiroa hartzean jasotzen dutenagatik ordaindu egin beharko dute aurrerantzean. Zergatik?

Aspaldiko araua da, baina orain arte kooperatibistei ez zitzaizkien eskatzen horregatik zergak ordaintzea. Arauari heltzen badiogu, errenta horiengatik ere zergak ordaindu behar dira. Hortaz, indarrean jarri dugu ekitatearen ikuspegitik justuak izatearren, baina baita arauak bete behar direlako. Ez gara ibili neurri berezi horren bila, kasualitatez aurkitu genuen araua eta betetzen ez zela ikusi dugunez, erabaki dugu indarrean jartzea. Ez dugu diru bilketaren ikuspegitik egin, ekitatearen aldetik baiziki.

Elkarrizketa osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



ZABALIK



IÑAKI UGARTEBURU
http://goiena.net/iritzia/

Eta jaikitzen bagara?

Betidanik izan naiz Coca-Cola zalea, nahiz eta askorik ez edan; badakizue "zaindu beharra dagoela". Badakit multinazional handia dela, eta bere helburuak lortzeko... Baina, oraingoan, poz handia eman dit telebistarako egin duten iragarkia ikusteak. "Eta jaikitzen bagara?", sedentarismoaren aurkako lau konpromiso hartuz: kontzientziatu, sustatu, garten-tasunez komunikatu eta kaloriarik gabeko produktuak eskaini.

Aspalditik arduratuta nago gizartearen hartzen ari garen ohitura batzuekin, eta oso garbi dut norabidea aldatu beharra dagoela. Gizakion gorputza sistema konplexu, eraginkorra eta sentikorra da, eta aukera ematen digu milioika gauza egiteko, sentitzeko, dastatzeko... baina bere mantenua behar du. Gure gorputzaren egoeraren eragile asko daude: genetika, elikadura, bizi ohiturak, ingurumena, lana eta jarduerak fisikoa, besteak beste. Genetika kenduta, ia beste guztietan eragiteko aukera zuzena dugu (batzuetan beste batzuetan baino gehiago, noski).

Hemendik aurrera, zer? Estatistiken arabera, gero eta okerrago goaz; EAEn, 1997tik 2007-ra, 16 urtetik gorako obesitatea pairatzen duten herritarren portzentajea %25 igo zen, eta helburua %20 murriztea zen. 16 urtetik beherakoetan ere datuak oso kezagarriak dira: egun, %16k obesitatea dute eta %13k, gehiegizko pisua.

Kanadan 25 urtetik gora daramate bizitza osasungarriaren aldeko kanpaina koordinatuak burutzen, eta duela urte batzuk lortu zuten joera aldatzea eta estatistiken datu okertzea gelditzea. Gu, beste behin ere, berandu gabilta.

Zerbait aldatu nahi badugu, denon ahalegina, elkarlana eta koordinazioa behar-beharrezkoak dira; prentsa, enpresa, hirigintza, hezkuntza, kontsumoa, osasuna, kirola... guztion lana da, bestela... Hori dela eta, asko poztu nau Coca-Colaren iragarkia ikusteak, nik nire bizitza osoan idatz nitzakeen artikulua guztiek baino milioi bat aldiz eragingarriagoa izango delako.

Jar gaitezen martxan!

"Arduratuta nago gizarte honetan hartzen ari garen ohitura batzuekin"

USTEAK USTE


OIHANA ELORTZA | oelortza@goiena.com

Kukuak, kuku

Aurten ere entzun dut kuku. Martxotik sanpedroak arte, ekaina bukaera arte, jotzen ei du, gure aitajaun-amandreek diotenez. Gustatzen zait entzutea, eta pozik nago, aurten ere entzun dudalako. Astelehen arratsaldean entzun nuen, Olabarta auzoan. Urruti samar zegoen, baina garbi entzun nuen. Entzun ahalaz bat, poza, eta hurrengo, eskuak poltsikora. Eskumakoan ezer ez eta ezkerrekoan, zuloa. Astean esan dit lankide batek josten ikastea gura duela, praka-barrenak hartzeko bada ere. Eta poltsikoko zuloarekin gogoratzean pentsatu dut harekin batera apuntatuko naizela ni ere, dakidan gutxia erreparatzeko, sikiera. Ea datorren urtean zer akordarazten didan kukuak.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | http://goiena.net/iritzia/



HANDIK ETA HEMENDIK

Laranja ala limoia? (euskal banderizoak, 6783. atala)

Gari Araolaza
http://eibar.org/blogak/teknosexua/

Aspertuta nago gure herri honetan daukagun banderizo ohituraz. [...]

Bildukoa ez bazara, EAJkoa zara. Errealekoa ez bazara, Athleticetako. Atez atekoaren aurka bazaude EAJkoa. Alde bazaude, Bildukoa. Noiz arte?

Azkena, Gara-k planteatzen du banderizoak altuan daudela eta garbiak direla: "Atez atekoa vs. Errausgailua" eta horren arabera kontsulta bat egitea proposatzen du. Ez nago ados. Horiek ez dira aukera errealeak eta gainera erabaki teknikoak izan beharko luketenak herritarren eskutan jartzen dira. Orduan, hurrengoan egin dezatela zubi baten inguruko kontsulta: *zubia txokolatzeko ala porlanez egingo dugu?*

Nik Erralen iritzi berdina dut. Oinarrizko eta lehenengo galdera hau da: birziklatzeak derrigorrezkoa izan behar du ala ez? Adostu dezagun behingoz hori, onartu dezagun

emaitza, eta gero teknikoki (ez norberaren gusto, beldur edo erosotasunen arabera) erabakiko da toki bakoitzean soluzioa atez atekoa, kontenedoreak edo zer diren.

Ikuspuntu kritiko batetik

Aritz Galarraga
http://berria.info/blogak/ekografiak/

Gertuko kontuekin azken egunotan ez dugu tarterik hartu mundu zabalean gertatu direnez aritzeko. Eta, kontxo, harrigarri samarra ere bada: ematen baitu garaiotan albistegarriagoa dela munduaren beste puntan gertatzen dena -gehiago, gerra, miseria eta musulmanak nahasten baditu koktelak-, etxe azpian pasatzen dena baino. [...] Eta ez ote diren Donostiako Bulebarreko gertaerak horixe, alegia, geure inguruetara begiratzeko gonbita, bazterrotan jazotzen direnekiko kezka berreskuratzeko deia; ez bakarrik kazetaritza ikuspuntu batetik, baizik eta baita herritarren posiziotik ere. Akaso, gehiegi puzten ari gara kontua, denborak kokatu gaitu bakoitza bere lekuan; baina

ezin, oraingoz, ilusio amñi hori ekidin.

[...] Kirola egitea kaltegarria dela aurretik bagenekien, orain badakigu heriotza eragiteraino izan daitekeela txarra. Irakaspen hori eskertu behar diegu Tsarnaev anaiei. Irakaspen hori eta astebete iraun duen minisail bat. Ezen, jainko potzoloa, nola ibili gaituzten batetik bestera, HBOk ere sinatuko lukeen telesail batean baino finkiago. [...]

Baina guztietan dramatikoa iruditu zait beste behin bazterrotako hedabideek erakutsi duten sumisioa. Dela lana egin zegoelako, dela AEBetatik datorrena umil irensten dugulako, ematen du ez dela besterik izan. Eta Bostongo eztaba egun berean Iraken hainbat bomba-autok gutxienez 50 hildako eragin zituzten. Egund berean Somaliako Muqdishon izandako eraso batean 30 hildako inguru izan ziren -inguru, zein indefinizio krudela; zer diferentzia inguru horretan egon edo ez-. Bezperan, Sirian, 130 hildako zenbatu ziren, horietatik 31 haurrak. Egiten al zuten korrika horien gurasok ere? Eta bertakoa bai, beraz. Kanpokoa ere bai, nola ez. Baina izan dadila dena ikuspuntu kritiko batetik.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Iban Arantzabala
Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Urbane Madera
Sailtako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disseinu), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa


EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lege Cordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK

Utzi bakean Ama Lurra

Josu Garitaonandia

(Equo Bergara)
Bergara

Tamalez, ohituta gaude gure paraje ederrak zulatuta ikusten: autobidea, Abiadura Handiko Trena, goi tentsioko lineak... Orain, lur barrena 2 kilometro eta gero zierretara beste 1,5 kilometro zulatuko *fracking* teknika erabiliz gasa ateratzeko gure Ama Lurraren tripa barrenak hankaz gora ipiniz, zulo bakoitzak 7 urterako gasa ateratzeko balioko luke; zoratu egin gara! Gas hori barik moldatu gara eta urte batzuk pasa eta gero derrigorrez hori barik moldatuko beharko dugu. Gure aurretik teknika hau erabili duten herrialdeetan arazoak izan dituzte: barneko uren kutsadurak, aire kutsadurak eta, ondorioz, osasun arazoak, ur falta arazoak, lur ikarak... Ez dezagun txorakeriarik egin. Gas barik bizi gaitezke, urrik gabe ez; ondorengo belaunaldiei laga diezaiogun gure Ama Lurra gehiago zulatatu barik.

Informazio gehiago: <http://frackingezaraba.org/>.

Arrasateko Jardunaldi Feministak posible egin duzuen guztiei!

Nerea Agirre, Maite Barreña, Pilar Ansoategi, Larraitz Trojaola, Iraitz Agirre, Julia Monge, Rosa Urzelai, Ainara Balerdi, Amets Beltran de Guevara eta beste parte-hartzaile guztiak

Arrasate

Asteburuan bizitakoak hitzetan jartzea zaila da. Esperientzia, bizipen berezi eta berriak izan ditugun arren, zera ondorioztatzera iritsi gara...

Emakume Txokoan, jabeakuntza eskolatan edo jardunaldiak bezalako foroetan elkartzen garen bakoitzean:

-Beste emakumeekin elkartzean esnatu egiten gara, eta neurri horretan ezagutzen dugu elkar. Ezagutzean, ekintzarako argitasuna pizten zaigu, eta ekiten diogu,

erlaldakuntzarako subjektuak garela konbentzitu. (Esnatuak eta jabetuak behar dugu egon eragin eta eraldatu ahal izateko)

-Espazio hauetan emakumeok gure praktiken gaineko eztabaida eta elkarrizketak izaten ditugu. Batzuetan badirudi abstrakzioez ari garela, baina abstrakzio zehatzez ari gara. Honek modu kolektiboan ezagutza sortu, gu ezagutu, identifikatuta sentitu, egin dezakegun sinesten lagundu eta errealitatea eraldatzeko gaitasuna sustatzen du gugan.

-Ez ditugu ate itxiak irudikatzen; bai, ordea, leiho irekiak. Espazio hauetatik ateratzean begirada, jarrera, pertsona eta kolektibo ireki, erreflexibo, kritikoa, jantziak, proaktiboak, proiektiboak eta kolaboratiboak ikusi nahi eta behar baititugu gure inguruan.

-Borroka feminista eta parekidetasunaren aldeko lana egiteko gune, espazio, ildo, denbora ugari daude (herri mugimenduetan, gaztetxeetan, asanbladetan, euskara-kultura-aisialdi elkarte eta taldeetan, ikastetxe eta heziguneetan...). Elkarrekin aritzen gara eta elkarrekin lan egiten jarraitu nahi dugu, eta

jarraituko dugu.

Ardura-kidetasunez eta erantzunkidetasunez guztiok elkarrekin aritzea da bidea.

Beraz...

Eskerririk asko, Jardunaldi Feministetan parte hartu duzuen neskei!

-Asteburuan jardunaldiak posible egin eta parte hartzeagatik

Eskerririk asko, gainontzeko guztiei!

-Egunero-egunero adin guztietako emakumeok lantokietan, ikastetxeetan, militantzian, lagunartean, familian, dendetan, taberna eta kontzertuetan, bidaiatzean, komunikabide eta mass medietan jasaten dugun diskriminazio, zapalkuntza eta mota eta gradu guztietako erasoak enpatiaz sufritu eta salatzeagatik.

-Ezarritako ereduetan eragin eta eraldatu ahal izateko esnatuak eta jabetuak egon behar dugula ulertzeagatik.

-Emakumeok gure jabeakuntzarako espazio jakin batzuen beharra izaten jarraitzen dugula onartzeagatik.

-Honetan laguntzen digun ariketa-topagune-ikastaro-formazio-ahalegin txikiena egiten dugun bakoitzean

gugatitko pozteagatik.

-Jabeturik gaudenean dugun barne-indarra eta eraldaketei begira egiten ditugun ekarpenak aitortzeagatik.

-Asteburu batez gure eskubideen alde entzun beharreko aldarrikapen uluak gureak zirela eta protagonismo hori behar genuela ulertzeagatik.

-Bigarren plano baten egoten jakiteagatik (gu animatu, azpiegiturak prestatzen lagundu, umeak zaintzeko ardura hartu duzuenoi...).

-Jardunaldietara ez etortzearen diskriminatuak sentitu beharrean gure borroka ulertu eta babesteagatik.

-Eskerririk asko ere erabaki hau zergatik hartu dugun jakin ez arren, ulertzeko gogoz eta jarrera egokia agertuz gugana hurbildu zareten guztioi.

-Gu soberan ezagututa eta sekula jarrera baztertzailerik izan ez dugula jakinda, gure erabaki kolektiboak maila pertsonalera eraso gisa eraman ez izanagatik.

Mila esker, bihotzez! Urteko gainontzeko egunetan feminismoaren alde borrokan jarraituko dugulakoan... Bihar arte!

Gutunak, gehienez, 1.900 karaktere izan behar dituzte (hutsuneak barne); luzeagoa bidaliz gero, GOIENAK eskubidea du laburtzeko; hala ere, saiatuko da egilearekin egoten hark laboru dezan. Gutun bakoitzeko erantzun bakarra onartuko da; ez da onartuko erantzunaren erantzunik. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Oñalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

ADI EGON!

Astlehenean, hilaren 29an, APIRILEKO SARI hauek guztien IRABAZLEAK izan diren GOIENA KLUBEKeko bazkideen izenak aditzera emango ditugu.

TELEBISTA ETA BLUE RAY

OKI led telebista 19" eta LG Blue Ray BP125



BASERRISAREA .COM

DEBAGOIENEN BASERRI SAREari esker baserriko produktuez osaturiko 4 otar zozketatuko ditugu.



AISIA DEBA

3 BONU
Aisia Deba hotelean 2 pertsonarentzako gaua ostatuan, buffet-gosaria eta zirkuitu termala.



2 BONU
Aisia Deba hotelean 2 pertsonarentzako relax gastronomikoa (bazkaria enkantuekin eta spa zirkuitua).



ARRIKRUTZ

Hilero bezala, Arrikruz kobak bisitatzeko, 6 sarrera zozketatuko ditugu.



Beste abantaila batzuk:

- Astlehenean eta ostiraletan *Goiena* papera buzoian.
- Deskontuak iragarki sailkatuetan eta eskeletan.



goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

Urteko kuota: 50 €.
943 25 05 05
kluba@goiena.com
goienakluba.com



"Estetika, ongizatea lortzeko bidea"

Mari Carmen Pardo | Lirain Estetika Zentroko arduraduna



Nolako zerbitzuak eskaintzen dituzue?

Eskaintza berezia dugu gorputz eta aurpegiko tratamenduetan eta laser bidezko depilazioan. Atsedenerako tratamenduetan, hainbat zerbitzu berezi ditugu, opariak egiteko edo norberaren kapritxorako aukerakoak.

Eta produktu eta osagarri dagoakienez?

Merkatuan nagusi diren kosmetikoekin egiten dugu lan, kalitate gorena dutenak. Kabinako lanaren osagarri dira. Horien artean daude, adibidez: Alquimia, Sothys, Gernetic, Capuccini eta María Dúol. Horrez gain, modako eta oparitarako produktu ugari ditugu.

Zerkezberdintzen zaituzte beste zentroetatik?

Zentro ekintzaile dinamikoa dugu, garai zailtan ere berrikuntzaren alde egiten duena. Gure helburua da zerbitzuaren kalitate onena prezio onean ematea. Laser bidezko depilazioan, adibidez, Alajandrita eta IPL (Argi sakatua) ezberdinek azalaren eta ilearen fototipoaren arabera depilazio egokiena egiteko modua eskaintzen digute, emaitzak onak ziurtatuz saio gutxitan. Gorputzeko laserra hiruileko saioetan egiten dugu. Gune zabal batean ileak baleude hilabetera, erreparatu egingo genuke, doan. Dirua, gainera, ez da arazoa. Gorputz guz-

tia depila dezakezu hilean 83,33 eurogatik.

Ze ordutegi duzue?

Zazpi profesional baino gehiago gaude Lirainen eta eskaintza zabalagoa dugu ordutegiaren inguruan. Asteleheneretik egubakoitzera 09:30etik 20:30era dugu zabalik, etenik barik. Modu horretara, lan egiten duten guztiengana iristen gara, baita ordu libreak eguerdian bakarrik dituztenengana ere. Zapatuetan 09:00etatik 13:00etara dugu zabalik eta abuztuan, 09:00etatik 18:30era.

Zeintzuk dira tratamendu berriak?

Pultsu magnetikoak dituen Freeze irrati-frekuentzia multipolarrak dugu; kolagenoa eta elasti-

na berregituratzen du, azala tenkatzen duten zuntzak indartuta eta zimurrak txikituta. Eta baditugu zelulitisaren kontra proposa den Vela Smooth irrati-frekuentzia, 308 indiba eta elektroestimulazioa, besteak beste.

Ze eskaintza, promozio, duzue une honetan?

Gorputz tratamenduei dagokienez, maiatzean %20 arteko beherapenak izango ditugu. Ditugun eskaintza ezberdinak erakusteko, ate irekien jardunaldia egiten dugu, tratamendua zer den azaltzeko, aurrekontua egiteko eta bezeroak aparailua probatu ahal izateko, adibidez.

Ze proiektu dituzue aurrera begira?

Onkologian espezializatua dagoen estetika eremuan sartuta gaude, behar horretarako egokiak diren produktuekin eta gaixotasunaren behin-behineko sintomak lasaitu, erlaxatu eta hobetzen laguntzen duten eskuz egiten diren teknika onenekin.

Mari Carmen Pardok 25 urte baino gehiago daramatza ongizatearen eta ederatasunaren alorrean lanean. Lehen eguneko ilusio bera du, bezeroen beharrak asetzeko eta euren bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko ilusioa. Egun, inguruko estetika zentrorik handiena (300 metro koadro baino gehiago ditu lokalak) eta aurreratuena du, erreferentzia izanik eskaintzen duen zerbitzuengatik eta teknologiatik.

"Dirua ez da arazoa; izan ere, gorputz osoa depila dezakezu hilean 83,33 eurogatik"

"Freeze-k kolagenoa berregituratzen du; eta zelulitisarendako, Vela Smooth irrati-frekuentzia"

"Zazpi profesional baino gehiago gaude eta eskaintza zabalagoa dugu ordutegiaren inguruan"



GORPUTZ TRATAMENDUAK

Liposupzioa ordezkatzeko duten teknikak

KABITAZIOA: koipea kentzeko teknika aurreratuena.

VELASMOOTH: zelulitisaren aurkako eta gorputza moldatzeko teknika onena.

LASER PLATAFORMA

* Eskaintza baliagarria maiatzean zehar

Argi Pultsatua (IPL) eta Alejandrita laserra: saioak 3 hilabeteetan behin...

... eta hilearen arazoaz ahaztu zaitez

Hanka osoak + izterrondoak + besapeak

83,33 € hileko

*%20ko deskontua

LIRAIN
ESTETIKA-ZENTRUA



DUELA 10 URTE

2003-4-4

Labidea eta Turismo Bulegoa

Labidea denda eta Turismo Bulegoa inauratu zituzten orain dela hamar urte, apirilean. Herritarrez gainera, ibarreko jende ugari ere batu zen inaugurazio ekitaldira. Gune berria zabaldu eta astebetara, bertakoek kontatu zuten "oso pozik" zeudela emaitzarekin, tabernara eta Turismo Bulegora, bietara "jende asko", joaten hasi zela, nagusi zein gazte eta bertakoak zein Gatzaga bisitatzera etorritakoak.



Kafea prestatzen. | AINTZANE GARDOKI

2003-4-11

Botoa emateko leku berria

Udal hauteskundeak izan ziren 2003ko maiatzean. Eta berritasunekin etorri ziren Leintz Gatzagara. Izan ere, orain dela hamar urteko urtarrilaren 11n Garro jauregian sutea gertatu zen. Eta hark eragotzi egin zuen, ordura arte moduan, botoa bertan eman ahal izatea. Horrenbestez, Leintz Gatzagako Udalak erabaki zuen eskola erabiltzea hauteskundeetarako hautesleku moduan.

DUELA 5 URTE

2008-5-9

Abereen ordenantza

Aldatu egin zuten abereak mendian ibiltzea arautzen zuen ordenantza. Aldaketarik handiena bizitokiarekin lotutakoa izan zen. Hau da, Gatzagan erroldatuta daudenean eta bertan bizi direnean zuten lehentasuna abereak mendira eramateko baimena lortzeko, baina lekua baldin bazegoen, kanpoko ere zabaldu zieten bidea.

LEINTZ GATZAGA

Jose Inazio Beloki Leintz Gatzagako bake epailea da urteotan, baina udalerrian ezaguna da, baita ere, pilota eta txirrindulari kontuetan egindako eta egiten duen lanarengatik. | UBANE MADERA

"Leintz Gatzaga, edo izugarri gustatzen zaizu, edo ez zaizu batere gustatzen"

Gasteizen jaiotakoa (1960) izan arren, 30 urte daramatza Jose Inazio Belokik Leintz Gatzagan bizi izaten. "Ama Gatzagakoa zen-eta...", azaldu du. Eta 30 urteok herrian oso inplikaturik eman ditu, gainera. Besteak beste, azkeneko 15 urteak bake epaile moduan.

Posible da horrenbeste urtean bake epaile izatea?

Bai, eta pozik nabil. Bi urte gertatu zaizkit orain, baina ez daukat arazorik segitzeko. Ostiralean hartzen ditut eginbeharrak, eta udaletxera joan behar badut, bada, joan egiten naiz. Dena den, lan handirik ez da: familia liburuak idatzi eta ezkontza zibilen bat edo beste egin... askorik ez, hala ere. Halako gehiago egiten ditu Otsoa alkateak. Dena den, hil honetan badut bat.

Gasteiztik Gatzagara zuzenean etorri zinen bizi izatera? Ze ederra aldea, hiriburutik horren herri txiki eta berezi batera...

Ez, Gasteizen jaio nintzen, baina bizitza Eskoriatzako baserri batean egin dut, Gaztanaduin. Baina ama hemengoa zen [Gatzaga] eta txikitatik etortzen nintzen hona. Oinez etortzen nintzen, gainera, ze lehen ez zegoen-eta autorik... Bisitan etortzen nintzen, gainontzeko guztia hemendik

kanpo egiten nuen; ikasi Arrasateko Eskola Profesionalean, pilotan jokatu Eskoriatzan... Baina ezkondu ostean etxea erosi nuen hemen. Badakizu, hau edo gustatzen zaizu izugarri edo batere ez. Pentsa, hemen autoa beharrezkoa da oso, eta nik ez dut gidatzeko baimenik.

Ez daukazu? Hori bai meritua, hemen bizi zarela kontuan hartuta!

Ez, ez daukat, baina andreak badu, eta alabak ere bai. Eta egia da, 20 urtean autobusik ere ez da izan; orain, eskerrak badagoela. Asko hobetu da kontua, eta niretako gehiago!

Eta zelan egin duzu orain artean lanera joateko?

Eskoriatzan egiten dut lan, eta lehengusuarekin moldatu izan naiz. Bion ordutegiak berak dira; horrenbestez... Dena dela, azkeneko hamar urteotan Eskoriatzako kiroldegiko harreraren ere egon naiz lanean asteburuetan (otsailean utzi berri dut lan hori), eta kasu horretan bai, hori antolatzeko izan ditut buruhausteak... autoa duen norbait topatu behar...

Pilota kontuak aipatu dituzu. Entzunda dut oso zalea zarela.

Bai. Nik 15 urte nituenean Eskoriatzan jokatzeko nuen eta Gatzagan, berriz, urteak eman ditut umeak entrenatzen. Baina lan

HERRITARRAK



Jose Inazio Beloki, Leintz Gatzagako pilotalekuan. | UBANE MADERA

"Hemen autoa beharrezkoa da eta nik ez dut gidatzeko baimenik"

"Azkeneko hamar urteetan astean zazpi egunez ibili naiz lanean"

kontuengatik [astelehenetik ostiralera tailerlean eta asteburuetan kiroldegian] zoratu egiten nintzen. Eta halako batean Maurik [Zubillagak] esan zidan txapelketaren bat antolatzeko asmoa zuela eta hura hasi zen hori egiten, eta nik utzi egin nuen. Oso ondo etorri zitzaidan hura. Bost bat urtean-edo ibili nintzen umeak entrenatzen.

Hamar urtean ibili zara zazpi egunean lanean?

Bai. [Barre]

Pilota txapelketan ez zara ezertan ibiltzen?

Gatzagako jaietako pilota partiduekin laguntzen dut, eta urteroko bazkarian ere ibiltzen naiz laguntzen... Dena den, orain utzi egin dut Eskoriatzako asteburuetako lana; beraz, orain, denbora luzeagoa izango dut, baina beti dago zerbait egiteko.

Txirrindularizalea bazarela ere kontatu didate...

NIRE HERRIAN

BERTAKO LASAITASUNA

Giroa, lasaitasuna... gustatzen zaizkit batez ere. Hasiera-hasieratik hona etortzen nintzenezan banekien zer neukan. Eta ni beti izan naiz hona etortzeko, herri txikiaren aldekoa. Aretxabaletatik, Eskoriatzatik... beti etorri izan naiz hona gora. Eta horren bila etorri nintzen hona bizi izatera etorri nintzenezan.

ZERBITZU GABEZIA

Zerbitzu asko-asko ez dela egoten. Begira, adibidez, zenbat urtean ibili ginen autobusa lortzeko! Eta orain zerbitzu guztiak murrizten dabiltzenezan alde guztietatik... Oraingoan, etortzen zaigu medikua, baina ez dakit zenbat denbora iraungo duen. Dena den, hona etorri gero, badakizu zer dagoen. Beraz...

[Barre] Bueno, zalea-edo... Beti egon izan gara inguruan. Talde bat egin genuen. Dorletako Ama Lagun Elkarteak da izena. 10-12 bat lagun gabilta. Alberto Altube da elkartearen presidentea. Gainontzeko Gatzagakoak, Aretxabaletakoak... ingurukoak gara. Eta antolatzen dugu uztaileko lasterketa eta mountain bike txapelketa, Gatzagako jaietakoak. Uztaileko txirrindulari lasterketa, berriz, lehen Gatzagako jaietan izaten zen, baina ikusten genuen txirrindulariak ez zetozeela, eta data aldatu genuen. Eta horren ondoren bi lasterketa atera ziren: uztaileko hori eta mountain bikekoa.

Elkarrizketa laburbilduz, zu bizi ez zara batere aspertzeko!

Ez, ez, ez, ez. [Barre] Eta gainera, hiru ume ditut! Bueno, ume... txikiak 22 urte ditu eta nagusiak, 28 urte.

HERRIAK

ELGETA

Gerrarako gertu

- ▶ Ilusioa da nagusi domekan lehen aldiz egitekoa den errekreaziorako
- ▶ Figuranteek bihar, zapatua, egingo dute entsegu orokorra Asentzian

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Lan aste gogorra izan da honakoa Elgetan. Eguna hurbildu ahala gehitzen joaten den urduritasunari azken orduko ezustek gehitu zaizkio eta antolatzaileak lanez lepo ibili dira.

Domekako ekitaldia ondo ateratzea nahi dute denek. Alde batetik, errekreazioa egiten den lehenengo aldia delako, eta bestetik, ordezkari instituzional garrantzitsua espero dutelako Elgetan. Udalak aditzera eman duenez, ekitaldian izango dira Eusko Jaurlaritzako bozeramaile Josu Erkoreka, zehazteke dagoen Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkari bat, Elorrioko alkate Ana Otadui, Bergarako zinegotzi Jaione Isabelaia, EAko Pello Urizar eta EBko Isabel Salud, besteak beste.

Arropen banaketa

Figurante askok antolatzaileen esku utzi dute zein paper irudikatu erabakitzeko ardurua, eta esan beharra dago astelehenean jakin-minarekin agertu zirela asko arropak jasotzera. Gainerako materiala —kaskoak, fusilak, pistolak...— bihar arratsaldean Asentzian egingo duten entseguan jasoko dute.

Ehun bat lagun elkartuko dira antzezpenerako —tartean 25 bat elgetar—. "Uste baino emakumezko gehiagok eman dute izena", adierazi du Intxorta 1937 kultura elkarteko Josuren Murgizuk. "Bik *La Belga* izeneko posizioan egondako bi emakume belgikarren papera egingo dute. Gainerakoak, eta garaiko dokumentazioan oinarrituta, erizainen taldean sartu ditut". Murgizuren esanetan, emakumezkoen zeregina oso garrantzitsua izan zen gerran, baina frontean oso gutxi egon ziren. "Sozialistak izan ziren inplikatuena", esan du.

Leherketa kontrolatuak

Domekako errekreazioan, milizianoek eta gudariak tropa frankistak gelditu zituzteneko gertaerak irudikatuko dituzte: 1936ko urriko gertaerak. Astondoa pirotekniak leherketa kontrolatuekin irudikatuko ditu orduko bonbardaketak eta tiroketak. Hala, segurtasun neurri zorrotzak hartu beharko dira, eta antolatzaileek ondo seinaleztatuko dute ikusleek non kokatu behar duten. "Publikoari



Iraitz Lazkano, Turismo teknikaria, fusilari nola eutsi erakusten Garbiñe Sarasketa elgetarrari. | LZ.

eskatzeko diogu seinaleztapenak errespetatzeko eta ikusleendako prestatutako guneetatik ez irteko", adierazi dute.

Talde edo batailoi ezberdinak ondo identifikatutako egongo dira, eta bakoitzak bere ofizial

arduraduna izango du. Horien guztien gainetik, bando bakoitzak arduradun orokor bat izango du: tropa frankistek Josuren Murgizu eta miliziano eta gudariak Jon Etzezaraga. Guztien joan-etorriak behar den moduan koordinatze-

ko, *Intxortako atea* paretik zuzendari orokor lanak egingo ditu Elgetako Turismo teknikari Iraitz Lazkanok. Eguraldiak ekitaldia ez zapuztea gelditzen da orain. Errekreazioa 12:00etan egingo dute lubakien gunean.

JOSUREN MURGIZU
INTXORTA 1937

"Gertatutakoak hobeto irudikatzen lagunduko du errekreazioak"

Bergararak egin du domekako errekreazioko gidoia, eta, beste askoren moduan, buru-belarri ibili da pres-taketa lanetan.



Ze helbururekin egingen duzue errekreazioa?

Urteak dira Elgetan gertatutakoak ikertzen ari garela. Memoria historikoa berreskuratzea eta gertatutakoa eza-gutzero ematea dira gure helburu nagusiak. Errekreazioak hori hobeto irudikatzen lagunduko dio publikoari.

Kosta egin zaizue aktoreak topatzea?

Ehun bat lagunek hartuko dute parte domekako errekreazioan. Azkenean, aurreikusitakoa baina jende gehiago da. Eta atentzioa eman digu izena eman duen emakume kopuruak.

Jendea topatzeaz gain, lan handia egin duzue jantziak eta gainerako karakterizazio guztia egiten, ezta?

Asko zaindu dugun kontua da; izan ere, guretzako, garrantzi handia du errealtatean ahalik eta gehien oinarritzeak.

Hogei bat minutuko ikuskizuna

1936ko urriko bonbardaketen simulaziorakin emango diote hasiera errekreazioari. Isilune baten ostean gudari eta milizianoak lubakietan kokatzen ikusiko ditugu. Orduan, tropa frankistak Asentzio aldetik gerturatuko dira. Erasorako kokatuko dira, eta tiro trukaketa hasiko da. Frankistek zauritu ugari izango dituzte, eta atzera egingo beharko dute. Bertsoekin amaituko da ekitaldia.



Miliziano taldea lubakietan. | INTXORTA 1937 KULTURA ELKARTEA



Bi herritar, errekreaziorako jantziko dituzten arropak ikusten. | LZ.

Ehun bat boluntario elkartuko dira

Erregularrak, falangistak, erreketak, armadako soldaduak, erizain taldea, gudari eta milizianoak, fusilak, kaskoak, talde bakoitzaren ikurrak... arropa eta material ugari prestatu behar izan da, errekreazioa dokumentazio historikoan oinarrituko baita. Ekimenak 16.000 euroko aurrekontua du eta Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailak 12.800 euroko dirulaguntza eman du. Norbanakoek egindako ekarpena ere eskertu dute antolatzaileek.

San Andres auzoak Aitor Guridi zena omenduko du

Gaur hasiko dira jaiak; omenaldia, maiatzaren 1ean Gudari plazan, 13:00etan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Gaur hasiko dira San Andres auzoko jaiak. Iaz arazoak izan ziren antolakuntzan, auzo alkateak ez zuelako ohi moduan funtzionatu. Horren ondorioz, bi egitarau ezberdin egin ziren. Aurten zatiketa hori gainditu, indarrak batu eta nobedadez jositako egitarau zabala antolatu dute. Ekitaldien artean, bat nabarmendu beharra dago: hainbat urtez auzo alkate izan zen Aitor Guridi orain

gutxi hil zela-eta, omenaldi berezia egingo diote; maiatzaren 1ean izango da, Gudari plazan (13:00).

"Langilea, pazientzia handikoa"
"Pazientzia handiko gizona zen, oso gertukoa. Galdera eta keza guztiak entzuten zekien eta, batez ere, langile petoa zen. Asko eman zion auzoari. Auzotarrei eman beharreko erantzuna ona ez zenean errespetuz egiten zuen berba. Noski, haserretu ere egiten zen,

baina salbuespena zen hori". Juan Antonio Barriocanal San Andresko alkate izandakoak -egun Auzoetako zinegotzia da Udalean- hitz horiekin gogoratu du Aitor Guridi. Juncal Perezek ere harekin egin zuen lan: "Oso langilea zen. Alkatezako zuzendaritzan batera egin genuen lan eta asko eman zion auzoari, nire ustez. San Andres eguneko azoka berreskuratzea eta Labeko Koba eza-gutzera ematea izan dira haren



Guridi, Torrepen, 2010ean. | UBANE MADERA

Egitaraua ikusteko:
eskaneatu QR kode hau poltsikoarekin.



ekarpenetako batzuk". Beste testigantza garrantzitsu bat ere jaso dugu; hainbat urtez udaltzainburua izan den Jose Luis Etxeberria Porru-k ere aspalditik ezagutzen zuen: "Lagunarteko harreman berezi bat izan genuen, oso harreman goxoa. Beti egon ginen elkarri laguntzeko gertu. Auzoaren alde lan handia egin zuen, isilean; kalean edozein arazo zegoela entzutean, automatikoki ematen zuen horren berri Udalean. Auzo alkate moduan lan hori ondo baino hobeto egiten zuen".

Omenaldia antolatzea erabaki zutenean, auzoko eragile ezberdinek babestu zuten. Emaztea eta seme-alabak, Inazio Azkarra-gaurizar alkatea, Juan Antonio Barriocanal eta egun San Andresko alkatea den Jon Barriocanal egongo dira. Omenaldian aurrekua, bertsoak eta txistulariak izango dira, besteak beste.

Hiri hondakinak modu selektiboan biltzeko proposamen zehatzak egin ditu Udalak landa eremuetan

J.B. | ARRASATE
Hiri hondakinak selektiboki biltzeko modu berria lantzen ari da Udala landa eremuetan. Komertzioen, industriaren eta zerbitzuen ezaugarriak kontuan hartuta, landa eremu bakoitzarendako

proposamen konkretu bat pres-tatu du. Lehen bilera Meatzerrekan egin zuten eta asteon Garagartzan eta Gesalibarren egon dira. Garagartzan, adibidez, Josu Pereda Ingurumen zinegotziak hondakin organikoaren kudeake-

ta norberak egitea proposatu zien auzotarrei. Proposamenak aurrera egin dezan, Udalak norberak konposta egiteko erraztasunak jarriko lituzke: "Landa eremuetan, ez litzateke atez ateko sistema jarriko", adierazi zuen Pereda Garagartzako bileran.

Galdetegi emaitzak, laster
Udala banan-banan ari da aztertzen etxera bidali zituzten eta erantzuna jaso duten galdetegi guztiak eta laster emango du arrasatearrek

erantzundakoaren berri. Orain arte ikusitakoarekin, Udalak honako ondorioa atera du: "Gehiengoak ingurumenarekiko eta pertsonen osasunarekiko ardura adierazi du eta hori positiboa da. Abiapuntu ezin hobea da hondakinak

selektiboki biltzeko orduan proposamenak eztabaidatzeko". Bestalde, gogoratu dute Gazte Bulegoko informazio gunea zabalik dagoela eguaztenero (18:30-20:00), "edozein informazio jaso, galderak egin edo iritzia emateko".



Garagartzan egindako bileran 30 bat auzotar elkartu ziren. | JOKIN BEREZIARTUA



LASTER LANBIDE HEZIKETAREN AZOKA GUREAN!

Lanbide bat ikasi nahi duzu, baina ez dakizu nondik hasi?

Langabezia zaude eta lan aukerak zabaldu nahi dituzu?

Edota esperientzia handia duzu lanbide batean, baina titulurik ez?

Lanbide Heziketa izan daiteke zure aukera!

GOIAZ! 2013

Lanbide Heziketaren Azoka Maiatzaren 8an eta 9an; Kulturaten, Arrasaten.

Etorri Azokara eta ezagutu zure aukerak!



www.facebook.com/goiazdebagoiena



DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismo Departamentua
Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo

Gipuzkoa BERRIA

LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENZIAK EZAGUTUZ

"Lanera begira, praktikoak diren ezagupenak ikasten dira"

Jon Urkia ofiatiarrak erdi mailako hiru heziketa ziklo ditu eginda. Bi industria arlokoak, lana biltzeko asmoz eginak, eta azkena, kirol arloarekin lotutakoa, hura interes pertsonalagatik. Hirurak ere, Oñatiko Zuzola-Larraña Institutuan. Gaur egun industrian lanean ari da.

DBH bukatu eta berehala hasi zinen Lanbide Heziketa ikasten. Zergatik aukeratu zenuen Lanbide Heziketa?

Bai. Erabaki nuen ez nuela batxilergoan jarraituko. Ikasgai teorikoak eta orokorrak ikasteak ez ninduen motibatzen eta Mekanizatua, erdi mailako heziketa zikloa egitea erabaki nuen. Industriara bideratutako zerbait nahi nuen, gero lana topatzeko. Eta horrela izan zen; praktikak Matz-Errekan egin nituen, eta bertan gelditu nintzen lanean ia urtebetez.

Eta horren ondoren beste ziklo bat egin zenuen, ezta?

Erdi mailako beste ziklo bat egin nuen, Matz-Errekan kontratua bukatu zitzaizdanean, makinaren mantenuan. Bi zikloak osagarriak dira; batek fabrikazio arloa lantzen du eta besteak, produktzioarako makina horien mantenua.

Mantenuko zikloaren praktikak atzerrian egin dituzu. Non? Zer-nolako esperientzia izan da?

Portugalen, Lisboan egin nituen praktikak, Da Vinci programaren bidez. Bi astean, bertan, hizkuntza ikasten aritu ondoren, bertako enpresa batean egin nituen praktikak, hiru hilabetez. Euskadiko eta esta-



tuko beste ikasle batzuekin batera egon nintzen, eta esperientzia aberasgarria izan zen. Gainera, handik bueltan ere lana aurkitu nuen.

**Eta nolatan hasi zinen Landa inguru-
neko gorputz eta kirol ekintzen gidaritzan ikasten?**

Kirol arloa gustuko dudanez, eta hainbat ikasgai baliozkotuta nituen, langabezia nengoen bitartean egin nuen; gustatzen zaizkidan beste arlo batzuk lantzeko aprobetxatu nuen.

Zer eman dizu Lanbide Heziketak? Zer azpimarratuko zenuke?

Lanera begira, gauza praktikoak ikasten dira, eta horrek motibatu egin ninduen, oso gustura etortzen nintzen eskolara. Gainera, enpresara zoazenean ere, gauza berriak ikasi behar izaten diren arren, oinarrikoen prestatura zaude. Lanerako prestatzen zaituzte Lanbide Heziketako zikloetan.



OHIKO BATZAR NAGUSIA

DEIA

DATA: 2013ko maiatzaren 8an.
ORDUA: 18:00etan lehen deialdia eta 18:30ean bigarrena.
TOKIA: Monterongo aretoan.

GAI ZERRENDA

1. Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bi bazkide izendatzea batzar honetako akta onartzeko.
2. 2012ko ekitaldiko kontuak aztertzea eta onartzea.
3. 2011/2012 ikasturteko memoria
4. 2012/2013 ikasturteko kudeaketa egitasmoa
5. Zuzendaritza Batzordeko kideetatik, erdiak berritzea.
6. Galde-erreguak.

ARRASATE MUSIKAL
2013ko apirilaren 26a.

"Argiteria adimentsua", energia eta dirua nabarmen aurrezteko

Hilerrira bidean jarri dute argiteria sistema berria; %86 aurrezten da orain

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASAE

"Argiteria adimentsua deitzen diogu. Sistema jartzen den gunean detekzio bidez jakiten dugu norbait pasatzen den edo ez. Inor ez dagoenean 10 wateko oinarritzko kontsumoa dauka eta norbait pasatzen bada 50 watt kontsumitzen du. Lehengo sistemak 165 watt kontsumitzen zuen". Halaxe azaldu digu Felix Ezkurra Donostiako Luxi enpresako arduradunak Arrasaten jarri duten argiteria sistema berria. Oinezkoak edo ibilgailuak bertatik pasatzen direnean, farolek argi gehiago-zuria, laranja beharrean- ematen dute eta minutu baten ez bada inor pasatzen, oinarritzko kontsumora bueltatzen dira.

Martxoaren 22a ezkerro hilerrira bidean dago sistema berria eta zaharrarekin alderatuz, gasatzen zenaren %86a aurrezten da, ingurugiroari ere kalte txikiagoa eginez. Ia 23.000 euroko inbertsioa izan da; "azkar" amortizatzen dena, Ezkurraren ustez.

Informazio baliagarria

LED teknologia erabiltzen du sistema berriak. Teknologia horri esker, farolek euren artean *hitz egiten* dutela esan daiteke. Hau



San Kristobal hilerrira bidean jarri dute argiteria sistema berria. | JOKIN BEREZIARTUA

ESANAK

"Probatu dugun lekuetan oso harrera ona izan du"

FELIX EZKURRA | LUXI ENPRESA

baliagarria jasotzeko. Izan ere, Udalak proba modura jarri zuen sistema berria hor, jende gutxi pasatzen den gunea delako. Orain arteko estatistikek ere hala ziurtatu dute: eguneko 24 orduetatik 19 orduan ez da inor pasatzen.

Berria denari mesfidantza

Ezkurraren arabera, jendeak oraindik beldurra dio sistema berriari: "Ordenagailu bidez udal-txetetik kontrolatu ahal den sistema batek mesfidantza sortzen du, baina esan behar dugu probatu dugun lekuetan oso harrera ona izan duela".

da, sare elektrikoaren kablearen bidez, informazio digitala pasatzen da farola batetik bestera. Horrek aukera ematen du informazio



JULEN IRIKONDO

Ttak eguna maiatzaren 4an

AEDren gazte taldearen eskutik, maiatzaren 4an ospatuko dute Ttak eguna, iazko helburu berberekin: "Ttak taldea ezagutzera ematea eta Arrasateko gazteen artean euskararen erabilera areagotzea". 15 eta 17 urte arteko 20 bat gaztek osatzen dute Ttak taldea; egubakoitzero biltzen dira AEDko egoitzan ekintzak antolatzeko eta bestelakoetarako.

Kubako punka eta 'Gaztetxelandia' asteburuan gaztetxean


Gaztetxearen 22. urteurreneko ekitaldien barruan, Kubako punk mugimenduaren gaineko hitzaldia izango da gaur, 17:30etik 20:30era. Bihar, berriz, *Gaztetxelandia* eguna ospatuko dute: jolasak, bazkaria eta Luz de Putas eta Skakeitan taldeen kontzertuak izango dira, besteak beste.

Azken Ostirala gaur Herriko Plazan, espetxe politika salatzen

Herrirak Azken Ostiralean parte hartzeko dei egin die arrasatearrei, espetxe politika salatzen: "Garaia da giza eskubideak era nabarmenean urratzen dituzten salbuespeneko neurriak amaitzeko", diote. Hilero moduan, Herriko Plazan izango da elkarretaratzea, 19:30ean.



ORAIN



ORAIN



ORAIN

Zure bainuontzia kendu eta dutxa jartzen dizugu

EGUN BATEAN

hori guztia kalitate eta zerbitzu onena emanda.

Dei egiguzu konpromiso barik eta dituzun zalantza guztiak argituko dizkizugu.



Iturgintza, gasa, kalefakzioa eta eguzki-plaka termikoen instalazioa etxeko urarendako
Mitarte 5 behea - Tel.: 943 71 52 51 - 605 71 66 92 - ARETXABALETAKO

ZALDIBAR

EMAITZAK

Abokajarro - Aldatz	1-3
Iriztu - Haizea's Weah	5-4
Ostantz - Dribling	3-3
Fidel & Discipulos - Iluntz	6-1
At. Betrayer - Sonografos	3-7
Lasagabaster - Aston Birra	2-1

A MULTZOAREN SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Sonografos	11	2
2 Lasagabaster	9	2
3 Aldatz	8	2
4 At. Betrayer	5	2
5 Abokajarro	4	2
6 Aston Birra	2	2

B MULTZOAREN SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Iriztu	10	2
2 Ostantz	8	2
3 Fidel & Discipulos	7	2
4 Dribling	6	2
5 Haizea's Weah	5	2
6 Iluntz	3	2

PARTIDUAK

APIRILAK 27, ZAPATUA

10:30 Iriztu-Iluntz / At. Betrayer

11:30 At. Betrayer-Aston Birra / Iluntz

12:30 Fidel & Disc-Dribling / Aston Birra

APIRILAK 28, DOMEKA

10:30 Lasagabaster-Aldatz / Ostantz

11:30 Haizea's Weah-Ostantz / Lasaga.

12:30 Sonografos-Abokajarro / Haizea's.

Lider sendoak

Bigarren faseko bigarren jardunaldian ez zen sorpresa handirik izan. Bestalde, Sonografos-irabazteko faborito nagusia- eta Iriztu lider sendoak dira.



Lauko Finalean egongo den taldea, Gabonen aurretik Arrasateko plazan egin zuten talde aurkezpenean. | GOIENA

Iturripen jokatu dute kadeteen Lauko Finala

MUko gaztetxoek ordezkatu dute Arrasate, ligan lehenengo geratuta

XABIER URZELAI | ARRASATE
Asteburuan Iturripen jokatu dute Gipuzkoako kadete mailako Lauko Finala, eta tartean egongo dira Arrasateko MUko jokalariek: "Gazte mailako Euskal Herriko txapelketa Iturripen antolatzerakoan egindako lan onagatik eskaini digu federazioak Lauko Final hau Arrasatera ekartzea, eta onartu egin dugu", adierazi du aste barruan taldeko entrenatzaile Nikolas Badiolak.

Bihar, zapatua, 17:00etan jokatu dute lehenengo kanporaketa Askatuak taldeak eta Tolosak, eta 19:00etan izango da MUkoen eta Easokoen arteko lehia: "Ligan gure multzoko lehenak izan gara, eta Easo beste multzoko bigarren sailkatua izan da. Uste dut indarrak parean egon daitezkeela, halako partiduetan edozer gerta daitezkeelako. Baina, etxean jokatuta finalean egon nahi dugu eta horretarako egingo dugu lan",

LAUKO FINALEKO ORDUTEGIA

ZAPATUA

17:00 Askatuak-Tolosa

19:00 MU-Easo

DOMEKA

18:00 Finala

ESANAK

"Easo eta Tolosa parean dauden taldeak dira, baina Askatuak da faborito"

"Gazteen txapelketan egindako lan onagatik eskaini digute fasea ekartzea"

NIKOLAS BADIOLA | ENTRENATZAILEA

zehaztu du Badiolak: "Esango nuke Tolosa ere maila berdintsuan dabilen taldea dela, baina egia da Askatuak beste maila batean dagoen taldea da, hortan, finale-ra sailkatuta ere, eurak dira faborito".

Infantilek, finala domekan

Bestalde, Gipuzkoako infantil mailako finala jokatu dute MUko gaztetxoek domekan. Juan Carlos Davilaren mutilek oraindik ez dute partidurik galdu, eta finalean Internacional Intxaurren izango dute aurrean, Mons kiroldegian.

Nagusiak, Donostiara

Nazional mailan, liga amaitzeko bost jardunaldi geratzen dira, eta Josu Larreategiren mutilek Donostian jokatu dute bihar, sailkapenean parean dagoen Bide Bide Donostiren kontra (16:00).

Gipuzkoako alebin eta infantil mailako atletismo probak etzi

Domekan, apirilaren 28an, Gipuzkoako alebin eta infantil mailako probak jokatu dituzte Mojategiko atletismo gunean. Neskek zein mutilek izango dute denetarik probak egiteko aukera, bakarka, eta, hain zuzen, goiz osoan ibiliko dira hainbat proba ezagutzen, 10:30ean hasita.

"Diruak erabakiko du non jokatu den igoera fasea"

Ford Mugarrik Iturripen jokatzeko eskaintza egin dio Federazioari; maiatzaren 10etik 12ra izango da

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Ford Mugarrik hirugarren urtez lortu du Lehen Nazional mailarako igoera fasean egoteko txar-

tela. Aurten ere Euskadiko txapelkunak izan dira eta dagoeneko lanean dabilta hirugarren saiakeran helburua lortzeko.

Etxean jokatzearen garrantzia

Aurreko bi urteetako esperientzia ikusita, arrasatearrek ondo baino hobeto dakite igoera fasea etxean jokatzeko asko laguntzen duela. Baina nola erabakitzen da non jokatu den igoera fase hori? Andoni Arando klubeko zuzendariak kideak argi eta garbi egin digu berba: "Diruak erabakiko du non jokatu den igoera fasea. Espainiako Federazioari egin diogu gure eskaintza; kanpoan jokatzeko dakarzkigun gastuen antzeko diru kopuru bat eskaini diegu. Orain, itxaron egin behar dugu; apirilaren 29an edo 30ean egingo dute zozketa, nolabait dei-



Ford Mugarriren eta Askartzaren arteko aurtengo lehia, Iturripen. | IMANOL SORIANO

tzearen". Datorren astearen hasieran jakingo dute, beraz, non eta noren kontra lehiatuko diren: "Federazioak esan ohi du txapelkunari lehentasuna ematen zaio, baina, azkenean, diru gehien jartzen duenari emango diote fasea antolatzeko ardura". Arandok ez digu esan nahi izan zenbat diru eskaini duten; iaz bigarren izan zen Elgoibarrek, adibidez, etxean jokatu zuen bere igoera fasea, 6.000 euro ordainduta.

Igota ere, dirua arazo

Igoera fasea Arrasaten jokatu behar bada, antolakuntza lan handia egin beharko dute; bigarren taldeak ez du kopa jokatu: "Jende aldetik eskas gabilta eta edozertarako dela ere laguntza oro ondo etorriko zaigu", esan digu Arandok. Era berean, igota ere dirua arazo iturri izango da: "Lehen Nazional mailako gastuak bikoiztu egiten dira bigarren mailakoekin alderatuta".

BARRIO autobus eta mikrobusak

Prezio interesgarriak!

- Eskoletako txangoak
- Upeltegietara irteerak
- Sagardotegietara irteerak
- Ezkontzak

Eska ezazu aurrekontua konpromisorik gabe!



Aldapa kalea 6, 4-B Ermua • Tel.: 943 17 15 01 • Pol.: 659 87 89 89
E-posta: info@autocaresbarrio.es • Webgunea: www.autocaresbarrio.es

Komiki gida, 100 gomendiorekin, kaleratu dute

Bibliotekak gaur aurkeztuko du komiki gida, puntako egileen gomendioak jasota

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Aurtengo komiki gida aurkeztuko du bibliotekak 19:00etan, Jokin Zaitegi aretoan. Honekin, Liburuaren Egunaren harira antolatutako ekitaldiz jositako apirilko egitaraua itxiko dute. *El arte de volar* komikiaren egileak, Altarriba eta Kim, Kulturaten izango dira aurkezpenean.

100 komiki aukeran

Zinema, poesia eta bestelako generoen sustapenarekin bezala, iaztik komiki gida ere argitaratzen du Arrasateko bibliotekak. Hala, puntako hamar kolaboratzaileari



Komiki gidaren azala.

euren 10 komikirik gustukoena eskatu dizkiete eta gomendioekin gida osatu dute. Kolaboratzaile zerrendan Alfonso Zapico eta Santiago Valenzuela Espainiako komiki saridunak daude. Azken horrek, hain zuzen ere, komiki gidako azalaren ilustrazioa egin du. Gida horretan ez da falta izango, noski, *El arte de volar*. Euskal komikiari dagokionez, ekoizpena apala bada ere, gidarako zenbait euskal autoreren gomendioak ere jaso dituzte.

Altarriba eta Kim

Arratsaldeko aurkezpen saio berezian zaleek aurrez aurre izango dituzte gaur Antonio Altarriba eta Kim egileak. Aukera egongo da lan txalotuaren pasa-



Kim eta Altarriba, gaurko saioan egongo diren egileak. | FOROCOMUNISTA

dizo eta sorkuntza prozesuari buruzko xehetasunak jakiteko, eta, azalpenak eman ahala, Kim ilustratzaileak marrazkiak egin

jardungo du. Saio horretara Bartzelonatik espresuki etorriko da marrazkilaria, gainera (Altarriba Gasteizen bizi da).

Espainiako komikiaren heldutasuneko lan gailen baten egileak

El arte de volar (2009, Edicions de Ponent) eleberririk grafikoa makina bat sari eta guztietan nabarmenena Espainiako Komiki Sari Nazionala jaso zuen 2010. urtean. Antonio Altarriba (Zaragoza, Espainia) gidoigilearen eta Kim Aubert Puignau (Bartzelona, Katalunia) ilustratzailearen lana da. Altarribarren aitaren

biografia moduko bat da eta kritikariak komikilaritza espainiarraren heldutasunaren erakusle izaten dute. Spiegelman-en *Maus* eta Taniguchi zein Waren lanekin parekatu dute, gertaera historikoei emandako sakontasunarengatik, eleberriarren introspektzioa eta komikiaren narratiba maisuki uztartuta.

Arrasate Musikaleko urteurren bazkarirako txartelak eta kamisetak salgai ipini dituzte

Maiatzaren 25ean 40. urteurren ospakizuna egingo dute, jai batekin eta bazkariarekin. Izena maiatzaren 3ra arte eman daiteke, 10 euro ordainduta. Kamiseta ere atera dute, eskolan bertan eros daitekeena 5 eurotan. Bada, DVDA ere osatu gura dute, eta, materiala biltzeko, argazkiak eta bideoak dituzten kideei laguntzeko dei egingo diete Arrasate Musikaletik.

Gorakada antzerki taldearen urteurrenako erakusketa martitzenera arte zabalik Kulturaten

Gorakada antzerki taldearen 25. urteurrena ospatzeko, ibilbideari eta egindako obrei buruzko erakusketa dago Kulturateko klaustroetan. Argazkiak, eszenografiak eta txotxongilo zein maskarak erakusten dira bilduman. Abadiñoko antzerki taldeak lan aipagarri ugari taularatu ditu *Ahatetxo itsusia*, *Munduari itzulua*, *Romeo eta Julieta*... eta horietan erabilitako txotxongilo, maskara eta jantziak ikus daitezke Kulturaten.

Maiatzaren 8an itzuliko dira Udaberriko Zikloaren berbaldiak, Koldo Zuazorekin

Hitzaldi sortak maiatzean izango du jarraipena. Maiatzaren 8an Koldo Zuazok euskalkiak eta Leintzeko euskara izango ditu berbagai eta maiatzaren 15ean, Gaztelako Erregeak izango da gaia. Koldo Zuazoren berbaldia 19:00etan izango da, Kulturaten. Aurtengo hitzaldiak eta emanaldiak amaitzeko azkenaurreko saioa izango da, gainera.

Erdi Aro eta Barroko garaietako soinuek hartuko dute parrokia bihar eta etzi

J.B. | ARRASATE

Antzinako musika izango da protagonista Udaberriko Musikaldiko asteburuko saioetan. Gaur, hasteko, Arrasate Musikaleko orkestrak eta Goikobalu abesbatzak emanaldi berezia egingo dute.

Klasikoak, hasteko

Dvoraken eta Beethovenen klasikoek eta Jose Olaizola Gaba-rainen *Sorgineta* suiteak osatuko dute herriko bi musika talde handiek elkarrekin egingo duten saioa. 20:00etan izango da, gaur, San Frantziskon.

Erdi Aroko sonoritatea

Bihar, oster, Musikaldia barren-barrenean sartuko da Erdi Aroko sonoritateetan. Axabeba lautoteak zanfoña, organetoa, lautea, txirula bikoitza, gaita, txirimia... erabiltzen ditu. Izena bezain itxura arraroko instrumentuak guz-



Ensemble Diatessaron, Oñatiko Santa Ana aretoan. | ENSEMBLE DIATESSARON

tiak, jatorrizko XIII. eta XIV. mendeetako oinarritutakoak. *Ad Trepidium Rotundum* izeneko sortan mende horietako izkribuetan jasotako tenpluetarako musika eta dantzak joko dituzte. Zapatuan 20:00etan joko du lautoteak parrokiari.

Barrokoari bizia emanez

Azkenik, domekan 20:00etan Ensemble Diatessaron taldeak antzinako musika emanaldia egingo du eta Barroko garaiko interpretazio garaikidea ekarriko du Udaberriko Musikaldira, historiari bizia emanda.

Restaurante
UGARAN
Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

MONTE TABERNA
edari, jana eta kirola

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

GOIENA RENT
AUTO ETA FURGONETEN ALOKAIURUA

- ✓ Lantokira nahiz etxeko atarira eramango dizugu ibilgailua DOAN
- ✓ 20€-tik eguneko
- ✓ Ibilgailuen flota zabala preziorik onenetan
- ✓ Enpresa nahiz partikularrentzako zerbitzua
- ✓ Aireportuko zerbitzua

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK
943 71 66 52 / 619 44 71 75
goienarent@goienarent.com

WWW.GOIENARENT.COM



Bidebarrieta kaleko auzo-konpost gunea presta dago, itxitura eta guzti. | OIHANA ELORTZA

Zaborra murrizteko mezua dakar Oñati Zero Zabor taldeak

O.E. | OÑATI

Zaborra arazo moduan hartuta, *elkartasun* kontzeptua zabaldu gura du Oñati Zero Zabor taldeak. "Errauskailua jarri gura izan duten herri guztietan, ezezkoa eman dute herritarrek, ez dutela gura esan dute. Guk Oñatin ere ez badugu gura, beste herri batean ere ez jartzeko eskatu behar dugu, *elkartasun* kontzeptua landu behar dugu", diote taldeko kideek. Horren adibide da Kasablankatik San Pedrorako bidegorrian egindako horma-irudia: *Erraustegia. Burua ondo daukanak ez du bere ondoan nahi. Bihotza ona daukanak besteen etxe ondoan ere ez du nahi.*

razioa eta hemendik aurrerako bidearen pautak aztertu ditu. "Pentsatzen dugu errauskailuaren aurrean bilketa selektiboa dela biderik onena, eta horren barruan, atez atekoaren alde egiten dugu. Baina uste dugu onena dela zaborrik ez sortzea. Horregatik, murrizketaren alde lan egin behar dugula iruditzen zaigu. Saiatu behar dugu erosketak egiten ditugunean ahalik eta zabor gutxien sortuko dituenak egiten. Administrazioei ere eskatu behar diegu ontzi legedia aldatzeko, adibidez, eta jakien industriak ere parte hartu behar du murrizketa honetan", azaldu dute Oñati Zero Zaborreko kideek.

Elkartasuna eta murrizketa

Oñati Zero Zabor taldeak orain arte egindako ibilbidearen bala-

Zabor murrizketari lotuta, herritarrendako ikastaro batzuk prestatzea pentsatzen ari da Oñati Zero Zabor taldea.



Oñati Zero Zabor taldeak egindako horma-irudia. | O.E.

Auzo-konposterako lau gune martxan

San Lorentzo, Ugarkalde, Bidebarrieta eta Zubibarriko guneak datorren astean inauguratuko dituzte: bi astelehenean eta beste biak martitzenean

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Azken asteotan prestatu dituzten auzo-konpost guneak datorren astean inauguratuko dituzte. Hain zuzen ere, astelehenean eta martitzenean. San Lorentzo, Ugarkalde, Zubibarrri eta Bidebarrietakoak ipiniko dituzte martxan: astelehenean, Bidebarrieta (18:30) eta Zubibarrrikoa (19:30); eta martitzenean, Ugarkalde (18:30) eta San Lorentzokoa (19:30). Ekitaldi horietan udal ordezkariak eta auzo-konposta egiteko izena eman duten herritarrek parte hartuko dute. Azken horiek, gainera, auzo-konposta egiteko erabiliko beharreko kuboak jasoko dituzte.

Lau gune horiek martxan ipini ondoren, beste bi geratuko dira. Hasiera batean Olapoto inguruan eta Errekalde 24 atzeko zelaiak aurreikusita zeuden guneak aldatu egin zituen Udalak. Hango bizilagunen eskaera aintzat hartuta, Olapotokoa Eteo zaharraren aurreko zelaira aldatu zen eta Errekaldekoa, hango 31-33 bebarruen aurreko zelai handira. Bi gune horiek bi aste barrurako erabilgarri egotea espero dute udal arduradunek.

Konpost-gailuak

Bidebarrietako gunean 36 familiak egingo dute konposta. 22 konpost-gailu eta materia lehorrerendako lau ontzi ipini dituzte. Guneak dituen neurriak aintzat hartuta, 50 familiak egin ahal dute konposta bertan.

Zubibarrriko gunea 40 familiak erabiliko dute. 2. zenbakidun atariaren atzean, erreka aldera egokitu duten gunean 24 konpost-gailu eta materia lehorrerendako lau ontzi ipini dituzte. Gune horretan ere 50 familiek egin dezakete auzo-konposta.

Familia gehien batuko duen gunea San Lorentzokoa da. Guztira, 47k eman dute izena. Gune handiena izanik, 34 konpost-gai-

BATZARRAK

MAIATZAK 6

19:00 Eteo zaharra. Euskaraz. Herritarrendako.

MAIATZAK 7

10:00 Eteo zaharra. Euskaraz. Herritarrendako.

MAIATZAK 8

19:00 Eteo zaharra. Gaztelerez. Herritarrendako.

MAIATZAK 8

10:00 Kultura etxea. Euskaraz. Herritarrendako.

MAIATZAK 9

19:00 Kultura etxea. Euskaraz. Herritarrendako.

MAIATZAK 9

15:00 Kultura etxea. Elebitan. Merkatarriendako.

MAIATZAK 10

10:00 Santa Ana. Gaztelerez. Herritarrendako.

MAIATZAK 13

19:00 Zuazola institutua. Euskaraz. Herritarrendako.

MAIATZAK 14

10:00 Santa Ana. Euskaraz. Herritarrendako.

19:00 Zuazola. Gaztelera eta gor-mutuak. Herritarrendako.

MAIATZAK 15

10:00 Kultura etxea. Euskaraz. Herritarrendako.

19:00 Kultura etxea. Euskaraz. Elkarte gastronomikoak.

gailu eta lau ontzi ipini dituzte. Beste bi guneetan 67 familiak egingo dute konposta: 36k Eteo zaharreko gunean eta 31k Errekaldean.

Batzar informatiboak

Bestalde, Udalak atez atekoari buruz urtarrilean hasitako parte-hartze prozesuak urrats bat gehiago egingo du maiatzean. Hainbat batzar informatibo egingo dituzte. Batzar horiek, berez, otsailean egitekoak ziren. Urtarrilean auzo eta kale guztietako atarietako arduradunek Udalak proposatutako txosten bat jaso zuten. Horietan, bilketa egutegia eta atari bakoitzaren zintzilikarioen kokagunea adierazten zieten. Gainera, atari bakoitzeko bizilagunek beste hainbat erabaki hartu behar zituzten: poltsa edo kubo horiak erabili, papera eta kartoia atarika batzea, bilketa gauzez edo egunez egin... Datu horiek guztiak ezagutarazteko batzarrak atzeratu egin zituen Udalak. Antza, herritarrek egindako ekarpenak asko ziren eta horiek guztiak ondo aztertzeko denbora hartu zuten udal arduradunek. Bada, orain deitu dituzte batzar informatibo horiek (ikus ondoko taula). Besteak beste, zerbitzuaren gaineko informazioa eman, herritarrek egindako ekarpenei erantzunak eman, eta larrialdi guneak zehazteko egin beharrekoa argituko dute.

Bestalde, zintzilikarioen behin betiko kokalekuak zeintzuk izango diren jasotzen duen plana ikusgai ipiniko dute Santa Anako beirtean, hilaren 29tik aurrera. Jatorrizko lekuaren gaineko ekarpenak egin zituzten atarietako arduradunei telefonoz deituko diete, behin betiko kokalekuaren berri emateko. Dei hori jasoko dute aldatetaren bat izango duten bebarruek.

lu eta lau ontzi ipini dituzte. Eta martxan ipiniko dituzten guneen artean familia gutxien izango duena Ugarkaldekoa da. Udalak emandako datuen arabera, 34k egin dute konposta egiteko eskaera. Gune horretan 20 konposta-

Murgialdai baserriko txakolina aurkeztuko dute domeka eguerdian gaztelekuan, 12:30ean

Murgialdai izenarekin merkaturatu duten lehen txakolinaren aurkezpena egingo dute domekan gaztelekuan, 12:30ean. 2008. urtean hasi ziren Murgialdai baserrian mahatsa sartzen, eta azken hiruzpalau urteetan batutakoa Getariako txakolindegietan saldu dute. Aurtun, baina, bertako txakolina egin dute etxeko mahatsarekin. Probatzeaz gain, txakolinaren prozesua nolakoa izan den ere ikusi ahal izango da aurkezpenean. Herriko dendetan ere erosi ahal izango da Murgialdai txakolina.

Apirileko azken egubakoitza izanda, presoen eskubideak aldarrikatzeko batuko dira gaur plazan

Hileko azken egubakoitzetan egin ohi duten moduan, gaurko ere elkarretaratzea deitu dute presoen eskubideen alde. 20:00etan izango da kale agerraldia, Foruen plazan. Azken egubakoitzetako aldarrikapenetan, herriko eragile ezberdinek agertu ohi diete babes presoen eta haien senideei. Gaur, Oñatiko Emakume Asanbladaren eskutik egingo dute aldarrikapen hori. Bestalde, maiatzaren 18an, giza katea egingo dute preso eta iheslarien etxeratzea eskatzeko.

Arantzazun ikasi zutenek bazkaria eta egun osoko ospakizuna egingo dute maiatzaren 5ean

Aurtengo Arantzazu eguna seminarioko ikasle ohiei eskainitakoa izango da. *Nik Arantzazun ikasi nuen* lelopean egingo dute jaialdia, maiatzaren 5ean, eta ikasle ohi asko batzea gura dute antolatzaileek, Arantzazuko Adiskideak elkarteak eta Arantzazu Gaur fundazioak. Besteak beste, bazkaria egingo dute Arantzazuko Santutegia hotelean, eta joan gura duenak 30 euro sartu behar ditu hilaren 30a aurretik Euskadiko Kutxan zabaldu duten kontu korrante honetan: 3035 0170 54 1701019652.

Txiki Txokok beste gela bat izango du

Irailean hasiko dituzte handitze lanak, eta urtarrilean sartuko diren umeek estreinatuko dituzte

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Txixi Txoko haurreskola txiki gelditu da, eta handitu egingo dute. Datorren urtarriletik aurrera gela bat gehiago izango du, eta, beraz, ume gehiagorendako tokia izango da.

Lau gela

Txiki Txokoren bi zatiak lotzen dituen espazio irekian egingo dute gela berria. "Espazio hori itxi egingo dute, eta hemen egongo da eraikiko den zati berria. Egund, hiru gela ditugu eta gero, lau izango ditugu. Horietako bi espazio berri horretan egongo dira eta beste biak, orain artekoan", azaldu du Lourdes Arregi hezitzaileak. "Zati berri horretatik, gainera, zuzenean atera ahal izango gara berdeguna", gaineratu du.

Handitze lanak irailean hasiko dituzte, eta urtarrilerako bukatzea da helburua. "Lan horiekin batera, orain arteko zatia berrantolatu egingo dugu. Abuztuaren barruko berrantolatze lanak egingo dituzte, eta bukatuta egongo dira irailerako, lanean hasten garenerako. Eta irailean hasiko dira espazio berri hori egiten. Urtarrilean etorriko diren umeek estreinatuko dute", argitu du Arregik.

Udala eta Partzuergoa

Txiki Txoko Partzuergokoa da, baina Udalarik dagokio mantentze-lanak eta obrak egitea. Partzuergoaren ardura da, berriz, instalazioak janztea eta hor egingo diren ume eta hezitzaileen kopurua eta haien lan baldintzak zehaztea.

Haurreskolaren egoera eza-gututa, Udalak Partzuergoekin aztertu zuen arazoa, eta gela berri bat egiteko eskaera egin. Hasiera batean, aurten horrelakorik egitea zaila izango zen erantzuna jaso zuen Udalak, baina, duela gutxi, arazo hori berraztertze bilera egiteko eskaera egin zion



Olakua auzoan dago Txiki Txoko haurreskola. | O.E.

Hiru gela izatetik lau gela edukitzera pasako da

Zati biak lotzen dituen espazio librean egingo dute gela berria

Partzuergoak. Gasteizko haurreskolatan egin den berrantolaketaren ondorioz, Partzuergoak hainbat plaza berri eskaintzeko aukera ikusi du, eta Oñatitik jasota zuen eskaria kontuan hartuta, handitze lanak aurten egitea

proposatu zion Udalarik. Udalak 2013ko aurrekontuetan ez zuen horrelako lanik egiteko dirurik gorde, baina beharrezkoa den dirua 2012ko aurrekontuen sobrakinetatik bideratzea erabaki du. Udalak Isabel Gordoa arkitektoari eskatu dio proiektua; maiatz amaierarako bukatu behar du.

Ume gehiagorendako tokia

33 ume eta zortzi hezitzaile dade Txiki Txokon. Zero eta urtebeteko gela bat eta urtebetetik bi urte artekoen bi gela izatetik bina gela izatera pasako da gero Txiki Txoko. "Joan den udaberrian, esaterako, bete egin zen plaza kopurua, eta irailean ezin izan genuen haur gehiagorik hartu, eskariak egon arren. Gela berri batekin, ume gehiago hartu ahal izango ditugu", azaldu du Itsaso Galdos hezitzaileak.

Gela berriak zenbat ume gehiago hartuko dituen zehaztea, baina, zaila da. "Ratioek agintzen dute 0-1 gela bakoitzeko zortzi ume egon behar dutela, gehienez, eta 1-2 urteko geletan, berriz, 13. Taldekatzeak egitea tokatuz gero, 10eko taldeak izan behar dira. Kopuru horiek jarrita daude, horrela izan behar dira eta ratioek erabakitzen dute zenbat ume har ditzakegun", zehaztu du Itsaso Galdos.

Matrikulazioa

Irailean hasiko diren umeen matrikulazioa maiatzaren 2tik 13ra izango da. Maiatzaren 8a aurretik jaiotzen direnek derrigorrean eman behar dute izena 13a aurretik. Baina maiatzaren 9tik ekainaren 7ra bitartean jaiotzen diren Txiki Txokon irailean hasi gura dutenek ekainaren 11 arte egin dezakete matrikula.

Beteranoen txapelketako finalerdiak bihar

M.B. | OÑATI

Herriko futbol txapelketa azken txanpan sartu da. Aste bukaeran liga txapelketako finalerdiak jokatuko dituzte eta hurrengoan, ligako eta kopako finalak eta ligako hirugarren eta laugarren postuak erabakitzekeko partidua. Guztiak Azkoagainen jokatuko dituzte.

Aste bukaera honetan, zapatuan, bi partidu egongo dira: 13:00etan Sasquatch eta Joxelyk jokatuko dute; eta 14:30ean, Doolygans eta Zorroberok. Arduradun lanak Bundeswher taldeak egingo ditu. Bi lehietak irabazleek final handia jokatu dute hurrengo asteko zapatuan.

Herriko futbol txapelketa 2012-13 denboraldian 18 taldek parte hartu dute, bederatzita taldeko bi multzotan.

Kokein eta Anai Arrebak taldeak gaztelekuan

M.B. | OÑATI

Kokein eta Anai Arrebak taldeek kontzertua egingo dute gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 22:30ean. Sarrerak sei eurotan, leihatilan.

Anai Arrebak taldea orain dela urtebete sortu zen, baina musikari veteranoek osatzen dute. Askotariko kontzertuak egin dituzte eta lau kantuz osatutako diskoa kaleratu dute. Aldiz, Kokein taldea bueltan da isilaldi luze baten ondoren. Martxoan kaleratu zuten *Izan* diskoaren kantuak aurkeztuko dituzte.

Berdinketaren aldeko lasterketaren III. aldia

Bikote mistoetan edo bakarka egin daiteke proba: gaur, egubakoitza, 19:30ean, Enpresagintzatik

M.B. | OÑATI

Berdintasunaren aldeko Berdintxiketan lasterketa jokatu dute gaur, egubakoitza, hirugarren aldiz. Hain zuzen ere, Enpresagintza fakultatetik irtengo dira parte-hartzaileak, 19:30ean. Bikote mistoetan edo bakarka egin daiteke proba.

Lasterketa hasi aurretik egin ahal izango da inskripzioa. Dorsalak Enpresagintza fakultatearen sarreran banatuko dituzte. Parte-hartzaileei kamiseta bana emango diete opari.

Bikotea parte hartzen dutenek 14 euro ordaindu behar dute eta bakarkako korrikalariek, berriz, zazpi euro.

Bost kilometroko ibilbidea

Berdintxiketan lasterketaren ibilbideak bost kilometro ditu. Korrikalariek 2,5 kilometroko ibilbideari bi itzuli egin beharko dizkiote. Enpresagintza fakultatean hasi eta Foru plazan bukatuko da, honako ibilbide honekin: Enpresagintza, Unibertsitate etorbidea, Foru plaza, Atzeko



lazko Berdintxiketan lasterketako parte-hartzaileetako batzuk. | GOIENA

kalea, Kale Barria, Apaolaza kalea, Kurtzebidet, Moia kalea, Errekalde, Mendiko kale, Santa Marina, Patruet kale, Kale Barria, Kale Zaharra, Lizaur, Unibertsitate etorbidea, Foru plaza.

Berdintasun taldea

Lasterketa Enpresagintzako Berdintasun Taldeak antolatu du. Kirol esparruan berdintasunaren aldeko urratsa egiten dute urtero lasterketarekin.

Gazte Danbada 2.0 jaialdia egingo dute Antixenan

M.B. | OÑATI

Urduñako Gazte Danbadak izandako arrakasta ikusita, Gazte Danbada 2.0 jaialdia egingo dute bihar Antixena gaztetxean. "Egitarau xumea" prestatu dutela diote antolatzaileek. Xumea baina egun osorako egitaraua: 13:00etan, herri poteoa egingo dute eta 15:00etan bazkaltzeko elkartuko dira. Eguna borobiltzeko, 21:30ean, kontzertua egingo dute Ernaik antolatuta. Antixenan egingo den bazkarira joan gura dutenek, gaztetxean bertan erosi beharko dituzte txartelak bost eurotan.

'Flashmob'-a egin dute liburutegian, Ganbarako kideekin

Liburuaren Eguna ospatzeaz gain, liburutegian musika ere sartzen dela erakutsi gura izan zuten

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Martitzenean, Liburuaren Nazioarteko Egunean, *flashmob*-a egin zuten liburutegian. Iragarri gabeko ekitaldia izan zen, eta ezustean harrapatu zituen momentu hartan Udal Liburutegian zeuden herritarrek. "Sorpresa izatea gura genuen, eta isilean izan genuen egunera arte. Polita izan zen herritarren erreakzioak, aurpei-

giak, ikustea. Gustatu zitzaizela esan ziguten gero", kontatu du Arantzazu Ibarrondok, liburutegiko arduradunak.

Ganbareekin

Valladolideko liburutegitik hartu zuten ideia. "Liburuaren Eguna eta liburutegiaren 10. urteurrena lotuz, zerbait prestatu gura genuen apirilaren 23rako, eta



Martitzen iluntzean egin zuten *flashmob*-a liburutegian. | IBAN MORALES

Valladolideko liburutegian egin zuten *flashmob*-aren ideia gustatu zitzaizun. Debagoieneko liburutegietan, gainera, ez da horrelakorik egin. Ganbareekin jarri ginen harremanetan, eta baiezkoa

eman ziguten. Berez joan da dena", kontatu du Ibarrondok.

Martitzenean, beraz, Ganbara abesbatzako 22 lagun joan ziren liburutegira 19:00etarako, eta, ordua heldu zenean, kantuan hasi ziren,

bat-batean, eta han zeudenengan harridura sortu zuten. "Aspaldiko kantua bat berreskuratu genuen ekitaldi horretarako, *Short people*", argitu du Ganbarako zuzendari Aitor Biainek.

Musika sartu liburutegian

Liburuaren Eguna eta liburutegiaren urteurrena ospatzeaz gain, beste helburu bat ere izan du *flashmob* ekitaldiak: beste euskarri batzuk ere sartzea liburutegian. "Liburuak bakarrik ez, musika ere badugu, eta hori ere sartu gura dugu, poliki-poliki, liburutegian. Gaur, esaterako, Anduaga eta Untzillaren kontzertua dugu, 19:00etan, eta musika sartzeko beste modu bat da. Gainera, herriko talde batekin egin dugun elkarlana ere izan da *flashmob*-a, eta hori ere garrantzitsua da guretako", aitortu du Arantzazu Ibarrondok.

Bernabe Belategi | Olabarrietako auzotarra

"Frontoiko bankupera eramaten nuen pilota, tantoa egiteko"

Maiatzaren 1ean omenaldia jasoko du Olabartan, pilotan egindako lanagatik

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Binakako pilota txapelketa antolatuta dute aurten, lehenengo aldiz, Olabarrietako jaietan. Zortzi bikote apuntatu dira. Maiatzaren 1ean jokatuko dituzte finalak, eta Bernabe Belategi omenduko dute partiduen ostean. Pilotan jokatzeko gogoratzeko dute auzotar askok Tirueneko Belategi.

Sorpresaz hartu ei duzu omenaldia egingo dizuten notizia.

Bai. Auzoko gehienek oraindik pilotan ikusten nautilako izango dela pentsatzen dut; zergatik, bestela?

Sarri jokatu duzu, baina, pilotan.

Hori izan da nire jolasa eta afizioa, bai. Umetan eta gaztetan, pilotan jokatzera joaten nintzen auzoko frontoira, libre nuen guztietan. Gogoan dut nolako inbidia pasatzen nuen belarretan edo ganadu zain nengoela frontoian pilota hotsak entzuten nituenean.

Auzoko elizapeko frontoian aritzen zinen?

Bai, makina bat aldiz jokatu dut han, ahal nuen aldiro. Eta sekula ez dut praka zuririk jantzi, pentsa. Eta oinetakoak ere, aldean nituenekin, alpagatekin gehienetan.

Nolako pilotak zenituzten?

Geuk egindakoak. Amari kendutako artilearekin egiten genituen batzuk. Motel samarrak ziren. Beste batzuetan, aldiz, goma sartzen genion barruan; sake handia zuten haiek.

Norekin jokatzeko zenuen?

Beti zegoen norbait frontoian. Urte askoan jokatu dut nik, eta, sarri, ni baino gazteekin ibili naiz. Auzoko mutiko guztiekin ibiliko nintzen, seguruenik. Batzuetan asko elkartzeko ginen, eta tantoa galtzen zuena kanporatuz jokatzeko genuen, onen biak gelditu arte.



Bernabe Belategi elizapean, frontoia atzean duela. | O.E.

JAIETAKO EGITARAUA

APIRILAK 27

17:00 Haurrendako jolasak.

21:00 Auzo afaria.

APIRILAK 28

10:30 Bizikleta martxa.

12:00 Oñatzen dantzak.

13:00 Herri kirolak.

APIRILAK 30

22:00 Erromeria.

MAIATZAK 1

11:00 Meza.

12:00 Pilotako finalak.

13:00 Luncha.

17:00 Mus txapelketa

Bestetan, berriz, binako edo lanak taldeak egiten genituen, eta zenbaitetan, bat biren kontra ere bai. Denetarik.

Zein zen zure teknika?

Elizapean bankuak egoten ziren lehen ere, eta pilota banku azpira eramaten saiatzen nintzen, tantoa egiteko. Ateak ere burdinazko punta batzuk zituen, eta han joz gero aide joaten zen.

Partiduak ikustera ere joaten zinen?

Corpus jaietan partidu onak egoten ziren Oñatiko plazan dagoen frontoian. Itxi egiten zuten, eta nik beti zirrikituen bat topatzen nuen partidua ikusteko.

Profesional mailan jokatu duzu sekula?

Ez, ez. Gure anaia Eufraziok, ordea, bai. Espainiako txapelketa izan zen hura afizionatuen mailan. Zaletasuna izan dugu etxean, bai. Orain ere jarraitzen dut pilota telebista bidez.

Ez zen pilotari onik Olabarrietako mutikoen artean?

Denetarik zegoen, baina orduan bestelako lanak ere izaten ziren, jolasa zen hura guretako.

Ikasleek idatzitako ipuinen liburu-DVDa atera du Urgainek

TXOMIN MADINA | OÑATI

Komunikabideen eta herritarren aurrean aurkeztu du aste honetan Urgainek eskolako ikasleek idatzitako ipuinak jasotzen dituen *Nax eta bere laguntzaileak* izeneko liburua. DVDa ere badu, eta bertan, liburuko hamar ipuin kontatzen dira keinu hizkuntzan.

Tartekiaxxxx

Nax eta bere laguntzaileak da liburuaren izena eta bertan 26 ipuin daude; horietako 24 Lehen Hezkuntzako lagunen mailako neska-mutikoen egindakoak dira. Euren irudimenetik era guztietako ipuinak irten dira: batzuek fantasia dute oinarri, beste

batzuek futbola eta baserriko kontuak, esaterako. "Irakurri ohi dituzten fantasiako liburuen antzerako ipuinak idatzi dituzte batzuek; beste batzuek, aldiz, euren egunerokotasunarekin lotutakoak. Robotik eta horrelakorik, baina, ez da liburuan", dio ekimenaren bultzaleetako bat izan den Ane Aizpeurrutia irakasleak.

Produktua Txandako dendetan jarriko dute laster salgai. Gainera, maiatzaren 11rako ekimen bat prestatzen dabilta: neska-mutikoen eurek idatzitako ipuinak kontatu eta antzetzeko dituzte kalean, herriko hainbat puntutan. Txandarekin egingo dute hori ere.



Nax eta bere laguntzaileak liburu-DVDa. | T.M.

Irakasle onen beharra aldarrikatu dute Elkar Heziko ikasleek

Hezkuntzaren Aldeko Mundu Kanpainarekin bat egin du aurten ere Elkar Hezik. Atzo, hilak 25, ospatu zuten eguna eta *Irakaslerik gabe, eskolarik ez* izan da aurtengo leloa. Mailaz maila jarduerak antolatuta dituzte, eta, behin ondorioak aterata, Santa Marina-ko plazako iturrian eskegi zituzten.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots ikusteko sarrerak, agortuta

Di-da baten saldu ditu Txantxiku Ikastolako Pirritx, Porrotx eta Marimotots ikusteko sarrerak. 1.050 atera dituzte, kiroldegiko kantxako aforoak ahalbideratzen dituen beste, eta denak saldu dituzte; gehienak, lehen bi egunetan. Maiatzaren 4an etorriko dira pailazo horiek Zubikoara, Txantxiku Ikastolaren egunera.

Dendaz denda kartoia batzeko triziklo elektrikoa

Antzuolan hondakin guztiak trizikloarekin batzeko proba egingo dute laster

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Debagoieneko Mankomunitateak Evolo enpresak diseinatutako triziklo elektrikoa aurkeztu zuen eguzten goizean Bergaran. Proba pilotua egingo dute astebetean Bergaran, kartoi komertziala trizikloarekin batzeko dendarik denda. Triziklo berak beste probaldi bat ere egingo du aste batzuk barru Antzuolan. Kasu horretan, Mankomunitatearen asmoa da triziklo berak Antzuola osoko hondakin guztiak batzea.

Bilketa jasagarriagoa

Mankomunitatearen helburua bikoitza da: hondakin bilketa jasagarriagoa izatea eta CO2 isurketak murriztea, eta Bergararen kasuan, kartoia ordu luzez kalean ez egotea. "Kartoia gauez jasotzen da. Dendariek 20:00etan ateratzen dute, baina batzuetan ezinezkoa izaten da gauean bilketa amaitzea. Eurria egiten badu edo haizea badabil, herri osora zabaltzen dira kartoiok, eta itxura eskasa eman", adierazi zuen Mankomunitateko Ingurumen arduradun Josu Peredak.



Mankomunitateko eta Evolo enpresako ordezkariak aurkezpenean. | A. BARRUSO

Edukiontzia estrategikoak

Hortaz, astebetean, kartoi komertzialaren bilketa goizetan egingo da Bergaran, komertzioz komertzio. Bilketa dendak zabalik dardela egingo da; beraz, dendariek, hala nahi izanez gero, zuzenean eman ahal izango diote kartoia biltzaileari. Goiza, beharbada, ez da nahikoa izango bilketa guztia egiteko, eta arratsaldean ere lanean

jarraitu beharko du. Horrelako xehetasunak dira Mankomunitateak probaldi horrekin aztertu nahi dituenak.

Trizikloak batutako kartoia leku estrategikoetan kokatutako edukiontzietara eramango da. "Trizikloak, bete ahala, edukiontzia horietara eramango du kartoia eta biltzarekin jarraitu. Ondoren, kamioi batek batuko du edukion-

tzi horietan utzitako kartoia", azaldu du Peredak.

Bergaratik Antzuolara

Bergarako proba pilotua bukatuta, Antzuolan hasiko du beste probaldi bat trizikloak. Kasu horretan, Mankomunitatearen asmoa da frakzio guztiak batzea trizikloarekin.

Mankomunitateak uste du hiru ordu inguruan triziklo bakarrak Antzuola osoko hondakin guztiak batu ditzakeela. Hemen ere edukiontzia ipiniko dira leku estrategikoetan, eta ondoren, kamioi batek ordu erdian batuko luke edukiontzia horietan jasotakoa. Gaur egun kamioiak lau ordu inguru behar izaten ditu herri guztia batzeko.

Antzuolako proba pilotuak emaitza onak emanez gero, Debagoieneko beste herri batzuetarako ere erabilgarri ikusten du Mankomunitateak trizikloaren sistema: "Bergaran, esaterako, Balu auzoan kamioiak arazoak izaten ditu kale batzuetara sarzteko. Horrelako kasuetarako irtenbidea izan daiteke".

500 euroko kontsumoa

Trizikloak 2.000 litroko kapazitatea dauka, 250 kilo garraiatu ditzake eta kontsumo gastua urtebetean 500 eurokoa izango litzateke. Gasolioan ere aurrezpen handia suposatuko lukeela adierazi zuen Peredak. Evolo enpresa modulu malgua diseinatzeko ahalgintza du hondakin mota guztiak garraiatu ahal izateko.

Bakailao lehiaketako izen-emate epea zabalik

A.B. | BERGARA

Pentekoste jaietako zapatuan, maiatzak 18, egingo da bakailao lehiaketa, goizez, San Martin plazako arkupeetan. Bergarako gastronomia elkarteei zuzendutako lehiaketa da, baina elkarte bakoitzetik talde bakarrak eman ahal izango du izena; talde bakoitzak bi pertsonaz osatuta egon beharko du.

Maiatzaren 6a da izena emateko azkenengo eguna eta interesa dutenek kultura etxera jo beharko dute, edo 943 77 91 59 zenbakira deitu. Hain justu ere, parte-hartzaileek kultura etxean jaso beharko dituzte lurrezko kazuela eta 110 euroko dieta maiatzaren 13tik 16ra bitartean.

11:00etan herriko plazan

Lehiaketako parte-hartzaileek 11:00etan agertu beharko dute San Martin plazan eta bakailaoa 12:45ean entregatu. Sari banaketa, bestetik, 13:30ean izango da San Martin plazan bertan. Epaimahaiko kideak Udalak izendatuko ditu eta haien erabakia apelaezina izango da.

Elorregi auzoan jaiak ospatuko dituzte aste bukaera honetan

A.B. | BERGARA

Elorregi auzoan San Prudentzio jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran. Gaur hasi eta domekara arte festa giroa topatuko dute bertara gerturatzen diren guztiak.

Afaria, bazkaria, partiduak

Txopo jasotzearekin, kanpai hotsekin eta etxafuegoekin, 18:00etan hasiko dira gaur Elorregi auzoan San Prudentzio jaiak. Parrandarekin, gero, auzoko elkarteetan jarraituko dute, lagun arteko afaria egingo dute eta han.

Zapatuan ez da biharamunerako astirik izango. 14:00etan auzoko bazkaria egingo dute Alkartasuna elkarteetan, eta ondo girotutako bazkaria izango da, gainera: bertsolariak eta trikitilariak egingo dira. Zapatu gauean, bestetik, dantzarako aukera izango da elkarteetan bertan: 22:30ean erromeria hasiko da.

Domekan 13:00etan meza egongo da eta Alai taldeak abestuko du bertan. Ondoren, pilota partiduak egingo dira auzoko pilotalekuan. Salda eta txorizoa banatuko dituzte.



Pol Poleko beteranoak Yoar de Codes inguruan

Urteko hirugarren irteera egin zuten pasa den domekan Pol Poleko beteranoek. 08:00etan 60 lagun inguru elkartu ziren frontoian eta Yoar de Codes herrirantz abiatu ziren. 19 kilometroko ibilbide egin zuten Yoar de Codestik Kanpezura eta tartean Yoar mendia igo zuten (1.400 metro). Hurrengo irteera maiatzaren 12an egingo dute; Ortigosa de Cameros eta Vinięra de Abajo herrien arteko ibilbidea egiteko, Errioxan.



ARKAUZ
ARETXABALETA



ARKAUZ
COCINA INTEGRAL
ARETXABALETA **FAGOR**
banatzaile ofiziala

GRUPO ARKAUZ
ARETXABALETA 1950-2013 ARRASATE

60 urte baino gehiago

Arkauz zure etxea da.

ETXE MOBEL
ARRASATE



ARKAUZ
ELECTRODOMESTICOS
ARETXABALETA **expert**
banatzaile ofiziala



'Bi bala' ikuskizuna Egubakoitzak Kartzelan berriro abiarazteko

A.B. | BERGARA

Gaur hasiko da aurtengo Egubakoitzak Kartzelan egitasmoa Bergarako gaztetxean. Aitzol Barandiaranek, Iñaki Gurrutxagak eta Julen Goikoetxeak *Bi bala* ikuskizuna eskainiko dute, estreinakoz, 22:30ean, gaztetxean.

Bertso musikatuak

Barandiaranek, Gurrutxagak eta Goikoetxeak bertso-jarri musikatuak eskainiko dituzte. Umorea eta kritika politikoa izango du emanaldiak, bertso musikatueta ohikoak ez diren doinuak erabilia. RIP, EH Sukarra eta The Beatlesen abestiak entzun ahal izango dira,

bertso moldera ekarrita. Emanaldi honen jatorria Gurrutxaga eta Barandiaran bertsolariak azken Bertso Egunean egindako *Ze krisi* saio arrakastatsuan dago.

Beste lau emanaldi

Egubakoitzak Kartzelan egitasmo lehenengo emanaldi izango da gaur, baina beste lau egongo dira. Maiatzaren 3an, Okene Abrego, Mariano Hurtado eta Buteflai igoko dira taula gainera; maiatzaren 10ean Iñigo Cabezafuego eta Joseba B. Lenoir; maiatzaren 24an Naiara Legardon eta Manett; eta maiatzaren 31an Morau eta Aguxtin Alkhat.

Ernaik "hondakinen gaiak hartu duen norabide politiko interesatua" salatu du

M.B. | BERGARA

Bergarako Ernaik bidalitako oharrean gehitzen du, bestalde, "E.A.Jk eta hauek osaturiko Bergara Garbia plataformaren erasoek" kezka sortzen dietela, eta "zaborren inguruko eztabaida alde batera laga eta herrian gertatzen ari den borroka politiko hutsak haserretu".

Udal Gobernuaren kasuan, Ernaik salatu egin ditu "atez atekoa ezartzeko bidean izaten ari diren aldaketak, tartean dataren atzeratzea". Eta ez daude ados ontzi eta paperaren edukiontzia ez kentzearekin, "zero zabor" filosofiaren bidean atzerapausoa delako. Zero Zabor taldearen lana goraiatu egin dute.

Erraldoi txikien taldea sortu nahi dute

Erraldoi Taldeak ate irekien jardunaldia egingo du maiatzaren 1ean Zabalotegiko pilotalekuan

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Arrasaten eta beste zenbait herri-tan daukaten moduan, Bergarako Erraldoi Taldeak ere umeen taldea osatu nahi du. Bada, horretarako eta herriko txikitxoak erraldoien mundura gerturatze-ko, ate irekien jardunaldia egitea erabaki dute. Maiatzaren 1ean izango da, 11:00etan, Zabalotegiko pilotalekuan.

Elhuyar anaiak

Taldea osatzeaz gain, erraldoi txikiak ere beharko dituzte. Bada, azken asteotan bi erraldoi txiki egiten dabilta eta izena ere erabaki dute dagoeneko: Elhuyar anaiak izango dira, bi metro neurtzen dute eta zortzi kilo pisatu. "Argi geneukan Bergararen historiarekin lotutako izenak izan behar zutela, eta horrela sortu zen Elhuyar anaien ideia", adierazi digu Erraldoi Taldeko Ibon Unamunok.

Bi erraldoi berri horiez gain beste bi ere eginak dituzte dagoeneko. Hain justu, Jon Errasti bergarar gaztetxoak eginak. Guztira, beraz, eta oraingo, lau erraldoi txikirekin hasiko du



Erraldoiak jaietan. | GOIENA

ibilbidea gaztetxoek taldeak. Bada, maiatzaren 1eko ekitaldira joaten diren neska-mutikoen erraldoiak ikusi eta dantzak probatzeko aukera izango dute.

Asmoa da txikitxoek taldearen estreinaldia Pentekoste jaietan izatea.

Equok hitzaldia egingo du astelehenean kultura etxean

Equok antolatuta hitzaldia egingo da astelehenean, hilak 29, kultura etxean. Aitor Urrestik frackingaren inguruan hitz egingo du eta Iñigo Agirrek -Mutrikuko zinegotzia-, berriaz, Mutrikuko kirol-portuak eragindako kalteen inguruan. 19:30ean hasiko da hitzaldia.

Ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko epea zabalik dago

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea maiatzaren 17an bukatuko da. Egun horretatik aurrera erreargua eskatuko da. Helbideratutako erreziiboak maiatzaren 17an kobratuko dira.

1949an jaiotakoek kintada egingo dute maiatzaren 11n

14:00etan elkartuko dira Oxirondoko azokan eta urbanoan joango dira Tartufora. Izena emateko 30 euro sartu behar dira ondorengo kontuan: 3035 0009 10 0091143369 (Kutxa). Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu 670 46 13 72 zenbakira (Pili Gisasola).

Mirari

Ibargarai 14 - Martoko 34
BERGARA
Tel.: 943 76 23 93

Etor zaitez,
gure Ibargaraiako
denda berrian
dugun eskaintza
zabala ikustera!

EAJ: "Hondakinen gaian akordioak lortzeko unea da"

Alkateari erantzunak eskatu dizkiote eta gaineratu dute, errekurso bat tarteko, "bailara osoan atez atekoarekin lotutako plan guztiak geld" daudela

G.A./M.B. | BERGARA

EAJren Udal taldeak alkateari "zabor bilketa sistemaren inguruan herriak erakutsi duen oposizioari erantzuna emateko", eskatu zion atzo egindako agerraldian. Aintzane Oiarbidek esan zuenez, "urtebete pasa da 4.700 bergarrek atez atekoaren kontra eta 5. edukiontzia aldeko eskaria sinatu zutela; balkoiak poltsaz beteta daude Udal gobernuaren erabakiaren kontra eta duela bi aste kaleak milaka bergarrez bete ziren atez atekoaren aurkako manifestazioan". Hala, esan zuen bergarrek ez dutela "Bilduren inposaketa onartuko" eta gehitu zuen: "Bada garaia alkateak, herriari, auzi honi buruzko erantzun bat emateko".

EAJren iritziz, Udal Gobernu taldeak duela bi aste aurkeztutako "atez ateko eredu" ez da adostua, saldu nahi izan duten bezala, inposatua, baizik".

"Adjudikazioa, errekurrituta"

Oiarbidek esan zuenez, errekurso bat tarteko, bailara osoan



Oiarbide eta Barrena batzokian. | G.A.

atez atekoarekin lotutako plan guztiak geldirik daude: "Bildu isilik dago azken asteetan, baina ez gogoeta egiten ari delako, bilketarako lehiaketa adjudikazioa errekurrituta dagoelako baizik. Lehiaketara aurkeztutako enpresa batek errekurritu egin du adjudikazio hori eta, ondorioz, atez atekoaren planak geldituta daude, behartu egin dituztelako", esan zuen.

Mankomunitatean galdetuta, azaldu digute momentuz ez dutela ezer esateko. Bergarako EAJk, bere aldetik dio "alkateak orainxe" duela momentua "honen guztiaren inguruan gogoeta egin eta bergararren gehiengoak eskatzen duen 5. edukiontzia irabazteko emateko".

Adjudikazioa, errekurrituta

Martitzenean, Elgetan hartutako erabakiari erreferentzia eginez "bailara honetan gauzak beste modu batean egitea posible" dela ere esan zuen EAJko Udal taldearen ordezkariak eta "akordioak lortzeko garaia" dela gaineratu zuen. "Hori da bidea", azpimarratu zuen Oiarbidek, eta horren aurrean galdera hauek ere luzatu zituen: "Zeren zain dago Bergarako alkatea? Legazpin egin den galdeketa Bergaran egiteko zain?"

Astelehenean, hilak 29, osoko bilkura dago eta galdera horiek guztiak han egingo dituztela ere aurreratu zuen, "alkateak erantzun ditzan".

Bilera informatiboa eta batzar irekia egingo dituzte astelehenean, hilaren 29an, Ipintza institutuan

Batxilergorako matrikula egiteko epea zabalik dagoela eta, astelehenean, hilaren 29an, 2013-2014 ikasturtean Ipintza institutuan batxilergoa egin behar duten ikasleen gurasoendako batzarra deitu dute. 18:30ean izango da, institutuko areto nagusiak. Batzarra eta gero, ikastetxea ezagutzeko aukera ere izango dute bertaraten direnek.

Benito Lertxundi abeslari ezagunak kontzertua egingo du maiatzaren 4an Udal pilotalekuan

Abeslari oriotarrak *Oroimenaren oraina* lan berriko lanak aurkeztera etorriko da. Hamar abestik osatzen dute eta horietan "giro intimista eta ilunabarrekoa gailentzen da", Lertxundiren beraren esanetan. Kontzertua Udal pilotalekuan izango da, 21:00etan eta sarrerak kultura etxean eros daitezke dagoeneko, 20 eurotan. Leihatilan ere salduko dituzte emanaldiaren egunean.

Musika emanaldi gehiago egingo dira gaur eta bihar, 'Apirilean Musika' egitarauaren barruan

Gaur, egubakoitza, *Barroko airean* izeneko organo emanaldia egingo da 17:00etan, Sierbetan; 18:00etan, txistu, trikiti eta saxofoi ikasleek emanaldia egingo dute, Zabalotegin; eta 19:30ean, flauta ikasleek *Ni naiz* ipuina eskainiko dute Zabalotegin. Bihar, zapatua, berriz, bailarako Musika Eskolek Oñatin egingo duten topaketara (10:00) joango dira Bergarako Musika Eskolako zenbait talde.

'Fenix 1123' filma emango dute bihar Zabalotegin, eta istorioaren protagonista bertan egingo da

Fenix 1123 filma ikusteko aukera egingo da bihar, zapatua, 18:00etan, Zabalotegi aretoan. Eric Bertran kataluniarrari, 2004an, 14 urte zituela gertatutakoa kontatzen du: terrorista informatikoa izatea leporatu zioten, supermerkatu kate batera mezu elektronikoa bidaltzeagatik etiketatzea katalanez egiteko eskatuz. Bertan bera Zabalotegin egingo da, filmaren ostean azalpenak emateko.

Promociones
Erregetxo Plaza
Bergara



Bergarako hirigune historikoan
63 etxebizitza, libre, tasatu,
BOE, garaje eta lokalak

INFORMAZIO ETA SALMENTA:

ORTELBAR, S.L.: 943 76 11 18
LOTZEN, S.L.: 943 76 11 23

GARAIZ ZABILTZA!

Bergarako hirigune historikoan
2, 3 logelako etxebizitzak.

- ✓ Lehenengo mailako materialak
- ✓ Sukalde ekipatuak, logela armairuak

BEREHALA etxebizitza TASATU
eta BOE-etarako zerrendetan
izena emateko epea irekiko da.

Gure web orrian ere agertuko da
informazio guztia.

www.promocioneserregetxoplaza.com



Jokalariaren abilezia probatzen duen joko berria aurkeztu dute

Z.V.D.M. | ARETXABALETA
Herrian egindako joko bat aurkeztu zuten astelehenean Aretxabaletan. Bertikal izena dauka, eta heldu zein gazteei dago zuzenduta. Zilindro formako labirinto bat, bolatxo bat eta jokalariaren abilezia; horietatik dira Bertikal izeneko jokoak dituen ezaugarrietariko batzuk.

Dadga tabernan egin zuten aurkezpena eta Ainhoa Sanchez herritar ezagunak gidatu zuen saioa. Bada, jende ugari batu zen aurkezpeneari.

"Herrian eta herritar batzuek egindako joko bat da eta horrek balioa ematen dio. Nik probatu dut, eta dirudiena baino zailagoa da amaierara

iristea", adierazi zuen Sanchezek.

Lehiaketa, maiatzean

Aurkezpenaren azaldu zutenez, lehenengo Bertikal lehiaketa egingo dute maiatzaren 7an, 9an, 14an, 16an, 19an eta 21ean Dagda tabernan bertan.

"Euro baten truke eman daiteke izena maiatzaren 5era arte". Jasotako dirua, ziurrenik, gobernuz kanpoko erakunderen bati emateko izango dela eman zuten aditzera. "Finala maiatzaren 28an izango da, eta 700 euro daude jokoan".

Gainera, aurkezpenaren amaieran, kanpoaldean joko probatzeko eta erosteko aukera izan zuten guztiek.



Bertikal jokoaren aurkezpen eguna. | Z.V.D.M.

ONCE lehiaketan aurrera jarraitzen dute Almenekoek

Z.V.D.M. | ARETXABALETA
Arizmendi Ikastolako Almeneguneko lau ikasle ONCE erakundearen 29. lehiaketan parte hartzen ari dira. Probintzia mailako kanporaketa pasata, eguaztenez jakin zuten erkidego mailakoa ere igaro zutela. Hala, finalean sartuta, estatu mailako emaitzaren zain daude; maiatzean jakingo dute.

Mezua etorkizunera

Ikus-entzunezko kultura izena duen ikasgaiaren baitan DBHko 15 ikaslek aurkeztu zituzten lanak, baina talde bakarrak jarraitu zuten aurrera, Ariane

Agilerak, Itziar Muruak, Alazne Etxabek eta Eider Altubek, osatutakoak hain zuzen ere.

Denboraren kapsula: etorkizuna eraikitzearen abentura izan da lehiaketako aurtengo leloa, eta Almeneko ordezkariak *Hamar+1* izen goitiarekin hartu dute parte. "Bideo baten bitartez, pertsona elbarrituen normalizazio osoa lortzearen behararen sakondu dute ikasleek", Maite Beitia irakaslearen esanetan. "Ikasleen bideoak ondorengoei bidalitako mezu bat jasotzen du, eta ikasle itsu baten egun bat irudikatuta, hausnarketara bultzatzen du".



Ostalariek, merkatariak eta elkarte gastronomikoetako kideek osatzen duten taldea, astelehenean. | Z.V.D.M.

Informazioa emateko bilerek interesa piztu dute

Hondakinen Mahaiko bi taldek jaso dute aste honetan informazioa Arkupen

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Asteon egin dituzte Hondakinen Mahaia osatzen duten sei taldeetako bik bilera informatiboak Arkupen. Hain zuzen ere, martitzenean izan zen aurrenekoa, eta ostalarien, merkatarien eta elkarte gastronomikoetako kideen txanda izan zen; 15 lagun inguru batu ziren. Atzo, berriz, erretiratuak eta hezkuntza arlokoak elkartu ziren Arkupen Mankomunitateko informatzaileekin.

Arazoa azaldu, zalantzak argitu

Hondakinen arazoaren nondik norakoak azaldu dituzte bileroetan. "Taldea bakoitzak eduki ditzakeen kezka, zalantza eta beste argitzen saiatu dira informatzaileak bileretan". Hala azaldu du Lore Martinezek, Ingurumen zinegotziak, eta gaineratu: "Pozik gaude aurreneko bilera hauek izan duten erantzunarekin".

BILERA INFORMATIBOAK

APIRILAK 30, MARTITZENA

18:30 Zero zabor-en eta 5. edukiontziaaren aldekoak.

MAIATZAK 2, EGUENA

18:30 Industria.

MAIATZAK 7, MARTITZENA

18:30 Landagunea.

MAIATZAK 11, ZAPATUA

11:00 Herritarrek, Ideien Zaparradara aurkeztutakoak eta Udaleko alderdi politikoak.

Bestalde, Olatz Izagirre aritu da herritarrei informazioa ematen, Jon Albizurekin batera. "Gehienbat, hondakinen arazoa azaldu dugu orokortasun batetik begiratuta. Baina beste herri batzuetan jarraituko diren ereduak ere azaldu dizkiegu herritarrei. Hori bai, beti argi utzita Aretxabaletan oraindik ez dagoela ezer erabakita". Izan ere, bigarren fasean (irailtik abendura bitartean) joango dira sistema berriaren zertzeladak zehazten.

Informazio gunea Duranan

Aretxabaletako Udalak, gainera, hondakinei buruzko zalantza eta argitzeko bulego bat ipiniko du Durana kalean. "Noiz irekiko den ezin dugu esan oraindik; izan ere, egokitzapen lanak egiten ari dira". Bitartean, baina, aretxabaletarrek ingurumena@aretxabaleta.net helbidera bidera ditzaizkete euren kezka.



Kurtzebarriko ikasleak Igerabiderek berbetan

Literatur Astea egin dute Kurtzebarrin astean zehar eta Juan Kruz Igerabide idazlearen bisita izan zuten astelehenean. Ikasleek ezusteko eman zioten bertsoa kantatuz eta eskerrak emateko ikus-entzunezkoak. Igerabide liburu berba egin eta poemaren bat ere irakurri zien aidi entzuten zeuden neska-mutiei.

PATXI CASTRO

Era guztietako aukien konponketa

•

Tapizatu lanak

•

Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta

•

Besaulki, mahai, saskiak e.a

943 78 71 65
639 01 69 69

Mobiliario ARENAZA

ALTZARIAK DISEINUA APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Toti Martinez de Lezea | Idazlea

"Argi neukan euskarazko bertsioak ere behar zituztela nire liburuek"

'Baionatik Muskizera, 35 emakume, 35 istorio' berbalda egin zuen eguaztenean Zaraiian

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Liburuaren Egunaren biharamunean egin zuen berbalda Aretxabaletan, *Urak dakarrena* azken liburuen harira.

Kostaldeko 35 emakume dira zure azken liburuko protagonistak. Zer-gatik?

Barnealdeko eta kostaldeko emakumeak berdina dira, baina kostaldekoek urteetan berezitasun bat izan dute, denbora luzea egiten zutela bakarrik. Hau da, haien senarrak, semeak, aitak, anaiak, maitaleak... itsasoan egoten ziren urteko sasoi luzeetan, Ternuan-eta, balearen arrantzan, esaterako.

Historiak ez jaso arren, zeregin garrantzitsua betetzen zuten emakume haiek, ezta?

Bai. Historia kontatu izan dutenek ez dituzte aipatu izan emakume haiek. Eta bakarrik egoten zirenean den-dena atera behar izaten zuten aurrera, ez ziren etxean sartuta geratzen. Sarritan hartzen zuten negozioaren gidaritza, esaterako. Eta duela aste



Martinez de Lezea. | TOTI MARTINEZ DE LEZEA

batzuk Bermeon gertatutako suteen antzekoak jazotzen zirenean, haiek ziren suak itzaltzen zituztenak, haiek berreraikitze lanetan egoten zirenak. Egia da idatzizko dokumentu oso gutxi daudela haiei buruz, baina egon badaude. Nik irakurriak ditut.

Eta horietan oinarritu al zinen liburua idazteko orduan?

Egia esan behar badut, 35 istorioetatik hiru bakarrik daude dokumentuetan oinarrituta. Gai-

nerakoak, herri bakoitzaren nortasunari egokituta, nire irudimenetik sortutakoak dira, asmatutakoak. Batzuetan, istorio tristea kontatzen dut; beste batzuetan, barrez amaitzeko modukoak...

Idazle ibilbidean fikziora jo izan duzu; beste batzuetan, nobela historikora. Non ibiltzen zara erosoan?

Gustura ibiltzen naiz edozein esparrutan. Gura dudana egiten dut momentu bakoitzean. Orain, esaterako, fikzio istorio bat daukat buruan bueltaka.

Zure liburuek hainbat hizkuntzatan irakur daitezke.

Euskaraz, alemanez, ingelesez, portugesez... Egia da nik erdaraz idazten dudala, euskaraz jakin arren ez naizelako gai milaka berba erabiliz liburu bat osatzeko. Dena den, argi neukan euskarazko bertsioak behar zituztela nire liburuek, euskaldun sentitzen bainaiz, nire seme-alabak euskaldunak dira...

Liburuaren Eguna izan da asteon. Nola ikusten duzu egoera?

Badirudi estatistikek diotela irakurtzeko zaletasuna gora doala, batez ere gazteen artean. Eta ez da gutxi, dituzten tramankulu guztiekin-eta. Liburuak erosten ez dituztenak ere, garestiak direla diotenak. Batetik, liburu baten atzean jende asko dagoela esango nieke (idazlea, maketageilea, editorea...). Bestetik, irakurri gura izanez gero, liburutegiak hor daudela, maileguan hartzeko, edo bestela, eskatu norbaiti!

Domekan familian dantza egiteko aukera Jaiki elkartearen eskutik

Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Jaiki elkarteak antolatuta, bi ekintza egingo dituzte domeka honetan Aretxabaletako kuartel zaharrean.

Dantza familian

Urtarrila ezker, guraso eta seme-alabentzako dantza saioak antolatzen ditu hilean behin Jaiki elkarteak. "Ez da gauza berria, duela bi urte zapatuetan egiten genuen, beste irakasle batekin. Saioak berreskuratu gura izan genituen eta urtarri-la ezker domeketan egiten ditugu [hilean behin], Carla Fernandezek gidatuta". Maier Etxebarria Jaikiko kideak azal-

du duenez, "2 eta 6 urte bitarteko haurrei eta haien gurasoei zuzenduta dago ekitaldia" eta orain arte "oso ongi funtzionatu" dutela adierazi du.

Etzi elkartuko dira, 16:30etik 17:30era, eta parte hartu gura izan ezker, bihar arte eman daiteke izena, jaikielkartea@yahoo.es edo 943 53 43 96 telefonora deituta. Pertsonako 3 euro ordaindu beharko dira.

Horren ostean, bat-batekoak

Familian dantza egin ostean, hileko azken domeketan egin ohi dutenez, bat-bateko sorkuntza saioa egingo dute kuartel zaharrean bertan.



Martxoko dantza saioa. | JAIKI ELKARTEA

Herri izaera berreskuratzea eta emakumeen parte-hartzea bultzatuko ditu Ojala-Zelai krosak

Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Berritasunekin dator 35. Ojala-Zelai herri lasterketa. Maiatzaren 12an izango da aurtengo krosa, eta helduen sailean beste kategoria bat sortu dute antolatzaileek: hain zuzen ere, binakakoa.

Herritarren parte hartzea

Aretxabaletako Kirol teknikari Asier Muxikak aipatu duenez, bi arrazoiengatik sortu dute kategoria berria. "Alde batetik, lasterketaren herritartasun izaera sustatu eta berreskuratu gura izan dugu. 35 urte betetzen ditu

krosak, eta aldatzen joan da egoera, zalantzarik gabe. Lehen, herritar gehiagok hartzen zuten parte, eta, urteekin, maila handiko korrikalariak etortzen hasi ziren". Muxikaren esanetan, horrek aretxabaletarren parte hartzea moteldu du: "Egun, ez dute lehen beste ematen izena, eta kategoria berriarekin gizon eta emakume gehiago animatuko direla uste dugu".

Bestalde, binakako kategoriak mistoa izan behar duenez, "emakume gehiagok parte hartzea" gura dute antolatzaileek.

Lasterketa egunean bertan izena emateko orduan hautatu beharko da bakarka edo binaka lehiatu. Aditza eman dutenez, "bikotearen azken korrikalariak emango dio denbora bikoteari".

Lehiaketa baino gehiago

Hiru izango dira kategoria berriko sariak: garaikurrarekin batera, 200 euro, 150 euro eta 75 euro jasoko dituzte lehenengo hiru bikoteek.


Dena dela, Aretxabaletako Kirol teknikariak lehiakortasunaz haratago joan gura dutela eman du aditzera: "Gure asmoa da, irabaztera edo errekorra egitera etorri barik, parte hartzea eta ongi pasatzera etor daitezela. Esan bezala, Ojala-Zelai lasterketaren herri izaera berreskuratuko gura dugu".



Udaberriko jaialdian egongo dira bihar UDAko ordezkariak

Bihar Donostiako Manteo kiroldegian egingo duten udaberriko jaialdian parte hartuko dute UDAko kata eta kumite praktikatzan duten zenbait neska-mutilek. Bertan izango dira Andoni Martin, Eneko Calvo, Alex Benitez, Joanna Perez eta Eneko Rodriguez.

'The Full Monty' antzezlana Zaraiian martitzenean

Martitzenean, hilak 30, *The Full Monty* antzezlana ikusteko aukera egongo da Zaraiian aretoan. Langabeziak eta egoera ekonomikoak eragindako buruhausteak jasotzen dituen komedia dramatiko taularatzan du Txintxaun Kolektiboak. Ikuskizuna 22:00etan hasiko da.



aholkulariak-abokatuak

- **Juridikoa:**
- Zibila: banantzeak, herentziak, edozein motatako erreklamazioak.
- Penala: hutsegite epaiketak, salaketak, zirkulazio istripuak.
- Administratiboa: zigortzaile txostenak, errekursoak.
- Merkataritzakoa: sozietateen eratzeak, ordaingabeak, hartzekodun konkurtsoa.

- **Laborala:** erretiroak, kaleratzeak, enplegu-erregulazioko espedienteak.
- **Fiskala:** enpresen balorazioak, bideragarritasun-txostenak, likidazioen elaborazioak.
- **Kontabilitatea:** pertsona fisiko eta juridikoak.

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA • Tel.: 943 71 21 12
www.zenbaki.es

BEGIONDO optikan VARILUX series

%20ko deskontua

produktu guztietan inaugurazioagatik

Ekainaren 1era arte baliagarria



Belorrieta auzoa 11 • Aretxabaleta • 943 79 98 21

Joseba Gabilondo | Txirikila aisialdi elkarte "Herriko umeei aisialdi eskaintza eman gura diegu, euskaraz"

Maiatzean aurkeztuko dute Txirikila elkarte berria; aurretik, herriko gurasoekin elkartzeko asmoa dute

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Aisialdiarekin lotutako elkarte berria sortzen dabilta Eskoriatzan. Proiektu horren sortzaile Joseba Gabilondorekin egin dugu berba datoen lerroetan.

Zein da elkartearen helburua?

Herriko umeei aisialdi eskaintza eman gura diegu, euskaraz, Euskal Herriko eta Eskoriatzako kulturaren ondarean oinarrituta dagoena. Herrian ekintzak antolatu gura ditugu, lehenik eta behin. Baina, horrez gain, ludotekan eta udaleku irekien kudeaketan sartzeko asmoa daukagu. Udalak ostera ere lehiaketa deitzen duenean. Orain, kanpoko enpresa batek du horren ardura, eta pentsatzen dugu herriko elkarte batek eroan behar duela kudeaketa hori eta diru hori herrian bertan inbertitu behar dela.

Nola sortu da elkarte sortzeko ideia?

Hiru pertsonaz osatutako talde txiki bati gara azkenaldian elkarteak nolakoa izan behar duen diseinatzen, eta gero, hezkuntza eta



Joseba Gabilondo. | M.B.

aisialdian hezitzaile dabilen jendearekin egon gara, proiektuan parte hartzeko gertu ote dagoen jakiteko. Erantzuna ona zela ikusita, batzarra deitu genuen.

Zelakoa izan zen orain dela bi aste egindako batzar hura?

Oso ondo joan zen. 12 gazte inguru elkartu ginen: udalekuekin hezitzaile egon direnak edo hezkuntzaren alorrean sartuta daudenak eta baita ikasten dabilzatenak ere. Gustura entzun zituzten

gure azalpenak eta oso ideia ona iruditu zitzaizkien; askotariko proposamenak irten ziren ordubete pasatxo iraun zuen batzar hartan. Horretaz gainera, Txirikila elkarte formalki sortzea adostu genuen. Esan beharra dago elkarte gura duenari dagoela zabalik.

Zeintzuk dira eman beharreko hurrengo pausoak?

Orain nahi duguna da herriko gurasoei daukagun ideia aurkezte, eta baita laguntza eskatzea ere; umeei lan egiteko prest baldin badaude, hobeto. Saiatuko gara maiatz hasierarako haiekin bilkura egiten. Horretaz gainera, maiatz bukaeran, elkarte herriari aurkezteko jaialditxo egin gura dugu.

Ekintza berezirik zehaztu duzue?

Urtean zehar hainbat antolatze-ko asmoa daukagu, Eskoriatzako egun berezietan. Esaterako, aurten ez dugu astirik izango, baina datorren urteari begira Atxorrotz egunean zerbait egitea bururatu zaigu. Horrez gainera, sanjuanetako Txorimaloen bila ekintzaren bueltan egiten den jinkanarako eta sanpedroetarako askotariko ideiak dauzkagu buruan. Bestalde, herriko beste elkarte batzuekin elkarlanean aritzeko asmoa ere badaukagu. Hasiera batean, ludotekara eta udalekuekara joaten diren umeen adin tarte horretara mugatuko ditugu ekintzak; hain justu ere, 12 urte bitarteko neska-mutikoendako eskaintza gertatuko dugu.



MIRIAN BITERI

Atzerritarren finkatzeaz berbagai

Berbaldi interesgarria egin zuten martitzen goizean herriko kultura etxean. Gurutze Gorriko kide batek gidatuta, atzerritartasunaz egin zuten berba horretan. Atzerritartasun Legeari buruz hainbat xehetasun eman ostean, paperak berritzeko eta nazionalitatea lortu ahal izateko jarraitu beharreko pausoen berri eman zuen, parte-hartzaileek hala eskatuta. Euskal Herrian finkatzeaz ere jardun zuten bilkuran.

Eskoriatza Garbiaren "asmatutako datuei" erantzuteko eskuorriak banatzen dabilta

M.B. | ESKORIATZA

Eskoriatza Garbiak hilaren 11n eta 12an atez atekoaren kontra eta bosgarren edukiontzia buruz kalean banatu zituen eskuorriekin ez dago ados, eta horretan dauden "asmatutako datuei" erantzuteko beste eskuorri bat gertatu dute Eskoitz Zero Zabor taldekoek. Etxe guztietan banatzen ari dira egunotan.

Eskoitz Zero Zabor taldekoek "datu ofizialetan" oinarritutako erantzuna gertatu dutela azaldu dute. Taulen bidez adierazi dute Gipuzkoan, bosgarren edukiontzia martxan duten herrien artean, bakar bat ere ez dela gaika hondakinen %40 biltzera

iristen eta atez atekoa martxan jarri den Gipuzkoako herrietan, ostera, gaikako bilketak %80 gaitzuten duela. Debagoienean martxan dauden bilketa sistema desberdinen emaitzak ere aztertutuzte.

Ekonomikoki atez atekoa "bideragarriagoa" dela aipatzen du, hainbat datu emanda. Bestalde, errauskagailuaren eta atez atekoaren arteko konparaketa ere egin dute. Lehenengoak osasun, ingurumen eta ekonomian duen eragina aztertzeaz gain, errauskagailuaren eraikitzea "inposizioa" dela gaineratzen da Eskoitz Zero Zaborrek banatutako eskuorrian.

Irakurraldi publikoa eta liburu azoka egingo dituzte gaur

M.B. | ESKORIATZA

Liburuaren Nazioarteko Eguna- ren harira, *Bat ekarri, bat eroan* liburu azoka egingo dute gaur, egubakoitza, 18:00etan, plazan. Azken egunotan liburutegira eroandako liburuengatik jasotako txartelek liburuak hartu ahal izango dira horretan.

Ordu erdi geroago, *Zu be irakurle!* izeneko irakurraldi publikoa hasiko da toki berean. Liburu baten pasarteren bat irakurrita, gura duen orok liburu gomendatzeko aukera izango du aurten lehen aldiz gertatutako ekintza horretan.

Xeli Mendizabalek erakusketa solidarioa du kultura etxean

M.B. | ESKORIATZA

Atzo zabaldu eta etzira arte (domeka) bisita daiteke kultura etxean Xeli Mendizabalen pintura erakusketa solidarioa, honako ordutegian: gaur eta bihar, 18:00etatik 20:00etara; eta etzi, 12:00etatik 14:00etara bitartean.

Erretiratu zenetik, koadro asko egin ditu Almen guneko irakasle ohi Xeli Mendizabalek; orain, batzuk saltzea erabaki du, eta, horretarako, erakusketa antolatu du. Askotariko 40 koadro daude ikusgai, tamaina eta gai askotarikoak: loreak, paisaiak, emakumeak eta baita

abstraktuak ere. Esan bezala, salgai daude koadro guztiak, 12 eta 55 euro artean.

Lortutako dirua Albaniara

Domekara arte izandako salmentetatik lortutako dirua Albaniara bidaliko du Mendizabalek, bere lagun Mendiola-ko Jesus Madinabeitia misiolari marianista Lezhë hirian han bultzatzen ari den proiektuetan laguntzeko. Hain justu ere, aurrefabrikatutako modulu-ekin egindako eliza eraikitzen ari da orain Madinabeitia, eta horren finantzazioan lagunduko du.

OHARRAK

BEGIRALEAK

Udaleku irekietan begirale izateko jendea behar da. Interesatuek gaur arte, 16:30etik 19:00era, eroan dezakete curriculuma Tortolis ludotekara. E-mailez ere bidali daiteke, tortolisludoteka@gmail.com postara.

HITZALDIA BERTAN BEHERA

Autoenplegu eta ekintzailetasunari buruz hilaren 30ean,

Ibarraundin, 19:00etan, egitekoa zen hitzaldia bertan behera geratu da.

AITZORROTZ

Aitzorrotz kultura elkartearen eguneko bazkarirako txartelak erosi gura dituztenek maiatzaren 2ra arte dute aukera Inker-nun, Goxo Txikin eta Aldatzen. Hielduenak 15 euro balio du eta haurrenak, 10.



KONPONKETAK:

Txapa

Margoa

Mekanika

Errugbia hobeto ezagutzeko aukera izango da bihar, egun osoan

- ▶ Arrasateko Errugbi Taldeak erakusketa egingo du bihar goizean
- ▶ Gaztetxearekin elkarlanean hainbat ekintza antolatu dituzte kirolariek

ANE ETXEBERRIA | ANTZUOLA

Arrasateko Errugbi Taldeak Gaztetxearekin elkarlanean Errugbi Eguna antolatu du biharko. Goizean hasi eta iluntzera arte ekintza desberdinak antolatu dituzte, kirol horren nondik norakoak hobeto ezagutu eta egun zoragarria pasatzeko.

Goizeko hamaiketan hasiko da eguna. Kirolariek erakusketa berezia egingo dute, ordubetez, herrian. Oso interesgarria izango da; izan ere, poliki-poliki indarra hartuz doan kirola da. Herriko hainbat lagunek Arrasateko taldean jokatzeko dute gaur egun, eta beti izaten da polita herrian erakustea kirol horrek eman dezakeen guztia.

Behin erakusketa egin ondoren, 12:00 inguruan 3. denbora dohainik izango da Gaztetxean eta 13:00etan triki-poteoa herriko kaleetan barrena. Ondoren, errugbiko jokalariek bazkaltzera joango dira, arratsaldera begira indarrak hartzeko.

Arratsaldeko bostetatik aurrera txikiteoan jarraituko dute; izan ere, triki-bertsu poteoa egingo dute gerturatutakoek. Iluntzean giroak ez du hutsik egingo eta Gaztetxean kontzertu bikainak izango dira nagusi. 20:00etan hasita, eta 5 euroren truke, Never Surrender arrasatearrak, herriko partaideak dituen Klak!son taldea, Amd eta The Combitz taldeetako musikariak izango dira giroa alaitzen.

Arrasatearren denboraldia Arrasateko Errugbi Taldeak amaitu du denboraldia. Hainbat



Arrasateko Errugbi Taldean diharduten antzuolarrak. | GOIENA

jokalariren lesioek joko sistema baldintzatu badute ere, partidu bikainak jokatu ditu taldeak. Arrasateko taldeak jokalariek gazteak ditu, baina erantzukizun handia erakutsi dutela adierazi

Errugbia eta parranda izango dira protagonistak zapatu honetan

du behin baino gehiagotan entrenatzaileak.

Errugbia kirol zakartzat jotzen dute askok, kirolariak handiak direlako eta kolpe asko ematen dituztelako, baina ez da guztiz horrela, alde tekniko eta taktiko asko baititu. Hala, behin alde tekniko eta taktikoa barneratzen dutenean kirolariek, arlo fisikoari garrantzi izugarria ematen diote entrenatzaileek. Goi mailako jokalariek, adibidez, atleta indartsu eta bizkorrenen antzeko gorpuzkera dute, helburua errug-

bian ahalik eta errendimendu handiena ateratzea baita.

Arrasaten hazten ari den kirola da errugbia; hala eta guztiz ere, beheko kategorian ume gehiagoren beharra dago. Herrian eta baita bailaran ere geroz eta eza-gunagoa egiten ari den kirola izanik, Antzuolan egingo den erakusketarekin gazteak animatzea izango da helburua. Errugbia hobeto ezagutu eta apur bat praktikatzeko aukera bikaina izan daiteke, beraz, zapatu honetako hitzordua.

Aratzera egitekoa zen ibilaldia atzeratu egin du Arrola elkarteak

Asteburuari begira iragarritako dagoen eguraldi txarra dela eta, Arrola Mendi Elkartek domekarako zuen irteera datoren astera atzeratu du, maiatzaren 5era. Halaber, ibilaldia apur bat aldatu dute; izan ere, orain, egun erdiko irteera izan beharrean egun osokoa izango da, sei bat ordukoa. Goizeko zortzietan irtengo dira.

'Haurrak, gurasoen heriotzaren aurrean' hitzaldia gaur

Eskolako Kontseiluak antolatuta, gurasoen heriotzaren aurrean haurrekin nola jokatu eta zein estrategia erabili behar diren azalduko du Patxi Izagirre psikologo klinikoak. Hitzaldia herritar guztiei irekita dago, zalantza askori erantzunak ematen saiatuko baita Izagirre. Gaur, arratsaldeko seietan, Torresoroan.

Haur Eskolan matrikulatzeko kanpaina hastear

Datorren maiatzaren 2tik 13ra bitartean Haur Eskolan matrikulatzeko aukera izango dute herritarrek. Matrikulazio paperak hartu zein entregatzeko, Haur Eskolara jo behar dute interesatuak. Orduetgia hau izango da: 12:30etatik 13:30ak arte. Aurten 13 plaza daude guztira, 8 plaza 0 urtekoentzako eta 5 plaza 1 eta 2 urteko neska-mutilentzako.

1976an jaiotakoekin kinto bazkarian izena emateko deialdia

Aurten 37 urte betetzen dituzten antzuolarrak kinto bazkaria izango dute datorren hilean. Urtero legez, maiatzaren hirugarren zapatuan egingo dute bazkaria, eta guztia antolatzen lantalde txiki bat lanean hasi da. Izena emateko, Elyan Natur Dendara jo behar dute interesatuak maiatzaren 10a aurretik.



ANTZUOLAKO HERRI ESKOLA

Elkarretaratzea Lomce legearen aurka

Antzuolako eskolako irakasleek eta hainbat gurasok elkarretaratzea egin zuten, joan den astean, ELA, LAB eta STEE-EILAS sindikatuek deituta. Murrizketen eta Lomce legearen aurka azaldu ziren bertaratutakoak. 50 bat herritar bildu ziren eskolako atean aldarrikapena egiteko.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA



Hasteko, liburutegian euskarazko liburu bat hartu behar da maileguan. | JOKIN BEREZIARTUA

Abian da 'Irakurri, gozatu eta oparitu' ekimena

Topagunearen eskutik hirugarrenez dator Aramaiora, ekainaren 30era arte

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Aurten hirugarren aldiz, Topagunearen irakurtzeko zaletasuna sustatzeko kanpainan sartu da Aramaio, Zuiako Koadrila eta Txirritola euskara elkarteekin batera: *Irakurri, gozatu eta oparitu*. Hainbat helburu ditu ekimenak: irakurzaletasuna sustatzea, euskararen erabilera gozagarria bultzatzea, herritarra liburutegi publikoen erabiltzaile aktibo bihurtzea eta, bide batez, euskarazko liburuen ekoizpena eta salmenta areagotzea.

Liburuaren Nazioarteko Egunean, apirilaren 23an, jarri zuten martxan ekimena. Aramaio da Debagoieneko herri bakarra eta Euskal Herriko beste 24 herritan ere indarrean dago, ekainaren 30era arte. Iaz arrakasta handia izan zuen aramaiarren artean.

Txirritolakoendako, %50

Egitasmoaren izenak berak dioenez, hiru urrats jarraitu behar ditu parte hartu gura duenak. Liburutegian euskarazko liburu bat maileguan hartzea da lehen pausoa. Behin liburua irakurritako, liburutegira itzultzerakoan fitxa bat bete behar da, irakurritakoari buruzkoa.

Trukean liburuazainak erosketatxartela emango dio irakurleari Arrasateko ala Gasteizko Elkar liburu-dendetan liburu hori bera ala euskarazko edozein trukatzeko. %25eko balioa duen erosketatxartela jasoko dute irakurleek orokorrean, eta %50eko balio duen txartela, berriz, Txirritolako bazkide izanez gero. Azkenik, parte hartzaileak liburua gorde edo beste bati oparitu ahal izango dio.

Ipuin lehiaketako sariak gaur

Bestalde, Txirritolak urtero antolatzen duen ipuin lehiaketako sari banaketa gaur egingo da, Kultur etxean (18:00). Aurten 57 bat lan aurkeztu dira –San Martin eskolako ikasleek dira gehienak–, iaz baino zazpi gehiago: "Pozik gaude, helduen artean ere lan gehiago jaso ditugu", adierazi dute antolatzaileek. Hala ere, eskuz idatzitako lan bakarra jaso izana ez zaie horrenbeste gustatu: "Ipuina ordenagailuz idazteak bere xarma galtzen du".

Sariak banatu aurretik, Topagunearen Kultur Errota programaren eskutik, haurrek Jakin eta Jolas taldearen *Jolas eta zilarrezko txartela* ikuskizunaz gozatzeko aukera izango dute. Kontsumo arduratsuen gaia jorratzen du antzezlanak.

Eragile asko inplikatu dira Uema egunerako

Ekainaren 8an ospatuko da, 13 urteren ostean

J.B. | ARAMAIO

13 urteren ostean, Aramaion ospatuko da Udallerri Euskaldunen Mankomunitatearen Uema eguna, ekainaren 8an. Joan den astean bilera irekia egin zuten udaletxean, Uema egunaren zentzua azaldu eta egitaraua prestatzeko zein laguntza egongo den jakiteko. Uemako ordezkariak gain, Udalak, Txirritola euskara elkarteak, Bizente Goikoetxea abesbatzak eta Lagun artea dantza taldeak hartu zuten parte bileran, baina egon ez ziren talde batzuek –Bertso Eskola eta Trikitixa Eskola, esaterako– parte hartuko dutela adierazi dute. Egi-

taraua erabat zehazten denean beste bilera bat egingo dute, ardurak banatzeko.

Udalak ahalik herritar gehien inplikatzeko gura du: "Guretako oso garrantzitsua da Uema Eguna Aramaion antolatzea. Askotan euskaraz bizitzaren garrantzia ahazten dugu eta halako egunek euskaraz bizi eta euskaraz sentitu behar dugula gogora ekartzen digute", adierazi du Ane Miren Etxeberria zinegotziak. Bestalde, egun horretarako Txirritolak antolatutako lema lehiaketan lan bakarra jaso dute; lema hori bailarako komunikazio kanpainan erabiliko dute.

NIRE USTEZ

ANDER ELORTONDO



In-ko-herentzia

Gure hainbat hitzen jatorrian *haerere* aditza dago. Bere esanahia *itsatsia egotea* edo *bat egitea* omen da. Hortik datoz, besteak beste, kohesio, herentzia eta koherentzia. Su ta Gar eibartarren abestiak oso ondo salatzen du gizakume iraultzaile jatorren jokaera, feminismoa ahoan eta...

Ohitura animaliak gara eta gure jokabideak aldatzea ezinezko iruditzen zaigu. Arrazionaltasunak ondorio batzuetara garamatza, baina gero, gure ohiturazko ekintzak ez datoz bat ondorio horiekin. Denok nahi dugu *cool* eta *in*

izatea, feministak, ekologistak, euskaltzaleak... Inkestetan programa oso ikusia da *los documentales de La2*, baina errealitatea beste bat da. Esan eta izan ez da berdina. *Haerere* bai, itsatsita ditugu ohiturak.

Herentziaren erraztasunaren parean koherentziaren zailtasun itzela dago: animalien eskubide defendatzaileak eltxoen aurkako kremaz, euskaltzaleak erdal jario bizkorraz, ezkertiarrek ogasunari iruzur egiten, katoliko bananduek eta abade sexu-zaleak, gutzietatik barra-barra ditugu.

Koherentzia ahaleginak inplikazioa eta inertziari (herentziari) aurre egitea eskatzen du; zaila.

Birziklatzeaz ere berdina. Ahotan denok eta ekintzatan... Hordagoak hordago, argi izan lau hamarrekorekin ez dela mus partida bat irabazten. Ez du edozerk balio.

Emakumeen eta gizonen arteko egoeraren gaineko diagnostikoaren aurkezpena egin zuten atzo

Emakumeen eta gizonen arteko egoeraren gaineko diagnostikoa egin du Udalak, Daiteke gizarte aholkularitza enpresaren bitartez. Helburua da Aramaion Berdintasun Plan eraginkorra egiteko abiapuntua zehaztea. Izan ere, orain arte "ekintza puntualak" egin dituzte, Edurne Uribarren-Iturrieta zinegotziaren arabera: "Epe luzerako Berdintasun Plana ez da sekula egin". Daiteke enpresaren ikerketaren ondorioak kontuan hartuta, asmoa da Berdintasun Plana 2014an indarrean jartzea.

Arabako Odol Emaileen Elkarrekin maiatzaren 2rako egin du hurrengo deialdia, osasun etxean

Arabako Odol Emaileen elkarrekin jakinarazi duenez, odola emateko aukera egongo da maiatzaren 2an Aramaioko osasun etxean, arratsaldean –16:30etik 20:00etara–. Gogora ekarri dute odola "beharrezkoa" dela eta ezin dela laborategian sortu. Era berean, kontuan hartzeko honako argibideak eman dituzte, besteak beste: emaeleak 18 eta 66 urte artekoa izan behar du eta 50 kilo izan behar ditu, gutxienez. Gizonezkoek urtean lau alditan eman ahal dute odola; emakumezkoek, berriz, hiru alditan.



Aramaio ere, sagardoaren kultura sustatzera

Hego Euskal Herriko lau sagardogile elkarteak eta sagardoaren eta turismoaren inguruko zenbait eragilek Bizi Sagardoa elkarteak sortu dute. Aramaiok bat egin du ekimenarekin eta elkartearen sartu den ibarreko herri bakarra da. Helburua da sagardoaren kultura eta turismoa sustatzea. Euskal Herriko sagardoaren historian, inoiz ez da lurralde ezberdinetako horrenbeste eragile elkartu dituen proiekturik sortu.

ELGETA

Edukiontziekin %70-80 sailkatzea da helburua

Udal taldeek lortutako adostasuna herritarrek baloratu behar dute orain

LARRAIZ ZEBERIO | ELGETA

Hurrengo hilabeteetan hondakinen kudeaketa izango dugu hizpide Elgetan ere. Inguruko herrietan gertatzen ari dena kontuan hartuta, ordea, abiapuntua oso ezberdina da. Elgetan adostasuna iritsi dira Udal Gobernuak, Bildu eta EAJ. Martitzenean egindako osoko bilkuran eman zioten ofizialtasuna bederatzi hilabetez landutako dokumentuari.

Herri galdeketa abenduan

Adostu dituzte helburuak, bide horretan hartu beharreko neurriak eta abendurako herri galdeketa aurreikusten duen ekintza plana. "Herritarrek hondakinekin gaur egun zer egiten den jakitea nahi dugu", esan du Bilduko zinegotzi Janire Lazkanok. Oxel Erosarbe alkatea ere iritzi berekoa da: "Herritarrek konturatu behar dute hondakinekin dugun arazoak eta bakoitzak konpromisoa hartu behar du hondakin gutxiago sortu eta gehiago sailkatzeko".

Herri galdeketa izango da erabakitze-prozesu honetan azken pausoa. Aurretik, baina, beste asko eman behar direla uste dute hiru alderdi politikoetako ordezkariak. Bide hori egiteko zortzi neurri jasotzen dituen proposamena adostu dute —koadroan—. Hitzaldi eta ekintza informatiboak, sentsibilizazio kanpainak, tupper banaketa herriko merkatarien bitartez, konposta bultzatzea...

Bilduko zinegotzi Janire Lazkanok proposamenaren bideragarritasun ekonomikoa sakon aztertu beharko dela adierazi zuen. Erostarrek hauxe esan zuten, bestalde: "Hau da guk ados-

tu duguna. Hurrengo fase potoloa herritarrei proposamena aurkeztea eta euren ekarpenak jasotzea izango da". Helburua, azken finean, kontsultara eramango dena guztien artean lantzea da".

Proposamenaren zortzi neurriak

ARAZOAZ JABETU

Hondakinekin gaur egun egiten dena ezagutzeko eta herritarrek gaiaren inguruan iritzi garatu eta kritika izateko, hainbat ekimen egingo dira.

KONPOSTA BULTZATU

Herritarren artean etxe-konposta eta auzo-konposta bultzatuko da.

TUPERRAK BANATU

Ekogunerekin eta herriko merkatariarekin batera *Elgetan ontziratutako zaitex* ekimena egingo da.

ZABORRONTZI BERRIAK

Herriko kaleetan, parkeetan... hondakinak bereizita botatzeko zaborrontzi berriak ipiniko dira.

BEDERATZI EDUKIONTZI

Hondakinen bilketa edukiontzien bidez egingo da. Edukiontzi berdea desagertu

egingo da. Bost edukiontzi berdin mantenduko dira: paperarena, beirarena, olioarena, pilena eta arroparena. Txiparekin funtzionatuko dute aurrerantzean lau edukiontzik: plastikoarena, organikoarena, errefusarena eta fardelena. Eta Puntu Berde Mugikorra martxan ipiniko da, atzera ere.

JARRAIPENA

Hondakinak sailkatzen ez dituzten herritarrei jarraipena egingo die Udalak, eta hobariak aplikatuko zaizkie konposta egiten dutenei.

ENPRESA ETA KOMERTZIOEI

Zerbitzua hobetzeko neurriak hartuko dira.

BERRERABILPENA

Berrerabilpena bultzatzeko ekimenak indartu egingo dira herrian; esaterako, bigarren eskuko azokak.

Familiendako eskaintza berezia liburutegian

Gurasoen txokoa martxan da eta zapatuan ipuinak kontatuko ditu Saioa Bikandik

L.Z. | ELGETA

Martitzenean, Liburuaren Egunean, herriko plazara atera zituen liburuak Geaxi Ezpeleta udal liburutegian. Liburutegira ekarritako azken nobedadeak erakutsi zituen plazan, baita herritarren artean hainbat liburu banatu ere. Eguraldia lagun izan zuen Ezpeletak, eta adin guztietako elgetarrak hurbildu zitzaizkion udaletxeko arkupean ipinitako mahaira.

Ipuin saioa zapatuan

Biharko, zapatua, Saioa Bikandi ipuin kontalariaren saioa iragarri du udal liburutegian. 3-8 urte arteko umeendako saioa da. Ekintzan, hori bai, arduradun batekin hartu behar dute parte. Ideia da gurasoek eta umeek saioaz elkarrekin gozatzeko. Horregatik garrantzitsua da alde aurretik izena ematea.

Interesatuak Udal Liburutegian edo udaletxean eman dezakete izena. Edo helbide elektronikoa honetan: elgetakoliburutegia@elgeta.net.

Gurasoen txokoa

Liburutegian berria den gurasoen txokoa aurkezteko ere baliatu du Liburuaren Eguna Ezpeletak. Gurasoendako interesgarriak izan daitezkeen argitalpenak batu ditu liburutegian txoko horretan. Haur eta gazteen hezkuntzarekin lotutako dokumentazioa dago bertan, ikuspuntu, esperientzia eta gomendio sorta handiarekin. Tartean da Arrasateko eta Aretxabaletako liburutegien eta Txatxilipurdi elkartearren artean argitaratu duten *Gurasoentzako baliabide gida*. Dokumentua Udal Liburutegian bertan kontsulta daiteke.



Geaxi Ezpeleta, martitzenean, herriko plazan. | L.Z.

Txertubi bikotearen musikarekin etzi, domeka, 'Herrixa dantzan'

Zuzeneko musikarekin egingo da aurrerantzean *Herrixa dantzan* Espaloian. Hiru hilean behin izango da, eta etzi, domeka, Txertubi bikotearen zuzeneko musikarekin egingo dute dantza saio irekia kafe antzokian. Inguruetako dantza zale guztiak daude gonbidatuta. Saioa 19:00etatik 20:30era izango da.

Erretiratuendako irteeran izena emateko aukera aste bukaeran

Maiatzaren 8rako Xalbadorpe erretiratuaren elkartetik antolatutako irteeran parte hartu nahi dutenek bihar edo etzi —hilak 27 edo 28— eman behar dute izena. Bi egun horietan elkarteko ordezkariak 11:00etatik 12:00etara izango dira Ozkarbin izen-emateak egiteko. Prezioa 25 euro da.

Frontenis txapelketan izena emateko azken eguna da bihar

Interesatuak Espaloia kafe antzokian eman behar dute izena, eta prezioa 10 euro da. Proposamena, aurten, hiru talde edo txapelketa osatzea da: gizonezkoena, emakumezkoena eta bikote mistoena. Partiduak bariku iluntzeetan eta zapatu arratsaldeetan jokatuko dira.

IX. Magia Mostrarako sarrerak salgai Espaloian eta sarean

Maiatzeko lehen aste bukarran izango da Magia Mostra. Sarrerak antzokian bertan eta www.espaloia.com-en eros daitezke. Dani Daortizen saiorako sarrera 15 euro da; bazkideendako, 12. Magia galarrako sarrera, 18 euro; bazkideendako 15. Bonua, 21 euro; bazkideendako, 18 euro.

Gerra garaiko errekreazioa domekan 12:00etan

Lehenengo aldiz 1936ko urriko gertaeren errekreazioa egingo dute *Intxortako atea* eskultura aurrean. Ehun bat lagunek hartuko dute parte, tartean 25 bat elgetarrek. 12:00etan hasiko da. Antolatuzaileek bereziki eskatu dute ikusleendako erreserbatutako guneak errespetatzeko.

LEINTZ GATZAGA

Zerbitzua handitu egin dute informazio bulegoan

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

"Batuek goizez ezin dutela etorri-eta eskatu zuten arratsaldeetan ere zabalik egotea bulegoa; oraingo astean bertan hala hasi gara". Azalpen horrekin jakinarazi dute hondakinen gaineko informazio bulegoaren ordutegia handitu egin dutela.

Aurrerantzean, 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara izango da zabalik, eguazteno.

Ordutegia handitzeaz gain, jakinarazi dute, bakarra barik, bi lagun arduratuko direla informazioa emateaz. Gainera, telefono bidezko arre-



Maialen Idiazabal eta Itziar Iglesias informatzaileak, bulegoan. | UBANE MADERA

ta zerbitzua ere eskaini dute: 688 65 72 48 (astelehenetik egu-bakoitzera). Eta posta elektronikoa ere jarri dute gatzagarren eskura: atezate@debagoiena.com.

Bestalde, bulegoan informazio materiala badutela ere adierazi dute; hondakinen bilketa sistema berriaren funtzionamenduaren gaineko gida eta hiztegia, "dena den, horiek etxetik etxe banatuko ditugu behin sistema martxan jarrita", argitu dute.

BIZIKLETA JARDUNALDIAK

Mendiko bizikletan gauez ibiltzeko proposamena, bihar

- Hainbat hitzordu, asteburuan, Bizikleta Jardunaldien barruan Bergaran
- Bihar egingo dute 'Basque Night Adventure', mendiko bizikletaz

XABIER URZELAI | BERGARA

Bergaran antolatzen dabilzan Bizikleta Jardunaldiak aurrera segitzen du, eta asteburuan izango dira hitzordu potoloetako batzuk. Bihar, zapatua, mendiko bizikleta-zaleek gauez ibiltzeko aukera izango dute, *Basque Night Adventure* izeneko martxan. Antolatzaileek adierazi dute dagoeneko 80 lagunek eman dutela izena, baina zapatuan bertan ere egingo dela izena emateko aukera: "Askok deitu digute horixe bera galdetzen, eta bai, zapatuan 19:30etik 21:00etara izenak hartzen ibiliko gara Agorrosinen [Federatuek 15 euro, ez federatuek 20 euro]", adierazi du antolatzaile lanetan dabilen Basque Adventureko Iker Osak

Bizikleta martxa, berriz, 21:30ean hasiko dute: "Pozik gaude, dagoeneko gaintu dugulako iaz egin genuen martxaren izen-emate kopurua; orduan 70 lagun izan ziren. Egunean bertan jende gehiago animatzen bada, ondo; izan ere, mendiko bizikletan gauez ibiltzearena nahiko berria da hemen, argiak behar dira... Kopuru polita da".

Ibilbide luzea kendu dute

Zapatuko martxarako antolatzaileek hiru ibilbide zituzten prestatuta, baina luzea kentzea erabaki dutela zehaztu du Osak: "Azken batean, luzea egiteko jendeak lau ordu inguru beharoko lituzke eta ez da komeni gaueko irteera horrenbeste luzatzerik. Arriskua dago argi fokuak laugarren orduetik aurrera bateria gabe geratzeko, eta segurtasun arrazoiengatik, ez da komeni mendian inor argi barik gertzerik". Hala ere, ibilbide motz edo ertaina aukeratuta, ziklistak asetzeko moduko ibilbideak prestatu dute.

Arratsaldea, gazteendako

Zapatu gaueko hitzordua helduendako izango da, baina arratsaldean gazteendako hitzorduak prestatu dituzte egitarauaren barruan. Hala, Lokatzak antolatuta, 16:30ean bizikleta jolasak eta Gipuzkoako eskola arteko txapelketa egingo dituzte, San Martin plazan. Eta 18:00etan, plazatik irtenda, haur, gazte eta helduek elkarrekin itzuli bat egin ahal izango dute herrian zehar, lasai.

Kartutxo gutziak, baina, ez dituzte asteburuan erreko, astelehenean (19:00etan, Irizar jauregian) *Polonia* diapositiba emanaldia egingo dute-eta.



Iazko martxaren irudia, Agorrosinen.

FITXA

BASQUE NIGHT ADVENTURE
Irteera ordua: 21:30
Izen-ematea: 19:30-21:00.
Ibilbide laburra: 22 km (700 m. des.)
Ibilbide ertaina: 32 km (1.050 m. des.)

'Harmailatik' saio berezia

Eta, bizikleta Jardunaldien barruan astelehenean, apirilak 29, *Harmailatik* saio berezia egingo dugu (22:00, Goiena Telebista). Bailaran txirrindularitzaren egoera zein den aztertuko dugu ziklismo eskolako ordezkari, entrenatzaile eta ziklista

profesionalekin. Aldi berean, datorren maiatzaren 3an, egubakoitza, ziklismoko ohiko lesioak izeneko berbaldea emango dute

Aspanogi 6+3 martxa, maiatzaren 5ean

Iaz atseden hartu ostean, aurtengo edizioan indarberrituta dator Bergarako zikloturista martxa, Bergarako Aspanogi 6+3. Nobedadeen artean, izena aldatu diote, aurreko bi edizioetan zikloturistek bost mendate gaintu behar zituztelako eta aurtengo edizioan beste mendate bat gehiago izango delako ibilbidean, Goierri aldean dagoen Barbari –Euskal Herriko Itzulian igo zuten, Omar Fraile ihes eginda ibili zen etapan–. Hala, antolatzaileek 100 kilometro pasatxoko ibilbidea prestatu dute, baina adi, profilak erakusten duen moduan ibilbideak metro bakarra ere ez duelako izango lautadan:

"Zikloturistak etengabe ibiliko dira igo eta jaitsi, eta bai, adi Barbariko mendateaz, tranpa txiki bat da-eta", dio, barrez, antolatzaile lanetan dabilen Unai Asurmendik. Alegia, ibilbideaz gozatzeko, komeni dela dagoeneko kilometro apur batzuk hanketan pilatuta izatea.


Hala, martxan esku hartzeko www.kirolprobak.com webgunearen bitartez eman daiteke izena (federatuek 13 euro, ez federatuek 23 euro). Bada, aurtengo izen-ematea Aspanogi elkarteari laguntzeko izango da (Gipuzkoako haur minbizidunen guraso elkarte): "Egunean bertan ere izena emateko aukera emango dugu, baina, gehienez, 300 lagunendako tokia izango da", adierazi du Asurmendik.

Kronometro barik

Aurreko bi edizioetan Elosuko mendate tarte kronometraturia izan da, baina aurten ez: "Badakigu lehiarako grina dutenek halakoetan gozatu egiten dutela, baina federazioek ez dituzte halakoak begi onez ikusten, eta aurten ez egitea erabaki dugu". Erlojuari begira egon

"Aspanogi elkarteari laguntzeko erabiliko dugu dirua"

barik, Elosu *egurrean* igo nahi dutenek izango dute horretarako aukera, eta besteek ibilbideko paraje ederraz gozatu ahal izango dute, ematen du-eta horretarako aukera.



Zikloturistak Agorrosinen irteteko gertu, artxiboko erretratuan. | GOIENA

EGITARAUA

ZAPATUA

16:30 Bizikleta jolasak San Martin plazan. Eta Gipuzkoako eskola arteko txapelketa.

18:00 *Masa kritikoa*, herritik itzuli bat bizikletan haur, gazte eta helduekin, lasai. San Martin plazatik abiatuta.

21:30 Basque Night Adventure, gaueko mendi bizikleta irteera.

ASTELEHENA

19:00 *Polonia* diapositiba emanaldia, Irizar jauregian, euskaraz.

ESANAK

"Ibilbide luzea kentzea erabaki dugu, bateria barik geratzeko arriskurik egon ez dadin"

"Aurreko edizioko izen-ematea gaintu dugu jada, pozik gaude"

IKER OSA | BASQUE ADVENTURE



Realako jokalaria Mikel Gonzalez eta Mondrako jokalaria Gorka Dueñas. | ARGAZKIAK: GOIENA ETA ORTZI OMEÑAKA-IMQUALITY.COM

FUTBOLA

Realak Mojategin hasiko du denboraldia, uztailaren 5ean

Mondrak eta Realak partidua jokatuko dute, 100. urteurrena ospatzeko

XABIER URZELAI | ARRASATE

Hilabete askoko hartu-emanen ostean, uztailaren 5ean etorriko da Realak Mojategira. Mondrako zuzendaritza iraila ezker dabil helburu hori lortzeko lanean, eta martitzenean Jokin Aperribai presidentean elkartu ostean, lortu dute helburua: "Oso pozik itzuli ginen Donostian izandako batzarretik, konfirmatuta geratu delako uztailaren 5ean Realak Mojategin izango dugula", adierazi dio aste barruan Fernando Laspiurrek Goienari: "Ez genuen uste horrenbeste kostako zitzaizgunik, pentsatzen genuelako Realak erdiko postuetan amaituko zuela denboraldia eta sasoi honetarako lasaiago ibiliko zirela. Baina Europan egoteko borrokan dabilzanez, zaildu egin da dena", argitu du.

Real europarra, Arrasaten

Hala, gauzak ondo bidean, Europan jokatuko duen Realak izango dugu uztailaren 5ean (egubakoitza) Arrasaten, eta, hain zuzen, txuri-urdinendako denboraldi

hasiera izango da: "Realekoek uztailaren 1ean hasiko dituzte entrenamenduak eta handik egun gutxira izango ditugu Mojategin. Mondrako jokalaria oporretan izango dira ordurako, baina asmoa da herriko jokalariek hainbat entrenamendu saio egitea partidu txukuna ikusi ahal izateko".

Bi talde horien artean dagoen aldeaz galdetuta, Laspiurrek garbi dauka Realaren helburua ez dela sekulako errepaso ematea, eta bai jai batean parte hartzea: "Asmoa da arrasatearrak Mojategira gerturatzea. Oraindik ezin dugu partiduaren ordua zehaztu, baina, hala ere, 19:00 inguruan izatea nahiko genuke, jendea denboraz ibil dadin".

ESANAK

"Martitzenean pozik itzuli ginen Donostiatik"

"Realaren urte onak zaildu egin du Mojategira etortzea"

FERNANDO LASPIUR | ZUZENDARITZA

Egitarau potoloa gertu

Garbi dago Realaren bisita izango dela Mondraren 100. urteurreneko ekitaldi potoloa, baina ez da bakarra izango, ezta gutxiago ere (egunak zehaztea falta da). Esaterako, maiatzaren 16an Iñaki de Mujika irrati esataria izango da Kulturaten, hainbat jokalaria ohirekin irratsaioa egiten. Horrekin batera, Mondrako beterranoen eta emakumezkoen lagunarteko torneoak ere prestatzen dabilta, eta beste nobedade bat da sanjuanetako danborradan Mondrak izango duen protagonismoa, taldekide izandakoek konpartsa osatuko dute-eta.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

EUSKAL LIGA, EMAKUME.
Arizmendi-Bizkerre
Domeka. 18:15. Getxo.

EUSKAL LIGA, GAZTEAK
Ariznabarra-Aretxabaleta
Domeka. 17:00. Gasteiz.

OHOREZKO ERREGIONALA
Aretxabaleta-Aurrera
Domeka. 16:30. Ibarra.
Mondra-Berio
Domeka. 16:30. Mojategi.
Aloña Mendi-Real Unión
Domeka. 16:30. Azkoagain.
Bergara-Tolosa
Zapatua. 16:30. Agorrosin.

ERREG. PREFERENTE A
Lazkao-Antzuola
Zapatua. 16:00. Lazkao

1. ERREGIONALA IGOERA FASEA
Oiarzun-Aretxabaleta
Zapatua. 17:30. Oiarzun.
Aretxabaleta-Lazkao
Zapatua. 10:45. Ibarra.

OHOREZKO GAZTEAK
Mondra-Ostadar
Zapatua. 17:30. Mojategi.
Aloña Mendi-Billabona
Zapatua. 16:30. Azkoagain.
Bergara-Euskalduna
Zapatua. 18:00. Ipintza.

1. GAZTE IGOERA FASEA
Aretxabaleta B-Dunboa Eguzki
Zapatua. 18:00. Ibarra.

1. GAZTE KOPA
Urola B-Bergara B
Zapatua. 12:00. Zumarraga.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA
Eskoriatza (Atsedendia)
GIPUZKOAKO TXAPELKETA
Zaldibi-Aretxabaleta
Zapatua. 16:30. Zaldibia.

MUTIL KADETEAK 2. FASEA LIGA
Eskoriatza-Zarautz
Zapatua. 10:00. Almen.

SASKIBALOA

EBA MAILA
Natra Oñati-Pas Pielagos
Zapatua. 19:00. Zubikoa.

LEHEN NAZIONAL MAILA
MU-Bide bide Donosti
Zapatua. 16:00. Donostia.

GIPUZKOAKO SENIORRAK
Soraluce BKE-Alde zaharra
Domeka. 16:30. Labegaraleta.
MU A- Atletico San Sebastian
Egubakoitza. 20:00. Musakola.

SENIOR EMAKUMEZKOAK
Tecnun-Eskoriatza
Atzeratuta.

2. MAILAKO SENIOR MUTILAK
Azkune-Aloña Mendi
Egubakoitza. 20:00. Donostia.

3. MAILAKO SENIOR MUTILAK
MU B-Oiarzun
Zapatua. 17:30. Musakola.

ESKUBALOA

KOPA 1. LURRALDEA
Aloña Mendi-Elgoibar
Egubakoitza. 20:00. Zubikoa.

GIPUZKOAKO TROFEOA

GAZTEAK
Bergara (Atsedendia)

FORU ALDUNDIKO TORNEOA KADETEAK
Soraluce BKE-Urola
Domeka. 10:45. Labegaraleta.
Arrasate-Elgoibar
Zapatua. 11:00. Iturripe.

KOPA NESKA GAZTEAK
Winbel-Aloña Mendi
Zapatua. 16:30. Gasteiz.

GIMNASIA ERRITMIKOA

ESKOLARTEKO B MAILAKO 2. FASEA.
Arrasate Dragoi eta Ariznoa
Elkartea
Zapatua. 10:00. Labegaraletan.

PELOTA

BERGARA HIRIA

TXAPELKETA

Martitzena. 19:00. Udal pilotalekua.

1º Promesak
Altuna-Erostarbe / Ortiz-Hernandez

2º Promesak
Iribarria-X. Imaz / Larrañaga-Agirre

3º Nagusiak
A. Muguruza-Tellexea / Larrañaga-Peñas.

ATLETISMOA

GIPUZKOAKO TXAPELKETA
Kimu eta haur mailak
Domeka. 10:30. Mojategi.



GOIENA

GIMNASIA ERRITMIKOA Zapatu goizean Gipuzkoako Eskolarteko B mailako txapelketa izango da. Arrasate Dragoi eta Ariznoa elkarteetako kimu eta haur taldeak arituko dira.

SASKIBALOA

Natrak azken garaipen bat eskaini nahi die etxekoei

Partidua 19:00etan da eta sarrera ordaindu egin beharko da, igoera faserako dirua biltzeko

IMANOL GALLEGO | OÑATI

Matematikoki lehen postua ziurtatuta duten arren, aurreko partiduen emaitzaren zapore txarra kentzeko asmoa aipatu du Eneko Blancok.

Oso denboraldi oparoa egin ostean, aurreko partidua galdu izanak zapore gazi-gozaekin utzi zituen oñatiarrak, eta, horregatik, azken partidua irabaztera irtengo dira. Blanco entrenatzaileak helburu bikoitza dauka: "Egia da aldaketa gehiago egingo ditu-

dala, betiere, garaipena helburu bezala kontuan izanda".

Denboraldian erabakigarria izan den Ander Gartzia, gainera, zapatuko partidurako prest egongo da. 10 eguneko atsedendia-oren ostean, jokalaria aste honetan entrenatzen hasi da eta azken partidurako "berriro prest izatea" espero du dio Blancok. Xabi Odriozolari kontrakoa gertatu zaio: "Lesionatu egin da eta ez du jokatuko". Hala ere, aurreko jardunaldian galdu izanaren



Ander Gartzia jokatu. | IMANOL SORIANO

arantza kentzera irtengo dira jokalaria zapatuan. Partidu ona egin nahi dute, urte osoan babesa eman dieten zaleei garai-pen polita eskaintzeko. Hori gutxi balitz, partidua bukatu

eta gero, zaleekin "detailtxo bat" izango dute.

Igoera faseari begira

Hilabete falta den arren, Natra Oñatin hasiak dira igoera faserako prestakuntzak egiten. Kaporaketa partidua maiatzaren 24tik 26ra jokatuko dira, eta, toki finkorik ez dagoen arren, "badirudi Malagan edo Plasencian" jokatuko direla.

Play-off-etara joateko bidaia finantzatzeko, azken partiduko sarrerak gutziek ordaindu beharko dituzte. Nagusiek bi euro ordaindu beharko dituzte eta 18 urtetik beherakoek, berriz, euro bat. Blancok igoera faserako estrategia azaldu du: "Faboritoak Madrilgoak eta Bartzelonakoak izango diren arren, lehenengo partidua ona egiten badugu, zeresan handia emango dugu".

PADELA

Maiatzaren 1ean hasiko da III. AKE padel txapelketa

I.G. | ARRASATE

AKE txapelketa aldaketekin dator. Ligaxkak ez du egutegi zehatzik izango. Antolaztaileek partidua jokatuko epe bat emango dute eta ligaxkako partidua guztiak epe horren barruan jokatuko beharko dira. Hain zuzen ere, taldeek, eguna eta ordua adostu eta gero, kiroldegian kantxa erreserbatu beharko dute. Final-zortzirenetik aurrera, berriz, datak antolakuntzak jarriko ditu. Interesa dutenek arin ibili beharko dute; izan ere, izena emateko azken eguna apirilaren 30a da.

LASA JATETXEA

Zure ezkontza ospatzeko leku paregabea!



Ozaeta jauregia,
Zubiaurre 35 / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55

Bisita gaitzazu
www.restaurantelasa.es



- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauetan 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona min).
- Menu bereziak asteartetik ostiralera (eguardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.



Iturrieta sagardotegia

Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
iturriasagardotegia.blogspot.com

Eskaintza

- Egubakoitzetik domekara irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 90 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- Bertako sagardoa ekologikoa Eusko Labelarekin.
- Sagardotegiko menua (txuletoi edo saiheskiarekin)
- Giro aparta zuzeneko musikarekin.



Santa Ana Hotela

Uribarri auzoa 37 (Udalara bidean) / ARRASATE
943 79 49 39
www.santaanamondragon.com

Eskaintza

- Familiako bazkariak eta kinto bazkariak dantzaldiarekin.
- 100 pertsonarentzako jangela, menu berezia eta karta.
- Terraza eta jangela: ogitarakoak, etxeko hanburesak eta plater konbinatuak.
- Kafe eta pasten catering-a, era askotariko tortillak eta pintxoak.



Uxarte jatetxea

Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

Eskaintza

- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

Eguazten arratsaldeetan itxita



Wok Sheng Xing Yuan

Mugarrieta industrialdea 10, C-B pab. / San Andres auzoa
ARRASATE
943 79 90 29 / 629 41 59 58

Eskaintza

- Itsaski-janak.
- Frijituak.
- Plantxa.
- Sushia.
- Parrilladak.
- Menua, postrea barne.

10 menu hartuta, 1 DOAN.

KULTURA

Elgeta: nazioarteko magiaren erakusleihoa

- ▶ Maiatzaren 4an, 5ean eta 6an, Elgetako IX. Magia Mostra
- ▶ Sarrerak salgai daude Espaloia aretoan eta baita 'on line' ere

AITZIBER ARANBURUZABALA | ELGETA IX. Magia Mostra izango da Elgetan maiatzaren 3an, 4an eta 5ean. Nazioarteko magoak izango dira; baita saridunak ere. Askotariko ikuskizunak izango dira, bada, Espaloia aretoan eta plazan ipiniko duten karpan.

Plazako ekitaldiak doan izango dira eta aretoan izango direnentzako sarrerak salgai daude Espaloian eta www.espaloia.com-en. "Asteburu osorako 21 euroko bonua ateratzeko apustua egin dugu, hasieratik dugun magia zaletasuna ahalik eta gehien hedatzeko helburuaz. Europako beste mostra batzuetan, 30 euroren bueltako sarrerak izaten dira", diote Espaloitik. Badago, baina, egun bakarrerako sarrerak erosteko aukera ere: 15 eurotan egubakoitzekoa eta 18 eurotan zapatukoa. "Bonurakin, ikusleari bi estilo oso ezberdinetan murgiltzeko aukera eman gura diogu. Zapatuko galak askotariko magoak batzen ditu, baina magiaren barruko zutarrak ulertzeko eta mago bat bere osotasunean ikusteko egubakoitzekoa oso gomendagarria da", diote antolatzaileek.

Orain arteko indartsuena

Lehenengo urteko sorpresaren ondoren, eskaintzaren kalitateak eta kantitateak gora egin dute urtetik urtera. Euskal Herriko magoak ekartzen hasi ziren; oraingoan, berriz, nazioartean saritutakoak gonbidatu dituzte. "Magian geroz eta adituagoa den ikusle orokorrarentzako kartela prestatu dugu: egubakoitzean, Tamarizen estiloko mago birtuosoak izango dugu eta zapatuan, berriz, diziplina arteko magia erakustaldia izango da".

Kaleko egitarauan ere badira berrikuntzak: "Magiaz ikasteko haurrentzako tailerrez gainera, harrituko gaituzten Katiaren ikuskizunak izango dira; doan.

Espaloia aretoan izango diren artistak



DANI DAORTIZ | MALAGA
Umorezko magia bizia

Inprobisatzeko joera eta umore fin eta sarkorra duen mago osoa da. Egubakoitzeko saioaz gainera, zapatuko gala aurkeztuko du. Tamarizen gertukoa eta egun munduan onenetakoa dela diote.



MARIO LOPEZ | GIRONA
Zigarroekin magia jokoak

Garai baten askok egiten zuten zigarroak erabilitako magia egiten du, baina guztiz berritua; truku berri askorekin. Aretoan ez du zigarrorik erreko, baina kea aterako dio eskuetan izango duen bakoitzari.



TA NA MANGA | PORTUGAL
Magia poetikoa, minimalista

Magia oso berritzailea egiten duen bikotea da. Adituen esanetan, ikustera ohituta ez gaudena. Minimalistatzat definitu dute. Bi laguneren artean magia jokoen bitartez istorio bat kontatzen dute.




PILOU | FRANTZIA
Karta manipulazioaren magia

2006an eskuratu zuen mundu mailako Magoen Kongresuko sariak bermatzen du Marsellako artistaren maila. Kartak manipulatzeko duen abilezia ikaragarria erakutsiko du, musikaren laguntzarekin.



LUIS BOYANO | GALIZIA
Magia mentalista

Elgetara datorren bigarren aldia da; oraingoan, kabina espiritista batekin dator. Ikuskizun bitxia da, eta oso ondo eginda dagoena. Mundu mailako mentalista saria eskuratu zuen.



EDAMA | ERRIOXA
Magia ilusionista

Tramankulu eta argiteria handiekin osatutako ikuskizuna egiten duen mago gaztea. Telebistan ikusi ohi ditugun moduko saio ikusgarria egingo du; besteak beste, desagertzeak eta horrelakoak.

ELGETAKO IX. MAGIA MOSTRA

ESPALOIA ANTZOKIAN

MAIATZAK 3

22:30 Dani Daortiz (Malaga).

MAIATZAK 4

22:30 Magia Gala:

Ta Na Manga (Portugal)

Luis Boyano (Galizia)

Mario Lopez (Girona)

Pilou (Frantzia)

Edama (Errioxa)

PLAZAKO KARPAN

MAIATZAK 4

16:00 Umeendako magia tailerrak.

19:00 Katia, gorputzik gabeko emakumea (Frantzia).

MAIATZAK 5

10:30 Umeendako magia tailerrak.

13:00 Katia, gorputzik gabeko emakumea.

Haurrentzako tailer magikoak plazan

Mostraren bultzatzaileek apustu berezia egin dute aurten kaleko eskaintzarekin: plazan doako sarrera izango duen karpa jarriko dute heldu zein haurrentzako.

Magia egiten ikasteko helburuarekin, magia-jokoak eta eskulanak bateratzen dituzten haurrentzako tailerrak egingo dituzte zapatuan eta domekan Mendizale plazako karpan. "Urtero antolatu izan ditugu haurrentzako ekitaldiak; oraingoan, Gasteizko lagun batzuen laguntzarekin, tailerrak egingo ditugu. Hainbat mahai-joko ikasiko dituzte eta etxera eramateko tresnatxoak ere egingo dituzte, gainera.

Ez dute gura izan karpa haurrentzako gune soila izatea, eta horregatik ekarriko dute gorputzik gabeko emakumea. Garai bateko ferietan ohikoak ziren moduko ikuskizuna egingo du Frantziatik datorren Katiak, zapatuan eta domekan. Burua bakarrik duen emakumeak sekulako sorpresa emango dio karpan sartzen denari, ez du-eta samur asmatuko non dagoen trukua.



Magia tailerrak. | ESPALOIA

Espaloientzako marka bilakatu da Mostra, eta, horregatik aurrekontu handia badu ere, Mostrari eutsi gura diote. Udalaren, Foru Aldundiaren eta herriko enpresen laguntza jaso dute aurten. Mostraren arrakastaren beste erakusle bat da inguruko hotelak beteta daudela.

Magoen elkargune ere bai

Magoendako ere erreferente bilakatu dela diote: "Asko gure bila etortzen dira guk eurengana jo aurretik. Ikusleak saritzen duen Txapela-ren bila etortzen direnak ere badira. Izen bat dugu dagoeneko, eta badakite, gainera, mimatu egiten ditugula".

Magoek ere mimatuko dituzte Elgetara hurbildutakoak: "Afizioaz gainera, adikzioa ere badute. Samurra da magoak tabernetan trukuak bertatik bertara egiten ikustea". Bost euroko billeteak 50 euroko billete bihurtzen dituztenak ere badirela esan digute. Krisi garaian, ez da gutxi!



Jose de Azpiazu musika eskolak antolatu du aurten Musikaldia. | MIREIA BIKUÑA

Musikaldiak 3.000 lagun inguru ekarriko ditu Oñatira

Bihar egun osoan zehar Euskal Herriko 42 musika eskolako ikasleek hartuko dute parte Musikaldian

ZURIÑE V.D.M. | OÑATI

Musika izango da nagusi egun osoan zehar bihar Oñatin, Musikaldia izeneko musika eskolen topaketaren harira.

Euskal Herriko Musika Eskolen Elkartearen ekimena bada ere, bi urtetik behin herririk herri antolatzen dute eta bihar Oñatin hartuko du lur Musikaldiak. Hori horrela, aurten musika eskolen erakustaldi erraldoia antolatzeko ardura hartu du Jose de Azpiazu herriko musika eskolak.

Bertako zuzendari Aitor Madinak hala azaldu du: "Ikasturtean zehar musika eskolan egiten dugun lana kalera ateratzeko modu bat da Musikaldia".

Ia 3.000 neska-mutilek hartuko dute bihar Musikaldian parte, 42 musika eskolako ikasleek, alegia. Madinak azaldu duenez, dena gertu daukate, "baina eguraldiari begira" daude, kanpoan ere izango baitira hainbat emanaldi.

Guztira, zazpi gune egokitu dituzte Musikaldia Oñatiko txoko ezberdinetan gozatzeko: Foruen plaza, Santa Ana aretoa, parrokia, Zuazola institutua, San Anton plazatxoa Atzeko kalea eta Lazarraga lorategia.

Eta gune horietan askotariko musika jarraitu ahal izango da; besteak beste, ganbara musika abesbatzak, musika modernoa, pianoa...

Iban Garate aurkezle

Melodia ezberdinak nagusituko dira herriko bazter ezberdinetan, goizetik arratsaldera bitartean. Musikaldiari hasiera emateko, aurkezpen ekitaldia egingo dute Foru plazan, 10:30ean, eta Iban Garatek egingo ditu gidari lanak.

Han egongo dira, gainera, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Kultura sailburu Cristina Uriarte, Oñatiko udal ordezkariak eta musika eskolako ordezkariak.

'Musikari' abesti berria

Aurkezpen ekitaldiko berbaldia- ren ostean, Musikaldirako propio egindako kantuaren estreinaldia

MUSIKALDIAREN EGITARAUA

09:30 Etorrera.

10:30 Aurkezpen ekitaldia. Aurrekoa eta *Musikari* abestiaren aurkezpena.

11:00-13:45 Musika eskolako emanaldiak 7 agertokietan.

14:30 Musika eskolako eta erakundeetako ordezkariak ongi-ongietorria unibertsitateko areto nagusian.

15:30-18:00 Musika eskolako emanaldiak.

18:15 Dantzak Foruen Plazan.

18:30 Obaneuke taldearekin erromeria.

egingo dute. Antolatzaileek xehetasun gehiago eman dute; tartean, musika eskolako ikasle izandako bi lagunek egin dute abestia: "Egoitz Aizpuruk idatzi du letra eta Lander Diaz de Gereñuk sortu du musika".

Ekintza bateratua egingo dute, talde guztiek batera hartuko baitute parte abesti berriaren aurkezpenean. Baina ez da guztiek batera esku hartuko duten uste bakarra izango, dantzarako tar- tea ere egongo baita.

Musika baino gehiago

Musikaz gozatzeko aukeraz gainera, Musikaldian gorputzarekin perkusioa landu daitekeela erakutsiko dutela eman du aditzera Arantzazu Bikuña irakasleak: "Musikaz gain, beste hainbat arlo jorratzen ditugu eskolan".

Hala, arratsaldeko emanaldiaren ondoren, hainbat koreografia egingo dituzte; dantzak www.jazpiazumusikaeskola.com atarian zintzilikatuta egon dira, guztiek ikasteko aukera izan zezaten. Ondoren, eta Musikaldiari amaiera emateko, txokolate-jana eta Obaneuke taldearen erromeria egingo dituzte.

Domeketan ere dantza egiteko aukera Herrixa Dantzanekin

Z.V.D.M. | ARRASATE

Gaur iluntzean, ohi bezala 20:00etan hasita, Arrasateko Garaia taberna-jatetxean elkartuko dira herritarrek, Herrixa Dantzan saioaren barruan.

Baina, gainera, aspaldian egin ez bezala, Patxi Monterok domeketan ere eskainiko ditu aurrerantzean, ekainera bitartean, dantza saioak. Elgetan, Bergaran eta Eskoriatzan izango da, modu horretan, Montero, zuzeneko musikaz lagunduta.

Domekan Elgetan

Abendua ezker etenda zeuden domeketako dantza ekitaldiak. Elgetako Espaloian izango da estreinaldia. Gainera Montero ez da bakarrik egongo, Txertubi bikotea alboan izango baitu musikarekin saioa girotzen. "Arrabots taldeko Arkaitz Miner eta Txus Aranburu, hain zuzen ere".

Hori horrela, domekan dantza egitera animatzen direnek ordubeteko saio gidatua parte hartzeko aukera izango dute, Espaloian, 19:00etatik 20:00etara.



Herrixa Dantzan saioa. | GOIENA

Rikardo Arregik solasaldia egin zuen Kulturaten

'Bitan esan beharra' liburu saritu berri bertaratu zen gasteiztarra Liburuaren Egunean

J.B. / Z.V.D.M. | ARRASATE

Espainiako kritikaren saria irabazi berri du, euskarazko poesian, Rikardo Arregi Diaz Heredia idazleak, eta martitzenean, Liburuaren Egunaren harira, Arrasaten egon zen bere liburuaz solasean aritzeko. Arrotza ere ez da Kulturaten Arregi, hainbat urtean hark moderatu izan du eta gaztelarazko irakurketa taldea.

Bisita ezin hobez gozatu ahal izan zuten, modu horretan, Arrasateko irakurleek. *Bitan esan*

beharra izeneko liburu txalotuari buruzko solasaldia bertaratu zen, eta bibliotekako irakurketa taldearekin elkartu.

Gainera, bere liburuaren jarraitzaileak zain zituen Arregi, 14 urte igaro baitira azkena kalera- ratu zuenetik. "Ez neukan pre- sarik poema liburu berri bat idazteko, eta, nahiz eta erdi buka- tuta izan, ongi amaitzeko behar- rezko puntu hori lortu arten itxaron dut". Arregiren esanetan, *best-seller*-ak idazten dituztenek



Arregi, Kulturaten. | JON BEREZIBAR

urtero liburu bat atera behar izaten dute, baina bere proiektuek beste abiadura bat jarraitzen dutela adierazi zuen. "Presiorik ez dudanez, beste modu batera egiten dut lan".

Aukera berria liburuarentzat

Literaturari buruz berba egitea atsegina dela uste du Arregi, eta gustura aritu zen Kulturaten Espainiako literatura kritikak berriki saritutako idazle gasteiz- tarra.

Hain zuzen ere, azken poema bildumarengatik euskarazko poesia saria emango diotela jakin zuen hilaren 20an. "Beti da poz- garria sari bat jasotzea, horrek liburuari beste aukera bat ematen dio hedabideetan egoteko, berriz azaltzeko. Hain zuzen ere, egun oso azkar desagertzen dira liburuak dendetatik".

'Bertso Derry' ekimenarekin Ipar Irlandara

Z.V.D.M. | ARRASATE

Bertso Derry 2013 dela-eta Euskal Herriko 55 lagun joango dira Derryra asteburuan, horietatik 40 debagoien- darrak. Kultura hiri izenda- tu dute Derry eta bertso- laritza Euskal Herriko kanpo ezagutzera ematea eta bi kulturen arteko zubia erai- kitzea da antolatzaileen asmoa. Anje Duhalderen kontzertua, Miren Amuriz- zaren eta Julio Sotoren bertsoak entzun eta turismoa egiteko aukera izango dute egunotan Ipar Irlandan.

SAN ANDRESKO JALAK 2013

Arrasate

Egubakoitza, Apirilak 26

- 17:00 **Jaien hasiera**, Kohete jaurtiketa.
 17:00 **Haur eta gurasoendako jolasak**, Kurtzetxiki Plazan Gazte Asanblada-k antolatuta.
 18:00 **Txokolatada**, Kurtzetxiki Plazan Gaztetxokoak Antolatuta.
 19:00 **Buruhandiak**.
 23:00 **Kontzertuak**, Gudari Plaza.
 - Matxinbrada
 - Mery May
 - **Screamers & Sinners**

Zapatua, Apirilak 27

- 10:00 **Diana**, Kohete eta Trikitiez alaiturik.
 11:00 **Puzgarriak**, Bedoinabe Ikastetxean.
 12:00 **Arrasateko Gaiteroak**.
 12:00 **Eskulanen Erakusketa**, Etxaluzen Emasan antolatuta.
 15:00 **Auzo Bazkaria eta Herri Jolasak**, Gudari Plazan.
 17:00 **Skate festa**, Merendola eta Sariak, Hiruki Plaza.
 18:00 **Monologoa**: "Aita izatea" Rafa-ren eskuz, Gudari Plazan.
 20:00 **Kontzertuak Tabernetan**:
 - 20:00 **PIPPOL**, "El Exterminio de la Raza del Mono"
 - 23:00 **LENNON**, "El Bille"
 22:30 **Monologoa**: "Sermoia" Txusti-ren eskuz, Gudari Plazan.
 23:00 **Erromeria**, antolatutako Berbena, Gudari Plazan.

Domeka, Apirilak 28

- 10:00 **Diana Kohete eta Trikitiez alaiturik**.
 12:00 **Puzgarriak**, Bedoinabe Ikastetxean.
 12:00 **Poteoa**, "Goikobalu" Abezbatzakin.
 16:00 **Billar Lehiaketa**, PIPPOL Tabernan Informazio gehiago taberna bertan.
 17:00 **Diana lehiaketa**, EQUUS Tabernan.
 19:00 **Buruhandiak**.

Martitzena, Apirilak 30


- 17:00 **Triathlon**, Ping-Pong, Futbolin eta Wii
 (11-17 urtekoentzat) San Andres Gazte-Txokoan.
 18:00 **Pintxo-potea**.

Eguaztena, Maiatzak 1

- 10:00 **Diana**, Kohete eta Trikitiez alaiturik.
 12:00 **Magic the Gathering lehiaketa**, Etxeluzen.
 12:00 **Meza**, Gure Nagusientzat.
 12:00 **Poteoa**, Arrasateko Txistularekin.
 13:00 **Aitor Guridi-ri Omentzea** Gudari Plazan.
 14:30: **Jubilatuentzako Bazkaria**, (80 urte baino gehiago dutenentzat) Corazón de Encina-n.
 16:00 **Billar Lehiaketaren Finala**, PIPPOL Tabernan.
 16:00 **Puzgarriak**, Bedoinabe Ikastetxean.

Zapatua, Maiatzak 4

- Mozorro-Party Eguna**, Ek2 antolatua.
 18:30 **Bikote Krossa**, Sari Potoloa Irabazleentzat.
 20:30 **Mozorro desfilea**, Errebuelta eta Dr. Bañez Kalean. Sariak Egongo dira.



Avenida kafetegia - Bittori erretegia - Equus taberna - Imagen ile apaindegia - Izaskun arrandegia
Kapikua opariak eta osagarriak - Kukurutxo gozoki denda - Lizarralde kirolak
MondragonLingua hizkuntza eskola - Oihal errezelak
Pippol taberna - Raos sarraila-denda 24 ORDU - Tantaka taberna
Teknoberri informatika - Urretxu taberna

ONDO PASAU JAIETAN!



Josu eta Iñaki Viejo | Muturreko kirolzaleak

Josu eta Iñaki, garaje kanpoan, motorrekin. Goiko argazkietan: Josu, Huescako Rodellar herriko arrokan gora, Argo 8a; eta Iñaki, Burgosen egindako motor-proba baten ostean.

MIKEL VELASCO

"Bikiak izateak abantaila asko ditu: elkarri laguntzen diogu, motorra konpondu... baina haserretuz gero..."

JONE ALBENIZ | ARRASATE

Josu eta Iñaki Viejo (Arrasate, 1991) muturreko kirolzaleak dira txikitatik; besteak beste, motorrean, MTB eta BMX bizikletan eta eskaladan ibili izan dira. Txapelketa desberdinetan parte hartu dute, penintsulan eta penintsulatik kanpo. Iñakik Aretxabaletan Mekanizazioa ikasi eta gaur egun Epelen soldatzaile moduan egiten du lan. Josuk, berriz, Automobilgintzako goi mailako zikloa egin zuen Elgoibarren, eta lan bila dabil. Orain, gogor entrenatzen dabilta, euren helburu edo maila hobetzeko asmoarekin. Kirolak konpartitzeaz gain, mekanika eta beste hainbat zaletasun konpartitzen ditugu. **Noiztik eta nondik datorkizue kirolzaletasuna?**

Josu eta Iñaki: Txikitatik ibili izan gara errubera artean; 3 urterekin hartu genuen lehen bizikleta eta ez ditugu inoiz erruberrak alde batera utzi.

Ze kirol praktikatzen dituzue? Eta zeintzuk modu profesionalen?

Iñaki: Gehienbat, motorrean ibiltzen naiz; gainera, aurtan lehiatzen hasi naiz, Euskal Herriko txapelketan. Eskaladan urte dezente eman nituen, baina orain, motorrean zentratu eta alde batera utzi dut eskalada. Txikitan MTB bizikletan Euskadiko probak egiten nituen, baina aspalditik ez dut bizikletarik hartzen. Motorra da buruan daukadan kirola, aurtengo txapelketak direla-eta oso motibatuta nago.

Josu: Eskalada da momentuan buruan daukadan kirola. Urteak

eman ditut eskaladako txapelketetan parte hartzen, baina orain, burua arrokan daukat. Neguan hasi nintzen entrenatzen eta poliki-poliki aurreraka noa. Bizikleta txapelketetan hainbat modalitatetako probetan parte hartu izan dut: BMXn, jaitsieran eta trialean. Orain, nire helburu

nagusia eskaladan dudan maila hobetzea da.

Lorpen pertsonal nagusiak?

Iñaki: MTBko Gipuzkoako txapelketa izan nintzen eta eskaladan ere, askotan podiumetik gertu ibiltzen nintzen.

Josu: Duela urte batzuk, eskaladan boulder modalitatean ligako txapelketa izan nintzen, eta kirol honetan ere, Iñakirekin ibiltzen nintzen borrokan podiumera igotzeko Espainia mailan.

Zein txapelketatan gurako zenuke parte hartu?

Josu eta Iñaki: Motorrekin Gordexolan (Bizkaia) egiten den zailtasun handiko Extrem karrean parte hartzea izango litzateke gure ametsa. Baina Euskadi mailan txapelketa guztiei ematen diegu garrantzia.

Kirol gogorak dira? Zerk motibatzen zaituzte?

Josu eta Iñaki: Eskalada eta motorra askorik ezagutzen ez diren kirolak dira. Jendeak ez du uste gogorrak direnik, baina ordu asko behar dira buruan duzun hori lortzeko. Horregatik, ordu asko ematen ditugu astean zehar entrenatzen. Lagunok elkarren artean motibatzen gara, bata besteari adarra jota. Lagunekin disfrutatzeak motibatzen gaitu. Gainera kirola beti lagun artean egiten dugu. Inoiz ez bakarrik. **Bikiak zareten kontura hamaika anekdota izango dituzue, ziur asko, kontatzeko, ezta?**

Josu eta Iñaki: Txikitan, gure aitak nahi barik klasez aldatu gintuen. Irakasleak ez ziren konpartitu; klasekideak, berriz, bai. [Barre]. Eta, egia esan, bikiak garen kontura hamaika anekdota barregarri eta kurioso ditugu.

Ze alde on eta txar dauzka bikiak izateak?

Josu eta Iñaki: Gehienak abantailak dira. Egia esanda elkarri asko laguntzen diogu; motibatu, motorra konpondu... baina haserretuz gero, bronka onak egoten dira... [Barre].

Josu: Duela gutxi, Iñaki gaixorik zegoela, ni joan nintzen hura nintzela esaten motor txapelketa batera.

Ba al da konpartitzen ez duzuen ezer?

Josu eta Iñaki: Ez. [Barre]


ESANAK

"Ameriketara eskalatzera joatea gustatuko litzaidake"

JOSU

"Austrian egiten den motor karrera gustura ikusiko nuke"

IÑAKI



Iñigo eta Maria

Iñigo Zubizarreta arrasatearra eta Maria Arche zaragozarra zapatuan, apirilaren 27an, ezkonduko dira Ezkarain. "Zorionak, bikote, familia-koen eta lagunen partetik! Ondo-ondo pasatu zuen eguna eta zoriontsu izan!"



Ana eta Ibai

Ana Vivas eta Ibai Oruna arrasatearrak zapatuan, apirilaren 27an, ezkonduko dira Etxe Aundin. "Ondo ibili eztei-bidaian, asko disfrutatu eta ea *oparixoa* ekartzen duzuen. Zorionak, bikote! Familiakoen eta lagunen partetik".



Pili eta Mikel

Pili eta Mikel oñatiarrak apirilaren 27an Oñatiko San Lorenzo ermitan ezkonduko dira. "Zorionak, bikote! Oso ondo pasatu zuen ezkontza egunean eta primeran ibili eztei-bidaian! Zuen Oñatiko lagunen partetik, zoriontsu izan!"

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 130 euro.

Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.

Goiena: irakurriena Debagoienean.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

ARRASATE Goiena: Otolara Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

BERGARA Jardun elkarte: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.

OÑATI Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

ARETXABALETA Goiena: Basabe poligonoa E05. 943 25 05 05.

ARAMAIO Kintelena janari-denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22.

ELGETA Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.

ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

URTEURRENA



Sheila Moreno Gomez



Arrasaten hil zen 2010eko apirilaren 29an, 22 urte zituela.

*Maittasuna ez dau lurrak urruntzen,
urak apurtzen, ez izotzak izozten.
Gaur, atzo eta bihar
han eta hemen,
maitte zaittugu,
maitteko zaittugu.*

Familia, Aimar, Oier, Amaia, Jone, Maria, Garazi eta Ione.
Arrasaten, 2013ko apirilaren 26an.

URTEURRENA

Iñaki Ortiz de Zarate Akizu



2012ko apirilaren 24an hil zen.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, apirilaren 28an, 11:30ean, Aretxabaletako Andra Mari parrokian.

*"Nork du ahazten ikasiko?"
norbaitek zion kanta batean.
Nik neuk ez behintzat, ez dut ahaztuko
mila momentu gure bizitzan.*

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.
Aretxabaletan 2013ko apirilaren 26an.

OROIGARRIA

Mikel Perea Uribeetxebarria



Arrasaten hil zen 2013ko apirilaren 25ean, 31 urte zituela.

*Joan zinen
gu hemen utzita
baina, jakin ezazu
inoiz ez zaitugula ahaztuko.*

Copreciko lankideak.
Aretxabaletan, 2013ko apirilaren 26an.

OROIGARRIA

Jorge Salazar Hervas



2013ko apirilaren 24an hil zen.

*Hau da bizitzaren patua
nola ulertu gertatua,
guztion bihotza zatitua,
baina esperantzaz ikutua
Arantzazuren albaan betirako Izar eta Irati
zeuk ereindako fruitua.*

Aranen kuadrillia.
Oñatin, 2013ko apirilaren 26an.

HILDAKOAK

M. Arantzazu Errasti Beitia. Eskoriatzan, apirilaren 17an. 61 urte.

Luzia Arregi Etxabe. Arrasaten, apirilaren 18an. 92 urte.

Bizente Irasuegi Ortueta. Arrasaten, apirilaren 18an. 98 urte.

Clementino Rodrigo Hernando. Bergaran, apirilaren 20an. 72 urte.

Tomas Lumberras Sanchez. Arrasaten, apirilaren 21ean. 96 urte.

Jose Inazio Agirre Irasuegi. Arrasaten, apirilaren 22an. 65 urte.

Jorge Salazar Hervas. Oñatin, apirilaren 24an. 39 urte.

Mikel Perea Uribeetxebarria. Arrasaten, apirilaren 25ean. 31 urte.

ELGETA 'Herrixa dantzan'

Herrixa dantzan saio irekia egingo dute domekan. Elgetako saioetan ohikoa izaten da zuzeneko musikarekin girotzea dantzaldia. Domekan, Txertubi bikoteak eskainiko du emanaldia –Arrabots taldeko Arkaitz Miner eta Txus Aranburu–. Sarrera doan da eta parte-hartzea librea izango da.

Etzi, domeka, Espaloian, 19:00etan.



HERRIXA DANTZAN



JOKIN URIBETXEBERRIA

ANTZUOLA Errugbi Eguna ospatuko dute

Arrasateko Errugbi Taldeak Errugbi Eguna antolatu du Antzuolako gaztetxearekin batera. 11:00etan errugbi erakustaldia egingo dute eta gauean kontzertuak, Never Surrender, Klak!son, Amd eta The Combitz taldeekin.

Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:00etan.

MUSIKA**BERGARA Organo emanaldia**

Aitor Oleak eskainiko du kontzertua Sierbetan, Barroko airean.

Gaur, egubakoitza, Sierbetan 17:00etan.

BERGARA Txistu eta trikiti ikasleak

Apirilean musika ekimenaren barruan txistularien eta trikitilarien emanaldia.

Gaur, egubakoitza, Zabalotegi aretoan 18:00etan.

OÑATI Kontzertua Anduaga eta Untzillarekin

Jose Mari Anduagak eta Untzillak kontzertua egingo dute.

Gaur, egubakoitza, Liburutegian 19:00etan.

BERGARA 'Ni naiz...'

Ni naiz... ipuina, flauta ikasleen eskutik, *Apirilean musika* ekimenaren barruan.

Gaur, egubakoitza, Zabalotegi aretoan 19:30ean.

ARRASATE Arrasate Musikaleko Orkestra eta Goikobalu abesbatza

Dvoraken, Beethovenen eta Gabarainen lanak joko ditu Orkestrak, Goikobalu abesbatzaren ahotsen laguntzarekin.

Gaur, egubakoitza, San Frantzisko elizan 20:00etan.

BERGARA 'Egubakoitzak kartzelan': Bi Bala

Egubakoitzak kartzelan Bergarako gaztetxeke kanpo agertokian maiatzeko ostiraletan antolatzen diren kontzertu lasaien zikloaren hasiera da. Aurkezpen ekitaldian Bi Bala taldeak egingo du ikuskizuna.

Gaur, egubakoitza, Bergarako gaztetxean 22:00etan.

ARRASATE Mery May, Screamers & Sinners eta Matxinbrada

Arrasateko San Andres auzoko jaiak girotzeko kontzertu bikainak antolatu dituzte: Mery May, Screamers & Sinners eta Matxinbrada taldeak. Countrya, punka eta rock-and-rolla, auzoko jaiak girotzeko. Doakoa.

Gaur, egubakoitza, San Andres auzoan 23:00etan.

ARRASATE Axabea

Udaberriko Musikaldiaren barruan. Erdi Aroko kantu eta dantzak berreskuratzen ditu laukoteak garai hartakoetan inspi-

NON-ZER

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.

Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

APIRILAK 26
MAIATZAK 2

ratutako instrumentuekin. XIII. eta XIV. mendeetako lanetan oinarrituko dira.

Bihar, zapatua, San Juan Bataiatzailearen parrokian 20:00etan.

ARRASATE Ensemble Diatessaron

Europako barroko instrumentalarren tradizio oparoa berreskuratzen dute antzinako instrumentuekin eginiko emanaldian. Parrokian izango da.

Etzi, domeka, San Juan Bataiatzailearen parrokian 20:00etan.

ANTZERKIA**BERGARA 'Kri, kra, kro' antzezlana**

Teatro Paraisok *Kri, kra, kro* antzezlana eskainiko du 3 eta 6 urte bitarteko haurrentako. Sarrera 4 euro.

Etzi, domeka, Zabalotegi aretoan 18:00etan.

OÑATI 'Ispilua' antzezlana

Aldatzen Laguntzen antzerki taldearen bigarren antzezlana. Drama eta komedia uztartzen dituen antzezlana da.

Apirilaren 30a, martitzena, Antixenako Gaztetxean 20:00etan.

ARETXABALETA 'The Full Monty' antzezlana

The Full Monty antzezlana eskainiko du Txintxaun kolektiboak. Sarrera 4 euro. *The Full Monty* film ezagunaren antzerkirakoa moldaketa da. Andoni Ruiz, Joseba Romero eta Aitor Aresti dira, besteak beste, aktoreak.

Apirilaren 30a, martitzena, Zariaian 22:00etan.

IKUSKIZUNAK**ARRASATE Komiki gidaren aurkezpena**

Komiki gidaren aurkezpena eta *El arte de volar* Altarriba & Kim egileen emanaldia egingo dute Jokin Zaitegi aretoan.

Gaur, egubakoitza, Jokin Zaitegi aretoan 19:00etan.

ARRASATE 'Hik bai meritua'

Arizmendi Ikastolako lehenengo mailako ikasleek *Hik bai meritua* ikuskizuna eskainiko dute datorren urtean egingo duten ikasbidairako diru ateratzeko helburuarekin. Sarrera 5 euro izango da.

Gaur, egubakoitza, Amaia antzokian 18:30ean.

DANTZA**ARRASATE 'Herrixa dantzan', Portaloiak antolatuta**

Portaloik elkarrekin antolatuta dantza saio irekia egingo dute egubakoitzean Garaian. Herriko autobusean joateko aukera dago.

Gaur, egubakoitza, Garaia taberna-jatetxean 20:00etan

ARETXABALETA Dantza Familiar saioa Carla Fernandezekin

Dantza Familiar saioa Carla Fernandezekin gidaritzapean. 943 53 43 96ra deituta eman daiteke izena. 2 eta 6 urteko haurrei eta horien gurasoei zuzenduta. Prezioa 3 euro izango da bai heldu eta baita umeendako ere.

Etzi, domeka, Kuartel zaharrean 16:30ean..

JAIK**BERGARA San Prudentzio jaiak**

Apirilak 26, egubakoitza: 18:00etan, Txopo jasotzea, kanpai hotsak eta etxafuegoak. Ondoren, afaria. Apirilak 27, zapatua: 14:00etan, auzo

bazkaria Alkartasuna elkartean, bertsolari eta trikitilariekin; 22:30ean, Erromeria auzoko elkartean. Apirilak 28, domeka, San Prudentzio eguna: 13:00etan, Meza nagusia Alai taldeak abestuta. Gero, pilota partiduak. Aste bukaeran, Elorregi auzoan.

ERAKUSKETAK**ARRASATE Kubako punk mugimendua**

Kubako punk mugimenduaren gaineko hitzaldia eta argazki erakusketa. 19:00etan Paul Coll eta Josu Truebaren *Kuidado que muerden!* eta *Al son del punk!* dokumentalaren eta liburuaren aurkezpena izango dute. Argazki erakusketa 17:30etik 20:30era egongo da zabalik.

Gaur, egubakoitza, Arrasateko gaztetxean 17:30ean.

LITERATURA**ARAMAIO Txirritolaren ipuin lehiaketaren sari banaketa**

Sariak banatu aurretik Jakin eta Jolas taldearen *Jolas eta zilarrezko txartela* antzezlana ikusteko aukera egongo da.

Gaur, egubakoitza, Kultur etxean 18:00etan.

HITZALDIAK**OÑATI 'Historia y genealogía de los Lazarraga'**

Gervasio di Cesareren eskutik. Apirilaren 30a, martitzena, Liburutegian 19:00etan.

OÑATI 'La mercantilización de la salud de las mujeres'

Andraitz Emakume Taldeak antolatuta. Emakumea, osasuna eta publizitatea aztertuko dituzte. Euskaraz eta gazteleraz.

Apirilaren 30a, martitzena, Kultura etxean 18:30ean.

BESTELAKOAK**ELGETA Intxorta, 76 urte**

Intxortako frontea ezarri zela 76 urte betetzen diren honetan ekitaldia egingo dute *Intxortako atea-n*, eta jarraian, aurtun



LUZ DE PUTAS

ARRASATE Gaztetxelandia eguna

Arrasateko gaztetxearen 22. urteurrena ospatzen dabilta azken hilabeteetan. Horren harira, Gaztetxelandia eguna ospatuko dute zapatuan. Bazkaria izango dute gaztetxean bertan; eta, gauean, Luz de Putas eta Skakeitan taldeek musika kontzertua eskainiko dute.

Bihar, zapatua, gaztetxean 22:30ean.



goiena

2013-04-26

BUKATZEKO

'Jokoa ez da errenta...', baina jolasa, bai

- ▶ Oñatiko San Migel Txiki jaietako esaera zaharren lehenengo txapelketa egingo dute maiatzaren 4an
- ▶ Bertsolarien esanak entzun eta buruz ikasitako atsotitzekin lotu beharko dituzte parte-hartzaileek

JULEN IRIONDO | OÑATI

San Migel Txiki jaiak, izan, ez dute gauza berezi askoren beharrik herriko nahiz kanpoko jende ugari erakartzeko, berezkoa dute sona eta segurtatua festa giroa. Aurtengoen –maiatzaren 3tik 5era–, baina, badute nobedade interesgarri bat: Esaera Zaharren Txapelketa, aurten lehenengo aldiz egingo dena, Oñatin; Oñatin, ze Bizkaiko zenbait herritan badute tradizioa, eta handik ekarri dute ideia.

"Sopelan urterot egiten da. Hiru bat aldiz egon gara bertan; asko gustatzen zaigu eta pentsatu genuen San Migel Txikitarako ekintza polita litzatekeela", dio Bernat Alberdik, lagunekin parte-hartu izan eta ideia inportatu duen jai batzordeko kideak.

Bi, hiru edo lau laguneko taldeetan hartu daiteke parte txapelketan. Izena emanda 50 esaera zaharreko zerrenda jasoko dute parte-hartzaileek, eta horiek buruz ikasi beharko dituzte taldeko kideen artean lehia egunerako. Maiatzaren 4a izango da egun hori –12:00etan hasita–. Bertso-poteoa egingo dute inguruko tabernetan; bertsolariak kantuan esanak entzun eta buruz ikasiak dituzten esaera zaharretatik ze-



San Miel Txiki jai batzordeko kideak, jaien erdigune den plazan. | MIREN ARREGI

ni erreferentzia egin dioten asmatu beharko dute lehiakideek. Kanporaketen ondoren, San Anton plazatxoan egingo dute finala. Talde irabazleak 100 euroko saria jasoko du.

Zapatu eguerdian, beraz, giroa ziurtatuta dago San Migel Txikietan: "Giro ederra sortzen da eta uste dugu Oñatirako perfektua dela", dio Alberdik txapelketa buruz.

Bere proposamena, noski, begi onez ikusi zuten jai batzordeko gainerako kideek: "Urtero edukitzen dugu bertsoen inguruko ekintzaren bat; pentsatu genuen aukera polita zela gauza desberdin bat egiteko eta herriko jendearen parte-hartzea handiagoa izateko", dio Arkaitz Bengoak.

Txapelketarako izena domeka hau –hilak 28– baino lehen eman behar da, Izarraitz tabernan. Ordurako izena emandakoen kopuruaren arabera, agian epea zerbait luzatuko dutela dio Bengoak: "Baina, noski, esaerak aurretik ikasi behar dira; beraz, komeni da lehenbailehen apuntzea". Ikasi egin behar dira, eta hitzez hitz, berdin-berdin, zehazten du Arkaitzek. Osatu dezagun, bada, gure titularra: *Jokoa ez da errenta, hobe oiloa erreta!*

AZKEN BERBA

IDOIA ETXEBERRIA



Mojak hedabideetan

Bergarara etorritako mojak zeresan handia eman dute. Oso gazteak direlako. Footing egitea gustatzen zaielako. Eskatu egiten dutelako. Eta orain, jada ez direlako moja. Vaticanoak kongregazioa desegin zien. "Diziplina eklesiastikoa urratzeagatik". Antza denez, beste kongregazio bat utzi zuten, eurena sortzeko.

AEBetako mojen kontra ere egin du Vaticanoak. Kondoiarekin eta homosexualitatearekin jarrera malgugia dutelako. "Feminismo erradikala". Eliza kutsatzen ari dela esan du Francisco Aita Santuak. Bilera egin dute mojekin, haiek berbideratzeko. Apaiz pederastekin gauza bera egiten dute?

Bada hedabideetan bolo-bolo dabilen beste moja bat. Teresa Forcades katalana. Medikua da. Ezkertiarra. Konpainia farmaceutikoak gogor kritikatzeko. Abortua eta sexu askatasuna defendatzen ditu. Feminista da, eta antikapitalista. M-11ko gazteekin bat dator. Greba orokor mugagabeko deia egin zuen. Murrizketen kontra dago. Eta Kataluniaren independentziaren alde. Zer esango dute Vaticanoan?

Forcadesek herri hautagaitza bat bultzatu du, Arcadi Oliveres ekonomialariarekin batera. Eta Oliveres Arrasatera dator, maiatzaren 27an. Zeresana ematea espero dut.

R.P.S. Nº 148/10 I.L.G.

umeen
2 betaurreko
erreflexuen aurkako
kristalak barne

87€

* kontsulta itzazu zure zentroan kanpainaren ezaugarriak.



J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan